KIROLA: ARRIKRUTZEK BIHAR HASIKO DU ESKUBALOIKO LIGA /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko irailaren 24a • IV. urtea • 169. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA

European Newspaper AWARD
Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

HENRY ARANA
"Bushen arrebaren ezkontzan izan nintzen; jateko gutxi eta whisky asko eman ziguten" **/8-9**

Goienka2a
Arrasateko Errugbi Taldeak Lehen Mailan jokatuko du aurten

BARRUAN, GEHIGARRIA: DENA PREST OÑATIN, SAN MIGEL JAIETARAKO

MARIJO DEOGRACIAS

Gure enpresak ere Ferroforma azokan

Atzo, eguena, inauguratu zuen Ana Agirre Industria sailburuak Ferroforma 04, Nazioarteko Burdindegi Azokaren 16. edizioa, Bilboko Erakusketa Azokan, Barakaldon. Azoka domekara arte izango da zabalik eta 10:00etatik 19:00etara bisita daiteke, eten barik. Industria eta erabiltzaile guztiendako burdindegiko produktuen hornikuntza-katea osatzen duten ekoizleak, banatzaileak eta profesionalak elkartuko dira feria horretan. Gure ibarreko enpresak (16 enpresa) ere Bilbon dira, Ferroforman, egunotan. Argazkian ikus ditzakezue agintariak Arrasateko JMA enpresak azokan ipini duen erakustokian, Jose Antonio Altuna ugazabarekin berbetan. **/4**

SOLDADUAK: ESKUALDEAN IBILI DIRA MANIOBRATAN

Herritarrek aurre egin diete militarrei

Oraingo astean Espainiako Armadako soldaduak Debagoienean ibili dira maniobrak egiten. Arrasaten, Oñatin eta Urkulun ibili dira. Arrasaten, eguaztenean, 19:30ak aldera, Monterron aurretik igaro zirenean, hainbat herritar zain zeuden, pankarta eta guzti. "Alde hemendik!", "Utzi bakean!" eta halako oihuak entzun behar izan zituzten soldaduek, eta etorritako lekutik joan ziren. **/5**

Herritarrek "Alde hemendik!" oihu egin zieten soldaduei Arrasaten. UBANE MADERA

OÑATI

Bihar, zapatua, inauguratuko dute Haurreskola

Bihar, zapatua, 11:00etan inauguratuko dute Oñatiko Haurreskola. Olakua auzoan dago, Txiki-Txoko eraikinean. Inauguraziora Maite Larrañaga etorriko da, Haurreskola Partzuergoaren gerentea. 11:00etatik 14:00etara egongo da zabalik, hala gura duten gurasoek instalazioak ikus ditzaten. **/7**

DEBAGOIENA/4-5 • IRITZIA/6 • HERRIZ HERRI/7 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

Aurreikuspen/Pentsio Plana | EUSKADIKO KUTXA

Etorkizuna kontuan hartzearren

2004an **Aurreikuspen/Pentsio** planean egiten dituzun ekarpenak batuta, opari hauetakoren bat aukeratu ahal izango duzu, eta 2004ko azaroaren 15etik aurrera eskatu eta jaso ahal izango dituzu.

Lisaketa gunea
15.000 euroko ekarpena

Gosaritarako sorta
5.000 euroko ekarpena

Express kafe-makina
8.000 euroko ekarpena

Sandwich-ontzia
2.500 euroko ekarpena

Laberako erretiluak
2.500 euroko ekarpena

Dekantagailua + 6 kopa
5.000 euroko ekarpena

ADI!
Beste erakunde batetik intsuldaketak eginez ere lor ditzakezu opariak.

Zurekin elkarlanean

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Sektorearen osasuna ikusi, eta kontsumitzaileena zaindu

Aretxabaletako X. Nekazaritza Ekologiko Azoka bihar, zapatua

LEIRE KORTABARRIA

Debagoienean, nekazaritza ekologikoak bilgune garrantzitsu bakarra du: Aretxabaletako Azoka Ekologikoa. Azoka hori bihar, zapatua, izango da, hain zuzen ere. Hamargarren aldia du, eta Euskal Herriko hamar ekoizlek parte hartuko dute. Durana kalean izango da azoka, 09:00etatik 14:00ak arte.

Lau debagoiendar izango dira: Aretxabaletatik, Jose Lonbide (barazkiak) eta Amaia Isazi (fruitu txikiak eta mermeladak); Antzuolatik, Lapatza baserria (barazkiak); eta Leintz Gatzagako beste ekoizle bat. Aipatzekoa da Aiako Goiabe sukaldearen parte-hartzea, bere pintxo ekologikoekin: enpanadilla begetalak, pastak, saltsak... Goiabek bigarren saria irabazi zuen Garapen agentziak deitutako VI. Enpresa Ideia lehiaketan. Hainbat gazta mota, patatak eta kontserbak ere izango dira aukeran; horrez gain, zeramika eta talo postuak ere izango dira.

Ekoizle zein kontsumitzaileendako, nekazaritza ekologikoaz informazioa biltzeko edo ekoizleek harremanak egiteko hitzordu aparta izango da azoka. Besteak beste, salmenta-postuetan aldizkariak, esku-orriak eta bestelako informazioa izango da herritarren eskura.

GUREAN, BOST EKOIZLE

Biolur Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Elkarteak antolatzen du Aretxabaletako azoka, Euskal Herriko azoka ekologiko zirkuituaren barne; uztailetik iraila arte zazpi bat azoka izaten dira. Harrera gero eta hobea da, eta Debagoiena ez da salbuespena: "Ibarreko jendeak oso ondo erantzuten dio Aretxabaletako azokari; ekoizleak pozik daude", dio Biolurreko koordinatzaile Virginia Rivasek.

Baserritarrek ere gero eta interes handiagoa dute: ikastaroek harrera polita dute, eta berri bat hilaren 27an hasiko da Elgetan. Debagoienean, bost ekoizle dago oraingoz, eta Gipuzkoa osoan, 74, iaz baino %8,8 gehiago. Gainera, laborantza mota horrekin Gipuzkoan landutako azalera da 374,69 hektarea, iaz baino %22 gehiago.



ARETXAGAZETA

Nekazaritza zein abeltzaintza, biak landu daitezke modu ekologikoan.

Berritasun moduan, denetariko pintxo ekologikoak ere izango dira bihar Aretxabaletan

TXERRIKIAK ERE BAI

Virginia Rivasek dio erosleek gero eta gehiago baloratzen dituztela produktuok: "Osasunerako hobeak dira: elikagaiak hobeto eta luzaroago gordetzen dituzte. Balantzan jarriz gero prezioa eta kalitatea, gure produktuak ez dira garestiagoak".

Produktu ekologikoen aukera zabalduz doa. Izan ere, Virginia Rivasek dioskunez, "ia denetarik landu daiteke modu ekologikoan". Hasieran fruta eta barazkiak ziren, baina askoz gehiago dago gaur egun: adibidez, askok ez dakitena da abereak ere modu ekologikoan hazi daitezkeela, eta horrek dakar horien produktu guztiak modu ekologikoan lortu daitezkeela: esnea, denetariko gaztak, edo hainbeste zale dituzten txorizo eta urdaiazpikoak.

Bizi-zikloa errespetatu

Ekoizpen ekologikoaren oinarria berbera da produktu guztiendako: lantzen ari garenaren ziklo naturala errespetatzea. Horrela, ekoizleen esanetan, hainbat helburu betetzen dira: izakia hobeto tratatzea; lurra eta baliabide naturalak zaintzea; eta azkenik, produktu osasungarriagoak.

Horrela bada, barazki eta fruten kasuan, ez dira ongarri ez eta pestizidarik erabiltzen; sasoian sasoiko produktuak lantzen dira; eta haien hazkunde erritmoa errespetatzen da.

Abereekin eta eratorriekin, berdin jokatzen da. Sara Lorda Biolurko albaitariak adibide bat ematen digu: "Ardiek behar handiagoak dituzte erditze ostean. Erditzeek gertatu behar dute jateko belar gehien dagoen aroan, hau da, udaberrian. Baina jakina, bildotsa Gabonetan nahi dute gehienek". Abeltzaintza ekologikoaren beste printzipio bat da abereari ez ematea gizakiongana pasa daitekeen eta hondakinak utziko dituen ezer.

Printzipio horiek gero eta baserritar gehiagok egiten dituzte bere. Hala egin nahi dutenek Nekazaritza Ekologikoaren Kontseilu Erregulatzailearen ziurtagiria jasotzeko prozesu bat jarraitu behar dute. Produktuok azokatan, dietetika dendetan eta denda espezializatuetan egoten dira salgai, eta baita supermerkatu batzuetan ere.

TOMAS LARRAÑAGA / ARETXABALETAKO AZOKAKO PARTE-HARTZAILEA

"Nekazari txikiendako diseinatuta dago laborantza ekologikoa"

Antzuolako Lapatza baserrikoa da Tomas Larrañaga. Orain 13 urte egin zuen nekazaritza ekologikoaren aldeko apustua. Biharko Aretxabaletako azokan postua ipiniko du Tomasek.

Zein produktu eramango dituzu zapatuan Aretxabaletara?

Sasoiko barazkiak, hau da, udako produktuak: tomatea, piperra, kalabazak... Negutegiak abantaila handia dira, eta denboraldiak luzatzeko aukera ematen digute; baina sasoian sasoiko produktuak ekoizten ditut. Neguan, porruak, letxuak, zerbak... ekoiztuko ditut. Aretxabaletaz gain, nire betiko azoketara joaten naiz: Antzuolara, Bergarara eta Arrasatera.

Zu nekazaritza ekologikoa lantzen lehenetakoa izan zinen. Hasierak gogoratzen dituzu?

Buruko min asko izan nituen, bai; gauza ezezagun baten aldeko apustua zen hura. Hainbat ustiaketa ikusi eta ikastaroak egin nituen. Azkenean, besteak horretarako gai izan baziren, neu ere izango nintzela pentsatu nuen.

Inbertsio handia egin behar izan zenuen?

Egia esan, inbertsio handiagoa egin behar da ohiko nekazaritzarako, ekologikorako baino. Askorik inbertitu ezin dezakeenarendako, errazagoa da ekologikoan hastea bestean baino.

Urratsa ematearen beldur den baserritar bati zer esango zenioke?

Nekazari txikiendako diseinatuta dagoela. Mendi nekazaritzak ekologikoa izatea derrigorrezkoa dela iruditzen zait; azken baten, mendian biltzen dira baserrian erabiltzen diren lehengai asko. Hor bestelako nekazaritza motak lantzeari ez deritzot ondo.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

Debagoieneko 16 enpresa daude Ferroforma nazioarteko azokan

Domeka arte dago zabalik burdineriaren eta brikolajearen azoka erraldoia

MARIJO DEOGRACIAS/OIHANA ELORZA

Nazioarteko burdineriaren eta brikolajearen azokak eguenean zabaldu zituen ateak. Guztira, 1.363 enpresa dabiltza euren produktuak erakusten, eta horietatik 16 gure ibarrekoak dira. Arlo horretan egiten duten azoka garrantzitsuenetakoa da.

Atzo, eguena, zabaldu zuten Ferroforma 04 feriak Bilbao Exhibition Centre erakustazokan, eta domekara arte egongo da zabalik, 10:00etatik 19:00etara.

Ferroforma azoka nazioarteko burdineria azoka da, eta Bricoforma azokarekin batera, mantentze-lanekin eta etxea girotzearekin zerikusia duten produktuen erakusleihoa da. Lau gai nagusi daude ikusgai azoka horretan: industria hornidurarako tresnak, eskuko lanabesak, loragintza eta elektrikoak, sarrailagintza eta lapikogintza eta etxeko burdineria. Gainera, zura lantzeko tresnak eta eraikuntzan, iturgintzan eta argikuntzan erabiltzen diren tresnak ere erakusten ditu.

MARIJO DEOGRACIAS

Jaurlaritzako, Bizkaiko Diputazioko eta Bilboko Udaleko ordezkariek inauguratu zuten Ferroforma 04.

HEMENGO ENPRESAK

Aurtengoa Ferroformaren 16. azoka da, eta inoiz baino handiagoa da. 28 herrialdetako 1.363 enpresak erakutsiko dituzte euren produktuak, azken azokan baino %13 gehiagok. Dauden enpresetatik 716 atzerritarrak dira, erdiak baino gehiago. Alemania, Frantzia, Italia eta Erresuma Batua herrialdeetatik enpresa asko etorri dira eta baita, Txinatik, AEBetatik eta Taiwandik ere.

Debagoieneko 16 enpresa daude azoka horretan. Besteak beste: Memesa, Oñatiko ULMA, Bekusa eta Altuna Anaiak, Antzuolako Goizper, Aretxabaletako Azbe-Zubia, Eskoriatzako Ezkurra, Arrasateko JMA eta Bergarako Ibili. Azoka horrek Bilbao Exhibition Centre erakustazokako metro asko okupatzen ditu. Sei pabilioi hartzen ditu Ferroformak, eta Debagoieneko enpresak lau pabilioitan dauden banatuta: lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren pabilioietan, hain zuzen ere.

Ibarreko enpresek bat, bi, hiru eta lau pabilioietan dituzte erakustokiak

PRODUKTU BERRIAK

Ferroforma atzo, eguena, eguerdian inauguratu zuten. Ana Agirre Industria sailburua, Jose Luis Bilbao Bizkaiko diputatu nagusia eta Iñaki Azkuna Bilboko alkatea izan ziren inaugurazio ekitaldian.

Elorrioko enpresa batek j arri duen erakusleihoa ikusi zuten lehenbizi eta segidan, Arrasateko JMA giltza enpresarena ikustera joan ziren. Bertan, enpresa horrek atera duen azken produktua ikusi zuten: *sport key* giltza, hain zuzen ere. Giltza horrek edozein futbol talderen logotipoa erakusten du eta standaren alde batean, futbol talde guztien irudiak dituzte giltza nolakoa den erakusteko. Produktu horrekin batera, giltzak egiteko makina berri bat ere badute erakusteko.

Arlo horretan lan egiten duten enpresendako ez ezik, burdineria eta brikolajea gustuko dituen edonorendako ere bada azoka. Bertan, era guztietako produktuak ikusi eta probatu ahal izango ditu. Azoka Barakaldon dago, Bilbao Exhibition Centre erakustazokan, eta 12 euro ordaindu behar da barrura sartzeko txartela.

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

Antzutasuna
Erditzeak
Antisorgailuak
Menopausia
Ekografiak (4D)
Titietako gaixotasunak
Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
Hezur dentsitometria

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18

Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

UBANE MADERA

Arrasaten eguazten iluntzean ibili ziren militarrak maniobrak egiten. Herritarrek oihu eta txistu egin zieten.

Espainiako Armadako soldaduak maniobratan ibili dira Debagoienean

Arrasaten, hainbat herritarrek 'Alde hemendik' egin zieten militarrei

GOIENKARIA

Arrasate, Oñati eta Aretxabaletan, kalean ibili dira eta euren helikopteroak ibarreko herri guztietatik ikusi dituzte. Ibarreko udaletan ez dute baimenik eskatu baina maniobrak egingo dituztela esateko gutuna bidali dute.

Espainiako Armadak maniobrak egin ditu aste honetan gure ibarrean. Arrasaten, Aretxabaletan eta Oñatin, kalean ibili dira militarrak aste honetan. Euren helikopteroek, ordea, Debagoien pareko zeru guztia zeharkatu dute eta ibarreko herri guztietatik ikusi dituzte. Joan den astean iragarri zuen Armadako Paraxutisten Brigadak maniobrak egingo dituela Euskal Autonomia Erkidegoan, eta Debagoienera, behintzat, etorri dira.

EHUN MILITAR KALEAN

Arrasaten, ehun militar inguru pasa ziren Monterron aurretik eguazten iluntzean. Monterron pasa eta Uarkaperako bidea hartu zutenean, atzera bueltatzea erabaki zuten. Ordurako, herritarrak zain zeuden, pankarta eta guzti. Minutu batzuk egin zuten militarrek euren aurrean, eta joandako bidetik bueltatu ziren.

Oñatiko erdiko kaletik, Kale Barritik, 30 bat militar pasatu ziren eguazten eguerdian. Arantzazu aldera joaten ere ikusi zituzten eta baita Udana aldera ere, motxila handi batzuk bizkarrean zituztela. Aretxabaletako kanposantuaren inguruan eta Urkulun ere ikusi zituzten, egun berean, Espainiako Armadako lagunak.

Espainiako Armadaren fax bat jaso dute egunotan ibarreko udaletan praktikak egin behar zituztelako abisu modura. "Ez dira tiro ariketak egingo, ingurumena zainduko da, bai eta jabego pribatua ere, eta ez da herriaren jarduna oztopatuko", dio faxak. Fax hau Eskoriatza eta Arrasateko Udaletan jaso dute, baina baimenik, ez dute inon eskatu.

Kaleak ez ezik, Debagoien osoa zeharkatu dute militarrek helikopteroz

HERRITARREN PROTESTAK

Astelehenean ikusi zituzten Espainiako Armadako helikopteroak Debagoieneko zerua zeharkatzen. Aretxabaletatik, helize bakarreko bi helikoptero eta bi helizeko beste bi ikusi zituzten. Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Arrasate eta Bergaratik ere ikusi zituzten helikoptero horiek.

Arrasaten, herritar asko bildu ziren Monterron parean, militarrei euren protesta adierazteko. Pankarta eta guzti bildu ziren eta arbolapetan batu zirenak txistu egin zieten. "Alde hemendik" eta "utzi bakean" esan zieten militarrei han batu zirenek.

Bestalde, Leintz Askatasunak "Euskal Herrian soberan daudela" esan du eta Ezker Batua alderdiak, "maniobra hauek jasanezinak" direla. Alderdi biek gogor salatu dute militarren presentzia prentsara bidalitako gutunen bidez.

DEBAGOIENEAN LABUR

Denon gustuko urtaroa egingo duela iragarri dute udazkeneko tenporek

Udazkeneko tenporek iragarri dutenez, datozen hamabost egunetan iparra ibiliko da eta euria egingo du tarteka. Urrian eta azaroa erdialdera arte udazken sanoa egingo du, eta baratzak dituztenendako, ehiztariendako eta mahastiak dituztenendako ere giro aproposa egingo du. San Martin ingurutik aurrera, berriz, aldaketa etorriko da eta mendietan elurra ikusteko aukera izango dugu.

Lau autok elkar jo zuten Bergara parean eta hiru lagunek zauri arinak izan zituzten

Martitzen goizean izan zen istripua. Furgoneta batek eta hiru autok elkar jo zuten Bergaratik Arrasaterako bidean, Labegaraieta inguruan. Istripuan, hiru lagun arin zauritu ziren: Antzuolako 70 urteko emakume bat, eta Arrasate eta Aretxabaletako 30 eta 39 urteko gizonezkoak. Hirurak Eskualdeko Ospitalera eraman zituzten. Ertzaintzak zirkulazioa herri barrutik desbideratu zuen.

Datorren martitzenean egingo dute baserri eta auzoetako plastiko bilketa

Eskoriatzan, Zarimutzeko bidegurutzean; Aretxabaletan, Lausitan, Bañuetxen eta Oroko bidegurutzean; Antzuolan, Supide azpialdeko aparkalekuan; Oñatin, Zañartun, Murgialdain, Olabarrietan eta Eteon; Bergaran, Ugarrixan, Munondon eta San Juan auzoko eliza parean. Martitzen arratsaldean egingo dute bilketa.

NUEVA IMAGEN
IKASKETA ZENTROA
ILE APAINTZE-ESTETIKA
MATRIKULA EPEA ZABALIK
Maila goreneko diplomatura
GASTEIZ
Santiago etorbidea 25
(autobus geltokiaren ondoan)
945 27 91 33

Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

Zabalik

MIKEL LEZAMIZ

Bizikletak

Aste hau bakarrik ez dadin izan bizikletak eta autobusak erabiltzeko, herrian bizikleta publikoak izatearen eskariarekin nator oraingoan.

Europako herri eta hiri batzuetan martxan dabiltza jadanik bizikleta publikoak: herriko hainbat tokitan bizikletendako aparkalekuak daude eta supermerkatuetako gurditxoetan bezala bi eurotako txanponak sartuz atera eta erabil dezakezu bizikleta, eta ondoren aparkalekuan uzterakoan berriro eskura dezakezu bi eurotako txanpona.

Bizikleta bereziak izaten dira: gurpilek erradioak estalita dituzte plastiko sendo batekin atzamarrak sartzeko arriskutik kentzeko, baina plastiko horietan propaganda eraman lezakete eta inbertsioa eta mantenuaren kostua jaisteko balio.

Udalak hasierako inbertsio bat egin beharko du bizikletak erosten eta aparkaleku bereziak jartzen, baina enpresa batzuk ere lagun lezakete aparkalekuak jartzen beraien kokalekuen inguruan zeren eta mesedea izango bailitzateke autoen aparkalekuen arazoa konpontzeko. Hasierako inbertsioa 18.000 eurorekin (hiru milioi pezeta) nahikoa litzateke 100 bizikletatik gora edukitzeko.

Aurrera begira Udalak norma bat jarri liezaioke edozein etxeri edota enpresari era honetan: etxebizitza bakoitzarengatik barruko auto aparkaleku bat eduki behar baldin badu, zergatik ez sei edo zortzi bizikleten aparkaleku orokor bat jarri etxe multzo baten inguruan? Ziur bizikleta erabiltzeko zaletasuna sortzen dugula horrelako ekipamenduak egongo balira gure herrietan, eta herri lasaiago eta modernoagoak sortu.

Gutunak

Eskerrik asko, guztioi

Laixan Euskara Elkarteak "Gu eta gure hizkuntzak" jaialdia gertutik bizi izan zenuten guztioi eskerrak eman nahi dizkizue. Ez ekitaldi ezberdinetan parte hartu zenutenoi bakarrik, baita era batera edo bestera jaialdia aurrera eramaten lagundu zeniguten guztioi ere, hala nola, elkarte gastronomiko zein talde katalan eta gailego, ikastetxeak, Udala, txalapartariak, txistulariak, bertsolariak, Oñatz dantza taldekoak, trikitilariak, esatariak, babesleak, kazetariak... Zerrenda benetan amaigabea!

Laixanek eskerrak eman gura dizkizue, bereziki, irailaren 17a eta 18a antolatzen ezkutuan jardun duzuen guztioi, zuek izan baitzarete hasieratik jaialdi honetan sinistu eta egun ezin hobe bat posible egin duzuenak.

LAIXAN EUSKARA ELKARTEA
Oñati

Alde hemendik!

Gogor salatu nahi dugu azken egunotan gure eskualdean eta Euskal Herri osoan egon den presentzia militar espainola. Euskal Herrian soberan daude eta PSOEri eta bereziki Zapaterori eskatzen diogu bere tropak Euskal Herritik atera ditzala.

Eragile desberdinak euskal gatazka gainditzeko hizketan ari diren momentu honetan, gerra egitera etorri ziren indar okupatzaileak soberan daude: militarrak, polizia nazionala, guardia zibila, jendarmeak…

Euskal Herriak bere buruaren jabe izan behar du eta, beraz, kanpo indarrek "Alde hemendik!" oihua ozen entzun behar dute, gure erabakietan eraginik ez izateko. "Alde hemendik" esan diezaiegun aukera paregabea dugu urriaren 12ko mobilizazioetan.

LEINTZEKO ASKATASUNA
Leintz

Hemeroteka

Errausketa, ezinbestekoa?

Zalantzarik gabe, gaur egungo gizarte modernoek duten arazo larrienetako bat kontsumo zein produkzioaren ondorioz sortzen diren hondakinekin zer egin behar den erabakitzea da; eta horren erakusle Gipuzkoan errausteko planten inguruan sortu den polemika. (...)

Egia da lurraldearen egoera larria dela. Zabortegi konbentzionalek itxiera data jakina dute eta gainera, 2006tik aurrera ezingo da tratatu gabeko zaborrik bota zabortegietara, Europako direktibek hala aginduta. Gipuzkoako erakundeek errausketa masiboa ezinbestekotzat jotzen dute. Zaborra erre ezean etxean gorde beharko dugula eta horrelakoak entzun diegu arduradun politikoei.

Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra 2002-2016-k alternatiba ezberdinak aztertu zituen arren, zaborraren %60 erraustearen aldeko hautua egin zuen (hori aurreikuspen baikorrena betetzen bada), eta erabaki horrek denok ezagutzen dugun polemika ekarri du.

Gure ustetan, eztabaida gehiegi zentratu da bukaerako tratamenduan (erre ala ez erre), eta ez da hainbeste eztabaidatu sortzen dugun zabor berreskuragarriarekin zer egin aztertzeko. Izan ere, hor dago plan honen amarrurik handiena: zabor organiko gehiena erretzearen aldeko hautua egin duela. Beraz, larriena ez da berreskuratu ezin dena erretzearen aldeko hautua egin dutela (hori ere eztabaidagarria), baizik eta etxeetan sortzen den zabor organikoa sailkatzea baztertu, eta ondorioz, organiko gehiena erretzea erabaki dutela. Hala ere, behin eta berriz esaten dute gure agintariek zaborraren %40 errekuperatzera iristen bagara, Europako herrialde aurreratuenen parean jarriko garela eta %60 "bakarrik" erretzea lorpen handia izango dela.

Datu hori goitik behera erortzen da Bartzelonako ereduarekin alderatzen dugun une berean. Bartzelonako Entitate Metropolitarraren Planaren aurreikuspenen arabera, 2006rako zaborraren % 60 berreskuratuko dute eta gainerako % 40 zabortegi zein erraustegira joango da. Zaborraren %33 bakarrik erreko da, beraz.

Nola lortzen dute bada Bartzelonan horrelako marka berreskurapenean? Erantzuna zabor organikoaren kudeaketan dago. Bartzelonako planaren lehen lerroetan irakur daitekeen bezala, "etxeetako organikoaren bilketa selektiboa hondakinen kudeaketaren ardatza da".Gure erakundeetako kudeatzaileek aldiz, etxeetako zabor organikoa jasotzea baztertu egin dute, eta ez da bosgarren edukinontzirik jarriko gure kaleetan "zailtasun tekniko" asko sortzen dituelako. Bartzelonako metropolian egin daitekeena, ezin ote da ba egin Gipuzkoan?

Oso bestelako egoeran izango ginateke, hemen ere Bartzelonan bezala, berreskuratu daitekeen guztia berreskuratzeko ahalegina egingo bagenu, ondoren gainerakoarekin zer egin eztabaidatzeko orduan. Bost edukinontzi jarriz gero (1) papera, (2) kristala, (3) plastikozko ontziak, (4) organikoa (5) gainerakoa, hasierako sailkapenaren bidez asko berreskuratuko litzateke. Eta horrez gain, Ekoparkeak eraiki eta mekaniko-biologikoaren bidez, gainerako zaborraren zati handi bat ere berreskuratuko litzateke.

Aurreko prozesu hori kontuan hartuta erabaki beharko litzateke, eta ez lehenago, zer egin berreskuratu ezin daitekeen zati horrekin. Bi aukera daude oraingoz: erre ala egungoak baino zabortegi txikiagoak eraiki eta bertan bota. Gure erakundeetako ordezkariek behin eta berriz esan digute Gipuzkoak ez duela behar adinako espaziorik zabortegi berriak egiteko. Baina kontuan hartuz, zaborraren %60 berreskuratzeko aukera errealak daudela Bartzelonara begiratu berriro ere zabortegien tamaina ere nabarmen txikituko litzateke. Ea benetan horrelako kopuru askoz txikiagoak eta gainera bizigabeak jasotzeko zabortegirik ezin daitekeen egin Gipuzkoan. Hori da aztertu beharrekoa eta eztabaidaren gakoa.

ERNESTO MERINO ETA
AINTZANE EZENARRO (ARALAR)
Berria (2004/09/23)

Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ANTZUOLA

Gaztetxea gaur, egubakoitza, zabalduko dute, eta afaria egingo dute

Kalebarrenean jarri dute gaztetxea, Goñi oinetako denda egon zen tokian. Gaur, egubakoitza, zabalduko dute eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte gazteek, gaztetxeari ongietorria egiteko.

Arratsaldeko seietan, gaztetxearen gaineko bideo emanaldia izango dugu; 19:30ean, poteoa egingo dute trikitilariekin eta bertsolariekin. Gauean, berriz, bertso-afaria egingo dute, gaztetxean bertan; Xabier Silveira, Fredi Paia eta Jokin Uranga bertsolariek jardungo dute bertsotan, afalostean. /A.I.

U.M.

ARAMAIO

Etxaguen auzokoek San Migel jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Barikuan hasi eta domekara arte etxaguendarrek San Migel zaindaria gogora ekarriko dute. Hasteko, barikuan auzoko hildakoen aldeko meza esango dute. Zapatu eguerdian, berriz, San Migelen aldekoa izango da meza eta domekan ere meza izango dute. Aramaioko parrokoaz gain, Patxi Uribarren euskaltzain eta fraideak ere esango du meza, etxaguendarra delako. Horrekin batera, domeka arratsaldean, briska eta tute txapelketak izango dira elkartean, 17:00etan eta 17:30ean txokolatada, umeendako. /U.M.

ARRASATE

Laubide-Garibain lur azpiko aparkalekuak erosteko aukera

Laubide-Garibai lur azpiko aparkalekuetan garajea lortzeko zerrendak Arrasateko edozeinendako eta Arrasatetik kanpoko edozeinendako daude zabalik. Orain arte, Arrasateko erdiguneko auzotarrek bakarrik eros zezaketen aparkalekua. Bi urte barru bukatuko dituzte lanak. Guztira, 595 garaje izango dira. 150 txandaka erabiltzekoak. Gainerako 445ak 50 urterako salduko dituzte. Orain arte, 110 garaje saldu dituzte. Orain, 335 salduko dituzte. Prezioa 15.000 euro da (BEZa barne). Irailaren 30a baino lehen erosiz gero, %15eko deskontua egingo dute; irailaren 30etik aurrera eginez gero erosketa, berriz, deskontua %10ekoa izango da. Esan beharra dago garaje guztiak irekiak izango direla. /U.M.

ARETXABALETA

Udazkenak San Migel jaiak ekarri ditu Aretxabaletara

Gaurtik domekara bitartean, San Migel jaiak ospatuko dira Aretxabaletan. Ekintza erakargarrienak bihar izango dira: artisauak eta azoka ekologikoa goizean, eta Tapia eta Leturiaren erromeria iluntzetik aurrera. Tril taldekoek, gainera, taloak egin eta saldu egingo dituzte Durana kalean. Beinke-Loramendi dantza, bestalde, ez da dantzatuko. Domekan, kirola eta kantaldia nagusituko dira. Abesbatzako kideek *Atxabaltako betiko kantuak* izeneko emanaldia eskainiko dute, Iturrigorri frontoian. /M.A.

OÑATI

Zapatuan inauguratuko dute Txiki-Txokon egongo den Haurreskola

Bihar, zapatua, 11:00etan inauguratuko dute Oñatiko Haurreskola. Olakua auzoan dago, Txiki-Txoko eraikinean. Inauguraziora Maite Larrañaga etorriko da, Haurreskola Partzuergoaren gerentea. 11:00etatik 14:00etara egongo da zabalik, hala gura duten gurasoek instalazioak ikus ditzaten.

ATE IREKIAK

Urriaren 5ean hasiko du Haurreskolak ikasturte berria. Orain arte bost umek eman dute izena, eta, beraz, bost ikaslerekin hasiko du ikasturtea Haurreskolak. Hala ere, irailaren 28tik urriaren 8a arte, bigarren matrikulazio epea zabalduko dute. Tarte horretan, eskolako ateak zabalik egongo dira nahi duenak barrura sartu eta nolako gelak eta instalazioak dituen ikusteko.

Oñatiko Haurreskolak 0-2 urte bitarteko haurrak hartuko ditu. 0-1 urte bitarteko hamar haur eta 1-2 urte bitarteko beste hamar hartzeko tokiak prestatzen ditu Partzuergoak. Oñatiko eskolan ere lasai sartzen dira 20 haur. Handia eta zabala da eta baliteke gehiago ere sartzea. Eraikinean ez dute aldaketa handirik egin. Eskola bera txukundu, egokitu eta margotu egin dute. Altzariak berriak dira, Partzuergoak ekarritakoak.

Gurasoek 08:30etik 17:30era bitartean eduki ahal izango dituzte haurrak. Bost orduko egonaldia egiten dutenek hilero 135 euro ordaindu beharko dute, eta zortzi ordu artekoek, berriz, 180 euro. /O.E.

Zertzelada

Irailaren 28tik urriaren 8a arte egongo da zabalik matrikulazio epea, eta gurasoek eskola barrutik ikusteko aukera izango dute

BERGARA

Hasi dira Agorrosingo kirolgune berria eraikitzeko lanak

Agorrosingo instalazio zaharrak botatzeko lanak egiten ari dira Antzibar SL enpresako langileak. Kanpoko igerileku handia zena *desagerrarazi* dute asteon.

Lehen fase honetako lanek bi milioi euro inguruko aurrekontua dute. Udalak eta Antzibarrek hitzartutakoaren arabera, maiatzaren erdialderako instalazio berriaren egitura eraikita egongo da.

Hurrengo fase baten estalitako bi igerileku (21x25 m eta 20x25,5 m), aldagelak, gimnasioa, squasherako frontoia, haurtzaindegia eta kafetegi-jatetxea eraikiko lirateke. Atzerapen nabaria duen proiektuak 10,7 milioi euroko aurrekontua du. /E.M.

EDU MENDIBIL

Igerileku handia zena bota dute egunotan.

ELGETA

Pinudien jabeek udaletxean eman behar dute kalteen gaineko berri

Uztailaren 19an izandako txingor zaparradak kalteak eragin zituen herriko pinudietan. Teknikariek ondorioak aztertu ostean, Diputaziora idatzi bat bidali zuen Udalak dirulaguntzei buruzko informazioa eskatzeko. Laguntzen kopurua erabakitzeko, ordea, kaltetuen zerrenda egin behar da pinudien azalera eta egin beharreko lanak zehaztuz. Beraz, kaltetuek udaletxera joan beharko dute irailaren 30a baino lehen datuak ematera. Urrian bilera egingo da informazioa emateko. /I.A.

ESKORIATZA

Eskoriatzako aisialdiaren zerbitzu gida aurkeztuko dute

Irailaren 28an, martitzenean, Eskoriatzako aisialdiaren zerbitzu gida aurkeztuko dute udaletxean. Askotariko zerbitzuen berri ematea du helburu gidak; hala nola, kirol eskaintzari eta ikastaroei buruzko informazioa bilduko du. Bai herritarrek eta baita kanpotik etorritakoek ere Eskoriatzan aurki dezaketenaren berri eskainiko du gidak.

Aurkezpenean egongo dira, besteak beste, Kultura batzordeburu Maider Otamendi eta Gazteria arloko zinegotzi eta arduradun Javier Zugasti. /Z.V.M.

GATZAGA

Dorletako Santutegian urteko azken mezak esango dituzte

Dorletako Santutegia hilabete barru, urri amaieran, itxi eta maiatz hasieran irekiko dute berriz ere. Bitartean ez da mezarik esango bertan; herriko elizan elkartuko dira behin Santutegia itxita.

Udan baino gutxiago, baina negu partean ezkontza batzuk ospatzen dira, eta Dorleta aukeratu dutenei ireki egingo dizkiete ateak. Baita herria ezagutzeko nahiaz Turismo Bulegora jotzen dutenei ere. Hilabete barrura arte, baina,oraindik lasai asko bisita daiteke tokia. /Z.V.M.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

Henry Arana

TAXI GIDARI JARDUNDAKO ERRETIRATUA

“AEBetan dago, baina New York ez da Amerika; New York da New York”

Ezkondu eta gero joan zen Enrike Arana*Porru* AEBetara. Ingelesez ez zekien ezer, eta lan bat baino gehiago egin zituen hasieran, taxiarekin hasi arte. New Yorkeko taxi gidaria izan da urtetan, eta horrelaxe erretiratu da. Manhattan erdi-erdian bizi izan da 40 urte baino gehiago. Orain, Oñatin bizi da, bere txikitako herrian. Irailean, 82 urte egin ditu.



OIHANA ELORZA

OIHANA ELORZA

Elorriotik Oñatira, eta Oñatitik New Yorkera.

Elorrion jaio egin nintzen bakarrik, mundura etorri. Jaio eta berehala etorri ginen Oñatira eta hementxe hazi nintzen. Kamioia gidatzen egiten nuen lan, baina ezkondu ostean, AEBetara joatea erabaki genuen emazteak eta biok.

Zergatik?

Ezin genuen bizimodua atera. Sekula ez genuen bost pezeta poltsikorako egiten. Lehenengo emaztea joan zen, hango euskal jatetxe baten lan egitera. Handik gutxira ni joan nintzen, 1956an, 34 urterekin, eta urtebetera hiru seme-alabak eraman genituen. Bitartean, nire gurasoekin egon ziren umeak.

Nola moldatu zinen lehen egunetan, New Yorken?

Ez nekien ingelesez hitz egiten; sekula ez nuen entzun. Han ere, lan egin behar zen bizitzeko, eta platerak garbitzen aurkitu nuen lehen lanpostua, Jai Alai jatetxean. 10 dolar eta afaria ematen zidaten egunero. Astebetera, ordea, nik ordezkatzen nuen langilea bueltatu egin zen jatetxera, eta berriro hasi nintzen lan bila. Mekanikaria izan nintzen gero, baina ezin nuen bezeroekin hitz egin, ingelesik ez nekielako. Hura utzi eta eraikuntzan hasi nintzen. Lan horretan ez nuen hitz egin beharrik, baina ni oso kaleumea naiz, eta lan gogorregia iruditu zitzaidan. Beste lan baten bila nenbilela, taxi gidaria izateko aukera izan nuen. Banekien autoa gidatzen, hiria ere ezagutzen nuen gutxi edo asko, eta oso gustura hasi nintzen. Taxi gidaria izateko lizentzia erosi, eta erretiratu arte.

Isil-isilik eraman zenuen lehen bidaiaria?

Bai, oraindik ez nekien ingelesez-eta. Zortea izan nuen eta oso bidaiari jatorra tokatu zitzaidan. Hark erakutsi zizkidan ingelesez ikasi nituen lehen lau hitzak: *right*, *straight*, *left* eta *stop*; hau da, eskumara, zuzen, ezkerrera eta geldi. Zazpi urte inguru egin nituen taxi konpainia harendako lanean, eta ondo ikasi nuen ingelesa. Gero, banketxe bateko taxi gidaria izan nintzen.

Banketxeko zuzendariaren txoferra izan zinen?

Bai, baina ez zuzendariarena bakarrik. Enkarguak egiteko ere erabiltzen zuten nire zerbitzua. Ez nuen inoiz dirurik eraman, baina bai paper asko. Pistola eta guzti egiten nuen lan orduan.

Jende ezaguna, inportantea eraman zenuen inoiz?

Behin, Leizaola lehendakari ohiaren anaia eraman nuen. Venezuelatik etorri zen. Juanito Oñatibiarekin zegoen bera, eta taxi gidarien gainean hitz egiten hasi ziren. Sekulako sorpresa hartu zuten ni euskalduna nintzela esan nienean. Hurrengo egunean ere, neuk eraman nuen aireportura.

Leizaola lehendakaria ere eraman nuen behin. “Badakizu zer gertatu den?”, galdetu zidan. “Han lehergailu bat, bonba bat, jarri dutela esan didate eta jarri duena ETA erakundea dela dirudiela”. Nik erantzun nion: “Euskaldunok ezagunak izango gara”.

Joxe Antonio Agirre lehendakariarekin ere egon nintzen.

Ondo baino hobeto ezagutuko dituzu New Yorkeko kaleak eta bazterrak. Nolakoa da hiri handi hori?

Izugarria da, ederra. AEBetan dago, baina ez da Amerika, hura New York da, ez besterik. Hainbat gune ditu eta jakin egin behar duzu bakoitzean zer aurkitu. Izan ere, edozer eros dezakezu han, denetarik dago. Jendea ere, era guztietakoa.

Joaten zinen hango Euskal Etxera?

Birritan izan nintzen bertako presidentea. Euskaldun asko daude AEBetan, baina oso saka-

NEW YORKEKO TAXI GIDARIA

“Banekien autoa gidatzen, eta ingelesa ez jakin arren, taxi lizentzia erosi nuen. Lehen bezeroak erakutsi zizkidan ingelesez ikasi nituen lehen hitzak”

BANKETXEKO ZUZENDARIEN TXOFERRA

“Zuzendarien txoferra ez ezik, banketxeko zerbitzuetarako ere erabiltzen ninduten. Ez nuen inoiz dirurik eraman, baina pistola eta guzti egiten nuen lan”

EUSKAL ETXEKO PRESIDENTEA

“Hango euskaldunok lan asko egin genuen Euskal Etxea egiteko. Nik autoa nuen, eta mahaiak, aulkiak eta bestelakoak erosi eta eraman nituen hara”

DORRE BIKIEN AURKAKO ERASOA

“Hemen nengoen, eta telebistaz jarraitu nuen erasoa; ezin nuen sinetsi. Juduek hasi zuten guztia, eta oraindik soka luzea ekarriko du egoera honek”

“Bushen arrebaren ezkontzan izan nintzen; jateko gutxi eta whisky asko eman ziguten”

banatuta. New Yorken bertan bizi direnak ere ez dira denak ondoan bizi.

Hasieran, txinatar auzoan dagoen lokal bat erosi behar genuen, baina ez zitzaigun toki aproposa iruditu. Azkenean, eliza baten lokala hartu genuen. Poloniarrena zen. Guztiok egin genuen lan Euskal Etxea eraikitzeko. Nik, adibidez, barruan dauden mahaiak eta aulkiak eraman nituen. Autoarekin egin dut nik lan beti, eta bidaiak egiten nituen beharrezkoak ziren gauzak handik eta hemendik ekartzeko. Manhattanen badago gune bat, bigarren eskuko sukalde eta gela osoak saltzen dituztena. Hantxe erosi genituen gauza asko.

New Yorken zeunden Dorre Bikien aurkako erasoa gertatu zen egunean?

Ez, hementxe nengoen, Euskal Herrian, eta telebistaz jarraitu nuen gertakaria. Ezin nuen sinetsi, film bat ikusten nengoela pentsatzen nuen hasieran.

Sarritan izan naiz Dorre Bikietan, gehienetan enkarguak egiten: norbaiti paper edo gutunazal batzuk eramaten edo norbaiten bila joanda. Dorre Bikien azpian ere egonda naiz; denda, taberna, jatetxe eta saltoki asko zeuden eta jende asko ibiltzen zen.

Aldatu da hiria erasoaz geroztik?

Momentu batzuk egoten dira beste batzuk baino okerragoak, baina jendea ahazten ari da. Lehen baino polizia gehiago dabil kaletan, baina gaizkileek nortasuna lapurtzen dute. Juduek hasi zuten hau guztia, eta oraindik soka ekarriko du egoera honek.

Hauteskunde kanpainan daude orain. Musika, dantzari, globo eta bestelakoekin egiten dituzte hitzaldiak bi hautagaiek. Horrelakoak dira benetan amerikarrak?

Beste mundu batean bizi dira haiek, duda barik.

Adibide bat jarriko dizut. Denak New Yorkera joan nahi dute, eta gehienek ez dakite non dagoen ere. Izena ezagutzen dute, hiri handia dela badakite, baina hortik aurrera gauza gutxi.

Bozkatuko duzu azaroko hauteskundeetan?

Bai, dagoeneko heldu zaizkit paperak, postaz. Behin, lagun bat haserretu egin zitzaidan naziotasun amerikarra hartu nuelako. Nik lasai erantzun nion euskalduna nintzela, eta naziotasun euskalduna ezin badut izan, berdin zitzaidala naziotasun espainiarra edo amerikarra izan.

Zer moduz konpontzen zinen banketxeko zuzendariekin?

Bi nagusi izan nituen, eta biekin oso ondo moldatu naiz beti. Lehenengoarekin, hala ere, izan nuen ika-mika txiki bat. Nola gidatu behar nuen esaten zidan sarritan eta hori ez zitzaidan batere gustatzen. Egun batean, esan egin nion mesedez nora joan nahi zuen bakarrik esateko, banekiela nire lana ondo egiten-eta. Handik aurrera, ondoan esertzen zen beti. Oso gizon zuzena zen, eta hark erakutsi zidan ingelesez txukun eta ondo egiten.



O.E.

Bigarren nagusiarekin ere oso harreman ona izan nuen; elkarrekin hartu genuen erretiroa. Behin, ezkontza bat genuela esan zidan; egungo AEBetako presidentearen arrebaren ezkontza, Dorothyrena. Hiru egun iraun zuen ezkontzak, baina ez zuen hemengoen antzik; gauza gutxi zegoen jateko, eta whisky asko edateko.

Langile fina izango zinen nagusien konfiantzazkoa izateko.

Bi nagusiak lagunak izan ditut, baina inoiz ez diet errespeturik galdu. Lagunak izan arren, *jauna* esaten nien nik beti; baita haien emazteei *andere* ere, eta etxekoei ere maila horretan.

Lehen *Enrike Porru* zinen Oñatin, eta orain *Henry* deitzen dizute guztiek.

AEBetara joan nintzenean, ez nuen ingelesez hitz egiten, ez nekien ezer. Ingelesa, entzuten eta hitz egiten ikasi nuen. Toki askotan, izena galdetzen zidatenean, hizkiz hizki esateko eskatzen zidaten. Nik, noski, ez nekien hizkiak ingelesez nola esaten ziren. Gero, Enrike ingelesez Henry dela enteratu nintzen. Henry izena guztiek ezagutzen zuten, eta horrelaxe, Henry bihurtu nintzen.

DANBAKA

DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

SARI NAGUSIA
Disko bat grabatzea

IKUSLEAREN SARIA
Bateria bat + 1.000 euro
musika instrumentuak erosteko

IZENA EMATEKO EPEA
2004ko urriaren 7a

ZUZENEKO EMANALDIAK
Elgetako Espaloia Kafe Antzokian
Urriak 22, azaroak 5 eta 19,
abenduak 3 eta 17
Gaueko 22:30ean

FINALA
Urtarrilaren 14an
Egubakoitza, 22:30ean
Elgetako Espaloia Kafe Antzokian

OINARRIAK ETA BERRI GEHIAGO
www.goiena.net/danbaka edo 943 71 25 11

Goienkaria · Kafe Antzokia espaloia Elgeta · Elgetako Udala · Arrasate Irratia · Goitb Goiena Telebista · Goienkaria · Goiena.net Debagoieneko ataria Interneten · Memesa Industria Hornidurak · Ganesha Tattoo Grow Shop Piercing · Carrión música

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

Arrikrutzek bihar hasiko du Liga

Oñatiko eskubaloi taldeak ACR Larcovi Barakaldo izango du bihar arerio, Zubikoan

XABIER URZELAI

Arrikrutz Oñatiko Kobak eskubaloi taldeak aldaketa askorekin hasiko du bihar (Zubikoan, 19:00etan) lehen nazionaleko Liga txapelketa. Hainbat jokalari garrantzitsuk taldea utzi dute, baina oñatiarrek aurkitu dituzte ordezkoak. Gainera, entrenatzaile berria estreinatuko dute aulkian.

GOIENKARIA

Aurpegi berriak izango dira bihar estreinatuko den Arrikrutz Oñatiko Kobak taldean. Argazkian, joan den denboraldiko taldea.

Jesus Mari Fernandez Zumarragatik etorri den entrenatzaile berriaren ardura izango da taldeak urtero duen helburua lortzea: lehenengo nazional mailari eustea, hain zuzen. Horretarako, lehenbailehen egin beharrekoa da taldea utzi berri duten jokalarien hutsunea ahalik eta azkarren eta ondoen betetzea. Francisco Benitok, Roberto Intzak eta Jon Mugartzak erretiratzea erabaki dute, eta Aitor Jodarrek Galizian jokatuko du, Coruñan.

Lau jokalari horien hutsunea betetzea erronka handia izango da. Lehenengo hiru jokalarien beteranotasunak asko balio zuen; Aitor Jodar, berriz, taldeko jokalari azpimarragarriena izan da. Hutsunea betetzen ahaleginduko dira, baina, etorri diren hiru jokalari berriak: Garikoitz Arregi (28 urte) Bergarako taldetik etorri da; Iker Otegi (22 urte) basauriarra da, baina Arrasaten dabil ikasten eta Arrasateko taldetik fitxatu dute; eta Aimar Elgarresta (22 urte) Zumarragatik etorri da.

DENBORALDI-AURREAN EGINDAKOA

Arrikrutz Oñatiko Kobak taldeak bi aste egin zituen uztailean entrenatzen. Abuztuan, berriz, hilaren 23an hasi zituzten entrenamendu saioak. Ordutik hona lagun artean sei norgehiagoka jokatu dituzte, eta oñatiarrek hiru irabazi eta beste hiru galdu dituzte. Datu horiek ezer gutxi argitzen dute, baina galdutako hiru norgehiagokak maila bereko taldeen kontra izan dira; Arrateren kontra birritan eta Pulporen kontra behin. Argi dago, beraz, aurten ere mailari eusteko taldeak gogotik egin beharko duela lan, baina hori ere ez da berria.

ARERIO GOGORRA

Bihar arratsaldean Oñatiko taldeak izango duen aurkaria ez da makala. Oñatiko taldeko presidente Javier Etxeberriak eman digu Barakaldoko taldearen berri: "Barakaldo arerio gogorra izango da eta aurkari zuzena da, gainera. Seguruenik, sailkapenean erdi aldetik behera egongo dira horiek, gure moduan, eta euren helburua ere mailari eustea izango da. Barakaldoren kontra jokatutako azken bi norgehiagokak justu-justu irabazi ditugu, gol bateko aldearekin, hortaz, ez dugu Liga hasiera makala izango".

Kirolabur

ARRASATE/OMENALDIA

Zapatu arratsaldean (Iturrixpen, 17:00etan) Arrasateko Eskubaloi Taldeak ekain amaieran hil zen *Pitxi* Herrero omenduko du, eskubaloi jaialdi baten bitartez. Lehenengo, Arrasateko beteranoek elkarren kontra jokatuko dute. Gero, AGR Arrasateko jokalariek Gipuzkoako selekzioaren kontra neurtuko dituzte indarrak.

OÑATI/JAIAK

San Migelak direla-eta, asteburuan kirol ekitaldi asko izango dira Oñatin. Bihar, 10:00etan, 17. Oñati Saria txirrindulari lasterketa korrituko dute amateur mailako ziklistek. 16:00etan, Zubikoa pilotalekuan, 21. Mikel Deuna sariko pilota partiduak jokatuko dituzte. Eta, 16:15ean, 12. Areto Futbol Txapelketa jokatuko dute.

ARETXABALETA/JAIAK

Aretxabaletan ere San Migel jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Hala, bihar 10:00etan txirrindulari lasterketa izango da, Gazteendako 5. Criteriuma egongo da-eta jokoan. Ziklista azkarrenek, baina, erlojupeko proba egingo dute arratsaldean, 16:00etan hasita. Horrez gain, herri kirol probak izango dira Herriko Plazan, 13:00etan.

Presta zaitez Behobia-Donostiarako

Arrasateko kiroldegian, prestakuntza fisikoa eta kontrol medikua egingo dizute

Azaroaren bigarren domekan izaten da, urtero, Behobia-Donostia maratoi erdia. Aurten, azaroaren 14an egingo dute. Korrikalari asko hasi dira dagoeneko lasterketa hori prestatzen, eta gero eta jende gehiago ikusten dugu korrika ibarreko errepide izkinetan.

ARRASATEKO KIROLDEGIAN

Arrasateko kiroldegian, Behobia-Donostia, Donostiako maratoia eta antzerako lasterketak prestatzen laguntzen dute. Prestakuntza fisikoaz gain, kontrol medikoak ere egiten dituzte. Oihana Uribetxeberria da kirol medikuntza zerbitzuko arduraduna, eta kontrol horiek "Behoia-Donostia lasterketa egin nahi duen edonorendako" direla azpimarratu nahi du.

Gero eta jende gehiagok hartzen du parte Behobia-Donostia lasterketan.

PREBENTZIOA

Kirol medikuntza zerbitzuak helburuak betetzen laguntzen dio korrikalariari. "Adibidez, batzuek ordu eta bost minutuan nahi dute Behobia-Donostia egin, beste batzuek, berriz, helmugara heltzearekin nahikoa dutela onartzen dute", dio Oihanak. Horregatik, bakoitzari bere entrenamendu propioa jartzen diote, helburua lortzeko lagunduko dion entrenamendua.

Athlon kirol medikuntza zerbitzuak azterketa sakona egiten dio, lehendabizi, lasterketa egitea nahi duen kirolariari: elektroa, giharrak, hezurrak, bizkarra eta esfortzu proba, besteak beste. Azterketa horrekin, korrikalaria zein egoeratan dagoen eta bere gorputzak zenbat eman dezakeen ikusten dute. "Horrela, edozein patologia baztertu eta prebentzio lana egiten dugu", dio Oihana Uribetxeberriak.

PRESTAKETA

"Nork bere ordutegia eta bizimodua du. Guk ezin ditugu erabat kontrolatu, beraz, pultsazioen bitartez prestatzen ditugu", azaldu nahi du Oihanak. "Korrikalariak noiz eta zenbat denboraz entrena daitekeen esaten digu eta guk bere helburuetara egokitzen dugu. Hau da, pultsazioen bitartez jartzen diogu entrenamendu taula; egun batean, 140-150 pultsazio bitartean izan beharko ditu, hurrengoan, esprintak egin beharko ditu eta zein pultsazio izan beharko duen esaten diogu". Zer janari eta noiz hartu dezaketen ere aholkatzen diete korrikalariei.

AUTOBUSEAN JOAN-ETORRIA

Hilabete eta erdi inguru gelditzen da 2004ko Behobia-Donostia lasterketarako. 99 eurogatik, prestaketa osoa, osasun azterketa, entrenamendu pertsonala, joan-etorria autobusean Donostiara, kamiseta bat eta pultsometroen erabilera izango ditu.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

RENAULT SERVICIOS

carrocería rápida

ARTE ABSTRAKTUA MUSEOETAN DAGO ONDO, EZ ZURE AUTOAN.
CARROCERÍA RÁPIDA: KONPONKETAK 24 ORDUEN BARRUAN.

Urradurek, kolpe txikiek, kristal, argi nahiz atzerako ispilu apurtuek ez dute ongi ematen zure autoaren karrozerian. Horregatik, guk 24 orduen barruan konpontzen ditugu, aldez aurreko hitzordu barik eta unean bertan egindako aurrekontuarekin, idatziz eta konpromiso barik. Eta hala ez bada, ordezko ibilgailu bat doan.

XV Juegos Mediterráneos
Almería 2005

Pieza de Origen Renault
Espíritu Renault

RENAULT recomienda elf

Renault Servicios. Gelditu ez zaitezen mugitzen gara.

Buruan baduzu, hemen duzu. www.renault.es

RENAULT
AUTOBERRI
San Andrés auzoa, 8 • Tel. 943 71 24 72 • ARRASATE

Zure arazoa konpondu egiten dugu.

Zure eskura ilea berreskuratzeko sistema **berri eta iraultzailea**.
•
Ez du zerikusirik orain artekoekin.
•
Pertsona bakoitzaren kasura egokitua.

Gubi

GUBI ILE APAINDEGIA
Otalora lizentziaduna 5, 1-B
20500 ARRASATE
943 79 12 74

AZKAR DOANA... HEGAN!

AIREKO TARIFAK

HEGALDI NAZIONALAK • IBILBIDEKO • HEGALDI NAZIONALAK • IBILBIDEKO

PENINTSULA ETA BALEARRAK

Joanaldia **38€** - gatik bakarrik

KANARIAK

Joanaldia **65€** - gatik bakarrik

HEGALDIAK EUROPA, AFRIKA ETA ORIENTERA • JOAN-ETORRIKO TARIFAK

	Madril	Bilbo		Madril	Bilbo		Madril	Bilbo		Madril	Bilbo		Madril	Bilbo
PARIS	69	167	AMSTERDAM	99	99	BERLIN	138	145	GINEBRA	49	132	DAKAR	350	500
LONDRES	74	68	VIENA	115	205	FRANKFURT	105	149	ATENAS	138	219	AMMAN	389	389
ERROMA	119	101	PRAGA	60	199	MUNICH	138	175	COPENHAGUE	83	179	KUWAIT	487	600
LISBOA	114	179	BUDAPEST	180	229	BRUSELAS	76	149	MOSKU	320	320	DOHA	510	510
MILAN	99	73	DUBLIN	60	104	ZURICH	99	99	ISTANBUL	117	239	TUNISIA	275	275

HEGALDI INTERKONTINENTALAK • JOAN-ETORRIKO HAGALDIAK • HEGALDI INTERKONTINENTALAK • JOAN-ETORRIKO HAGALDIAK

	Madrid	Bilbao		Madrid	Bilbao		Madrid	Bilbao		Madrid	Bilbao
BUENOS AIRES	589	589	HABANA	565	610	HOUSTON	319	319	JOHANESBURGO	584	640
RIO	499	499	STO. DOMINGO	349	389	WASHINGTON	289	289	DELHI	589	589
BOGOTA	574	644	NEW YORK	275	275	MONTREAL	349	349	BANGKOK	599	599
QUITO	489	555	MIAMI	309	309	TORONTO	349	349	SINGAPUR	599	599
S. CHILE	643	643	S. FRANCISCO	399	399	VANCOUVER	549	549	TOKYO	539	539
CARACAS	450	450	BOSTON	279	279	NAIROBI	531	531	HONG KONG	529	529
LIMA	519	605	LOS ANGELES	399	399	ACCRA	600	600	PEKIN	599	599
PANAMA	510	510	CHICAGO	309	309	SEYCHELLES	730	730	SYDNEY	925	965
MEXIKO	459	459	ATLANTA	349	349	MAURICIO UHAR.	750	750	SEUL	660	660

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU

VIAJES IBERIA

Pr€zioa eta askoz gehiago...

902 108 108
viajesiberia.com

Joan-etorriko tarifak, irteerak Madrildik eta Bilbotik. Prezio hauek 2004ko irailaren 15etik urriaren 2ra bitartean eginiko erreserbentzat bakarrik. Baldintza batzuetara lotutako tarifak aukeratutako konpainiaren eta eserleku kopuruaren arabera. Informa zaitez beste irteera puntu batzuez. Tasak eta igorpen gastuen gestioa ez daude barne iragarki honetako prezioetan. Prezio zuzenak, tipografiako akatsik egon ezean.

BAL - 001 - M/M

JAIAK Oñati

GOIENKARIA • GEHIGARRI BEREZIA

2004ko irailaren 24a • SAN MIGELAK 2004

SANMIGELAK04

MAKALENA

LANA

LANA, S. Coop. • Bº Santxolopetegi, 24 • Apartado 25
20560 OÑATI (Gipuzkoa) • http://www.lana.coop • e-mail: info@lana.coop
Tels: 943 78 07 00 • Fax: 943 78 32 22

AENOR ER Empresa Registrada ER-0585/2000

CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM
UNE - EN ISO - 9001:2000

MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

■ MUSIKA

Lau musika estilo, etxeko eta kanpoko taldeen eskutik

GOIENKARIA

Oso musika mota desberdin bi izango dira protagonista aurtengo San Migeletan: batetik, Latindar Amerikako doinu beroak; bestetik, rock gogorra. Baina, ohi bezala, euskal musikak ere bere tartea izango du.

Erdi eta Hego Amerikako doinuek berebiziko presentzia izango dute aurtengo jaietan: izan ere, Venezuelatik, hango doinuen erakustaldia egiteko etorriko da Huracan taldea. Ameriketan jarraituz, Argentinako tango eta milongak izango dira, Chamuyo hirukotearen eskutik. Biotan, Donostiatik etorritako bi bikotek dantza erakustaldia egingo dute.

Rockari dagokionez, bi emanaldi nagusi izango dira: batetik, AC/DC-ren abestien moldaketak egiten dituen The Bon Scott Band katalanak; eta bestetik, Oñatiko taldeek egingo duten bertsio kontzertua, biak ere txosna gunean.

Euskal doinuek ere hainbat erakustaldi izango dituzte: trikitia, fandango eta arin-arinak eta Nafarroako jotak izango dira. Bestalde, Oñatiko Musika Bandak kalejira eta kontzertua eskainiko ditu.

LATINOAMERIKAKO ETA AFRIKAKO MUSIKA, ESKAINTZA NAGUSIA

Musika exotikoa indartsu dator Oñatira. Batetik, Venezuelako Huracan taldea etorriko da gurera. Cumaco danbor 'venezuelar beltza'-rekin, salsa, boleroak eta doinu melodikoak joko dituzte, eta musika haren sustrai afrikarrak erakutsi. Hilaren 29an, eguaztena, kalejira egingo dute lehenengo, eta kontzertua segidan, Foruen plazan, 23:00etan. Bestetik, Debagoienean arrakasta handia izaten ari den Chamuyo talde euskal-argentinarra izango dugu, Chamuyo. Jose Luis Lekunberri aretxabaletarrak eta Fernando Coletti eta Pancho Cruz argentinarrek tangoak eta milongak joko dituzte irailaren 30ean, eguena, Foruen plazan, 23:00etan. Azkenik, Alkora talde nafarrak Brasilgo eta Afrikako perkusio eta dantza kalejira egingo du hilaren 30ean, eguena.

AC/DC taldearen abestien bertsioak jotzen dituen The Bon Scott Band etorriko da Oñatira

Venezuela, Brasil, Argentina eta Afrikako musika eskainiko dute hiru taldek

Trikitia, arin-arinak eta fandangoak eta nafar jotak, euskal musikaren zaleendako

Oñatiko Musika Bandak lau pieza joko ditu San Migel Eguneko kontzertuan

TRIKITIA ETA NAFARROAKO JOTAK

Betiko euskal erromeriak eta dantza saioak oso gogoko dituzte askok. Hori dela eta, urteroko eskaintzari eutsi eta horrelako hainbat emanaldi izango dira aurten ere. Publiko gazteak Alaitz eta Maider oiartzuarren trikiti doinuekin dantza egiteko modua izango du urriaren 2an, zapatua. Euskal doinu dantzagarri gehiago izango dira Joselu Anaien eskutik, urriaren 4an, astelehena. Euskal Herrian jarraituta, baina beste estilo batekin, Rivera Canta seikote nafarra etorriko da. Aurreko urtetan egon izan dira jota emanaldiak, eta harrera ona izan zutenez, aurten errepikatu egingo dira. Hilaren 30ean izango da, eguerdian, Foruen plazan.

ROCK ABESTIEN BERTSIOAK

Rock zaleek bi arrazoi on izango dituzte txosna gunera inguratzeko. Gonbidatu berezi moduan, Kataluniako The Bon Scott Band taldea etorriko da urriaren 3an, domeka, emanaldia egitera. AC/DC taldearen jarraitzaileek gustuko izango dituzte, izan ere, horien bertsioak jotzen ditu The Bon Scott Band-ek. Baita bikain egin ere, zuzenekoetan izan direnen esanetan. Bestetik, Oñatiko bertako taldeek ez dute huts egingo eta, hirugarren urtez, hainbat taldeko kideek batera, bertsioak joko dituzte, urriaren 4an, astelehena. Txosna gunerako beste kontzertu batzuk zeuden antolatuta, baina, udal laguntzarik jaso ez eta bertan behera utzi dituzte.

OÑATIKO BANDA ETA TXISTULARI BANDA

Oñatiko Bandek rol garrantzitsua izaten dute herriko jaietan. Musika Bandak hainbat emanaldi egingo ditu: hain zuzen, hilaren 26an, 29an –San Migel Eguna– eta 3an –Errosaixo Eguna. Lehenengo, kalejiran alaituko ditu kaleak, goizean; eta gero, 13:00etan, kontzertua eskainiko du Foruen plazan. Emanaldi bakoitzean lau pieza joko ditu Bandak; tartean, San Migelen martxa, baina baita bestelako doinuak ere, Euskal Herriko zein kanpoko konposatzaileenak. Txistulari Bandak, bestetik, irailaren 30ean eta urriaren 4an, iriarena joko du kalez kale 09:00etan eta, gero, 16:30ean; eta hainbat egunetan, goizeresia ere joko dute.

■ NAZIOARTEKO ARTZAIN TXAKURREN TXAPELKETA

Iazko eta orain bi urteko txapeldunak lehiatuko dira

GOIENKARIA

Lehia polita ikusteko modua izango da etzi, domeka. Izan ere, 45. Nazioarteko Artzain Txakurren txapelketan iazko txapelduna eta aurreko urtekoa izango dira. Horrez gain, beste guztiak ere txapelketa baten edo bestean saria irabazitakoak dira.

Artzain txakurren nagusiendako, pasa ezineko hitzordua da Oñatiko Nazioarteko Artzain Txakurren urteroko txapelketa. Aurten 45. edizioa du, eta munduko artzain txakur onenak lehiatuko dira beste behin Santa Lutzian. Aurten hamaika txakurrek jardungo dute, eta guzti-guztiak izan dira Euskal Herriko edo kanpoko txapelketatan irabazle edo bigarren gelditutakoak. Iazko txapelduna, *Bizkor*, Santa Lutziako landan izango da, Jose Mari Jauregi arabarraren esanetara; aurtengo Arabako txapelduna da. Baita Oñatin hiru aldiz txapela irabazi duen Enrike Mendiguren bizkaitarra ere; aurten, *Riki* txakurrarekin, Bizkaiko eta Euskal Herriko txapelketak irabazi ditu Mendigurenek. *Riki*-k berak Nazioartekoa irabazi zuen orain dela bi urte.

Faboritoak aukeratzea zaila izango da, gainerako bederatzi parte-hartzaileak kontuan hartuta: *Sorgin*, Jon Zuazoren txakurra, Arabako txapeldunordea da; Andres Atxa eibartarra eta *Txato* Gipuzkoako txapeldunak dira; Nafarroako txapeldun Antonio Alustiza eta *Argi* bere txakurra ere lehiatuko dira; baita Kepa Ardantza eta *Txiki* Euskal Herriko txapeldunordeak; Hilario Novillo eta *Tif*, Kataluniako txapeldunak, eta txapeldunorde Armand Flaujat eta *Una* txakurra; Iparraldeko txapeldun Juan Mihura eta *Argi*, eta txapeldunordeak, Jean Paul Irikin eta *Izar*; eta Bearn-en hirugarren sailkatu ziren Gerard Lalande eta *Oursonne* txakurra.

HIRU ARIKETA

Urtero bezala, hiru ariketa egin beharko dituzte artzain txakurrek. Lehenengorako, hiru minutu izango dituzte. Banderatxoz markatuta dagoen bide batetik joan beharko du txakurrak, ardiak dauden kontrara; hemengo zailtasuna datza txakurrak zuzenean ardiengana jotzeko joeran. Epaimahaiak agindutako bi lekutan txakurrak gelditu egin beharko du. Bide guztia egindakoan, ardiengana poliki-poliki inguratu beharko du.

Bigarren ariketa, sei minututan egitekoa, artaldea dagoen lekutik hartu eta zelai barrenean dagoen makila baten inguruan batzea izango dute txakurrak eta nagusiak. Ondoren, hesi tarte batetik pasatu beharko du txakurrak artaldea.

Hirugarren ariketa zazpi minuturen barruan egin beharko dute. Artaldea hartu eta erdian dagoen eskortan sartu beharko du txakurrak. Ondoren, ardi guztiak eskortatik atera egin beharko ditu.

ANTOLAKUNTZA ETA EPAIMAHAIA

Nazioarteko txapelketa antolatzen, urtero bezala, herriko lau lagun ibili dira, nahiz eta Oñatiko elkarte guztietako beste lau bazkidek laguntzen dieten; guztira, 80 bat lagunek egingo dute lan zapatuan eta domekan, hilak 25 eta 26.

Talde antolatzailea Euskal Herriko Artzain Txakurren Txapelketa Antolatzaileen Elkartearen barne dago, eta elkarteko kideek osatuko dute domekan epaimahaia Oñatin: hain zuzen, Arabako ordezkari Iñaki Iriondo; Bizkaiko Jose Mari Pradera eta Jaime Castaños; Gipuzkoako Jose Mari Mendizabal; Iparraldeko Fermin Mihura; eta baita Kataluniako ordezkari bat eta Euskal Herriko Txapelketako antolatzaile Lazaro Milikua ere.

Bestalde, txapelketarako 120 buruko artaldea ekarriko dute Bergarako Elorregi auzoko Aierdi baserritik.

EUSKAL ARTZAIN TXAKURRA

Oñatiko antolatzaile taldea "oso gustura" dabil bere aspaldiko jardunean; hala diosku Jose Mari Bengoa kideak. Berak badaramatza 18 urte lan horretan. Gustura ibili arren, Bengoak txanda pasatuko lioke beste bateren bati, baina, dioenez, "oso zaila da antolatzaile lana uztea, atzetik ez datorrelako inor".

Oñatiko Nazioarteko Txapelketako meritu bat da euskal artzain txakur arraza bultzatzen duela. Hain zuzen, Gorbeia eta Iletsu arrazak dira hemengoak, eta horiek sustatzeko konpromisoa du Oñatiko txapelketak.

Euskal Herriko eta Kataluniako txapeldun eta txapeldunordeak ibiliko dira Oñatin

Euskal artzain txakur arrazak bultzatzeko konpromisoa du Txapelketak

Antolatzaileak, lau herritar, gustura dabiltza, baina baita jende berriaren premian

TXAPELKETAKO GORENEKO POSTUAN, DEBAGOIENDARRIK EZ

Munduko artzain guztiendako erreferentzia da Oñatiko Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa. Hala ere, Debagoienean antolatutako txapelketan, hemengo artzainek behin bakarrik irabazi dute: hain zuzen ere, 1955. urtean, lehenengo edizioan, gertatu zen hori. Urte horretan, Arrasateko Jose Iturbek eta *Txino* txakurrak irabazi zuten. Harrez geroztik, ondoen aritu den debagoiendarra beste arrasatear bat, Jesus Mari Plazaola, izan da. Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelak jantzi izan ditu, baina Nazioartekoa ezin izan du lortu; hala ere, behin baino gehiagotan sailkatu da bigarren. Argazkian, iazko irabazleak dituzue, Jose Mari Jauregi arabarra goreneko postuan; 2002 eta 2001.ean, Enrike Mendiguren bizkaitarrak irabazi zuen; 2000.ean, Jean Marc Chicorp frantziarak.

JAIETAKO E

Egubakoitza, 24

22:30 Bertso jaialdia, Zubikoa kiroldegian, Lizaso, Peñagarikano, Agirre, Mendiluze eta Iturriaga bertsolariekin.

Zapatua, 25

10:00 Amateur mailako txirrindulari lasterketa, XVII. Oñati Saria.

10:30 Areto futbola. Mikel Deunaren XII. Txapelketa (Gazte maila). Aralar-Zarautz.

16:00 XXI. Mikel Deuna sariari dagozkion pilota partiduetako finalerdiak, Zubikoa frontoian.

16:15 Areto futbola. Mikel Deuna XII. Txapelketa (Senior maila). Plaza Berri-Euromar taldeen artean.

18:00 Umeen danborrada, Udal Musika Bandak lagunduta.

Ondoren Erraldoiak eta txorimaloak, Txistulari Bandarekin.

19:00 Lehenengo Maila Nazionaleko eskubaloi partiduak, Zubikoa kiroldegian. Arrikrutz Oñatiko Kobak-ACR Larcovi Barakaldo.

Domeka, 26

09:00 Txistulari Bandaren goizeresia erriko kaleetan barrena.

11:00 Musika Bandaren kalejira.

11:00 45. Nazioarteko Artzain Txakurren Trebetasun Lehiaketa, Santa Lutziako zelaian.

13:00 Oñatiko Musika Bandaren kontzertua, Foruen plazan.

16:00 Bolajoku txapelketa San Martinen.

19:00-21:00 Dantza doinuak, Oñatiko Musika Bandarekin.

Martitzena, 28

18:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsen kalejira, jaiak hasteko.

20:00 Txosna gunean, txupinazoa eta txantxikuaren jaitsiera.

Ondoren Elektrotunos taldearekin kalejira.

20:00 Trikidantz taldearekin dantzaldia, Foru plazan.

23:00 Danborrada nagusia herriko kaleetan zehar, Oñatiko Musika Bandak lagunduta. Amaiera Foruen plazan izango da, Danborradaren Martxarekin eta San Migelen ereserkiarekin.

Ondoren Oñatiko preso eta errefuxiatuen aldeko manifestazioa.

Ondoren Trikidantz taldearekin dantzaldia.

Eguaztena, 29

09:00 Txistulari Bandaren goizeresia.

10:00 Txopekua tiro zelaian, herri mailako plater tiraketa.

11:00 Mikel Deunaren parrokian elkarmeza nagusia, Parrokiako Koruak abestuta.

12:00 Musika Bandaren kalejira.

12:00-14:00 Giza estatuen erakustaldia, Foruen plazan.

12:00-14:00 Umeendako jolasparkea, Etxaluze osteko parkean.

13:00 Oñatiko Musika Bandaren kontzertua, Foru Enparantzan.

16:00-20:00 Haur parkea, Etxaluze osteko parkean.

19:00-21:00 Giza estatuen erakustaldia, Foruen plazan.

20:00 Venezuelako Huracan taldearen kalejira.

23:00 Huracan taldearen kontzertua, Foruen plazan.

Eguena, 30

09:00 Iriarena Txistulari Bandarekin.

09:30 Sokamuturra Foruen plazan, Arno abeltzantzako zezenekin.

11:00-14:00 Haur parkea, Etxaluze osteko parkean.

NAGUSIEN DANBORRADA

Jaiei hasiera emateko, nagusien danborrada izango dugu San Migel bezperan. Herriko plazan bukatuko da, San Migelen ereserkiarekin.

Non: ohiko kaleetan
Noiz: martitzenean, 28an / 23:00etan

BERTSO JAIALDIA, GAUR

Gaur, egubakoitza, bertso jaialdia izango dugu Zubikoa kiroldegian; 22:30ean hasiko da. Punta-puntako bertsolariak izango ditugu, ohi bezala: Sebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano, Joxe Agirre, Aitor Mendiluze eta Unai Iturriaga. Oñatiko bertso eskolako neska-mutilek prestatu dituzte bertsolariondako gaiak, eta Egoitz Aizpuruk jardungo du gai-jartzaile gaurko saioan.

Aspaldiko ohitura da San Migel jaien inguruan bertso saioa antolatzea; 80ko hamarkadan dagoeneko antolatzen zuen Udalak saio hori. Garai bakoitzean boladan dauden bertsolariak ekarri izan dituzte; azken urteotan, esaterako, Maia, Irazu, Egaña...

Sarrerak kiroldegian bertan jarriko dituzte salgai, 22:00etan, sei euroren truke.

Non: Zubikoa kiroldegian
Noiz: egubakoitzean, 24an / 22:30ean



HERRI KIROLAK, HERRI EGUNEAN

Goenatxo, Izeta eta Ostolaza harri jasotzaileek, Azurmendi eta Mugertza aizkolariek eta Tubi eta Lapazaran kirolariek jardungo dute, Herri Egunean.

Non: Foruen plazan
Noiz: zapatuan, 2an / 18:00etan

MEKALKI
S. Coop.

Ondo ibili San Migeletan !!

MEKANIZATUETARAKO
ZERBITZU OSOA

Zubillaga industrialdea 13
Tel.: 943 78 19 11
Faxa: 943 78 29 90
e.maila: mekalki@mekalki.es
http://www.mekalki.es
OÑATI

GITARAUA

13:00 Rivera Canta jota taldearen kontzertua, Foruen plazan.

16:30 Iriarena Txistulari Bandarekin.

17:00 Sokamuturra Foruen plazan.

18:00 Etxaluze osteko parkean, Goloka taldearekin, umeendako ikuskizuna.

20:00 Alkora perkusio eta dantza taldearen kalejira.

23:00 Chamuyo taldearekin, tango musika eta dantza erakustaldia.

Egubakoitza, 1

0,60 euro kostako dira barrakak.
22:30 Traspasos taldearen *Mario por alusion* antzezlana, Santa Ana antzokian.

Gauean Txosna gunean, rock kontzertua, Oñatiko taldeen eskutik.

Zapatua, 2

09:00 Txistulari Bandaren goizeresia.

10:30 Herri mailako ardi, ahari eta bildots lehiaketa.

Fruta, barazki eta gazta lehiaketa.

Lore eta landare erakusketa.

Herri mailako ganadu erakusketa.

Artisau erakusketa.

11:00 Trikitilariak herri kaleetan.

11:00 Tolosako gaiteroak kaleetan.

12:00 Sagardo dastaketa Foru Enparantzan.

13:15 Lehiaketen sari banaketa.

14:30 Herri bazkaria, Zubikoa kiroldegian.

18:00 Herri kirol jaialdia Foruen plazan.

19:30 Txosnetan, herriko preso eta errefuxiatuei omenaldia.

19:30 Parrokian F. Esnalen Salbea, Parrokiako Koruak eta Oñati Abesbatzak abestuta.

22:30 XXI. Mikel Deuna sariari dagozkion pilota partiduen finalak, Zubikoa frontoian.

23:00 Alaitz eta Maider taldearen kontzertua, Foruen plazan.

Gauean Luhartz taldearekin erromeria txosna gunean.

Domeka, 3

09:00 Txistulari Bandaren goizeresia.

11:00 Parrokian elkarmeza nagusia, Parrokiako Koruak abestuta.

12:00 Musika Bandaren kalejira.

13:00 Oñatiko Musika Bandaren kontzertua Foruen plazan.

18:00 Umeendako Top Diskoteka eta Karaokea, Foruen plazan.

18:00 Arku tiraketa erakustaldia, plazako frontoian.

20:00 Oropendola orkestrarekin dantzaldia, Foruen plazan.

20:30 Balkoitik balkoira bertsotan, Kale Zaharrean.

22:30 Bartzelonako Bon Scott Band taldearen kontzertua, txosna gunean.

23:00 Pirotecnia Caballerren suzko erruberak.

23:30 Oropendola orkestrarekin dantzaldia, Foruen plazan.

Astelehena, 4

09:00 Iriarena Txistulari Bandarekin.

09:30 Sokamuturra ohiko kaleetan, Arno abeltzantzako zezenekin.

12:00 Herriko Musika Bandaren kalejira.

12:00etan hasita Incansables txaranga, egun guztian arituko da giroa alaitzen.

12:00 Erretiratuen elkartean, dantza doinuak.

16:30 Iriarena, Txistulari Bandarekin.

17:00 Sokamuturra, ohiko kaleetan.

17:00 Oñatiko musika taldeen bertsio kontzertua, Txosna Gunean.

20:00-21:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

23:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

GOLOKA, UMEENDAKO ANTZERKIA

Umeendako antzerki ikuskizuna ekarriko digu Goloka taldeak, irailaren 30ean. *Bakarrik eta Buztangabe gasolindegian* antzezlana eskainiko du Bilboko antzerki talde honek. Antzezlaneko aktoreak ere bereziak izango dira, txotxongilo erraldoiak, hain zuzen ere.

Oporretara doazela, gurasoek alaba gasolindegian lagatzen dute, ahaztuta. Bakarrik izena hartzen du neskatilak; gasolindegian Patxi ezagutzen du, eta hamaika abentura bizi izango dituzte elkarrekin.

Neskatilaren helburua ikuskizun osoan zehar izango da bere gurasoak aurkitzea eta eurekin elkartzea.

Hain gustuko dituzten barrakez gain, une atsegin bat pasatzeko aukera paregabea, hortaz, hilaren 30ean, Etxaluzen.

Non: Etxaluze osteko parkean.
Noiz: eguenean, 30ean / 18:00etan

MOZORRO ERAKUSTALDIA

Koadrilak mozorrotuta irteteko egguna da Errosarixo Bixamona; jaiei agur esateko eguna ere izaten da, baina, umore onean ibiltzen dira oñatiarrak.

Non: herriko kaleetan
Noiz: astelehenean, urriaren 4an / 12:00

ARKU TIROKETA

Oñatiko arkulari taldeak antolatuta, erakustaldia egingo dute aurtengo jaietan ere. Iaz sortu zuten talde hori, eta geroago eta kide gehiago ditu.

Non: plazako frontoian
Noiz: domekan, 3an / 18:00etan

Kultura Sailak jai zoriontsuak opa dizkizue

OÑATIKO UDALA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

■ DANBORRADA

Danborradak aldaketa asko izan ditu historian barrena

GOIENKARIA

Lehenengo danborrada 1960an egin zuten, San Migel jaietan; ordutik gaur arte aldaketa asko izan ditu, eta Makalena elkartekoek kontatu zuten danborradaren historia berbaldi batean. Musika bandako kideek laster pieza berri bat sartuko dute.

Makalena elkarteak 25 urte bete ditu aurten, eta urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu urte osorako. Horietako bat izan da, hain zuzen ere, danborradaren historia kontatzea.

OÑATZ ANTOLATZAILE

Lagun koadrila batek antolatu zuen lehen danborrada, 1960an. Danbor jotzaileak, kantinerak, erreginak, zaldiak eta karrozak zituen. Arrakasta handia izan zuen, baina ez zuen jarraipenik izan 1966. urtera arte.

Hamarkada hartan sortu zen Oñatz taldea; oso talde dinamikoa zen eta berak hartu zuen danborrada berriro antolatzeko ardura. Egoera politikoa nahasi samarra zen urte haietan, eta 1968 eta 1969an, antolatzaileek boikota egin zieten jaiei. 1970eko hamarkadaren lehen urteetan, aldaketa asko egin zituzten: erreginak eta damak kendu zituzten, eta karrozak eta neska-mutilez osatutako dantzari taldeak sartu.

MUSIKA BANDAREN PAPERA

1980ko hamarkadan, emakumeen taldea sartu zuten danborradan, eta umeen danborrada egin zen, lehen aldiz, 1983an.

Oñatiko Musika Bandak hasiera-hasieratik hartu zuen parte danborradan. Hala ere, apurtu egin zen, eta Arrasate eta Legazpiko bandak etorri ziren urte batzuetan. 1979an, berriro osatu zen Oñatiko Musika Banda. Hasieran, Donostiako danborradako martxak jotzen zituzten, baina, poliki-poliki, herriko piezak sartu nahi izan zituzten. Horrela, Antonino Ibarrondoren hainbat pieza sartzen joan ziren: *Desde Udana a Zubillaga*, *Mirentxu* eta *San Miguel*, besteak beste. 1995ean, *Despierta Juventud* pieza sartu zuten.

Egun, 250 lagun inguruk hartzen dute parte nagusien danborradan, eta 150 inguruk umeen danborradan. Aurten ere, danborradarekin hasiko dira jaiak; irailaren 28an, 23:00etan, herriko kaleetan.

PEDRO MARI IGARTUA

Erreginarekin eta damekin egiten zituzten lehendabiziko danborradak; ordutik aldaketa handiak izan ditu. Umeen danborrada, berriz, 1982. urtetik egiten da.

Herriko koadrila batek antolatu zuen San Migeletako lehen danborrada, 1960. urtean

Oñatz taldeak hartu zuen danborradaren ardura 1966an, eta aldaketak egin zituen

Antonino Ibarrondo oñatiarraren piezak sartu ditu Musika Bandak danborradan

1980ko hamarkadan, emakumeen taldea eta umeen danborrada antolatu zituzten

■ HERRI EGUNA

Berritasun asko dakartza Herri Eguneko azokak

GOIENKARIA

Baserritarren Elkarteak 25 urte bete dituela eta, hainbat berritasun izango ditu aurten Herri Eguneko azokak. Debagoieneko baserritarrek parte hartuko dute euren produktu eta ganaduarekin. 22 sagardotegi egongo dira plazan.

Gazta, ardi eta bildots lehiaketan eta ganadu erakusketan, Oñatiko baserritarrez gain, kanpokoek ere parte hartuko dute aurten. Orain arte herriko baserritarrendako azoka izan da Herri Egunekoa. Aurten, baina, Herri Eguneko azoka antolatzen duen Baserritarren Elkarteak 25 urte bete dituela eta, hainbat berrikuntza izango ditu azokak. Kanpoko baserritarren parte-hartzea, hain zuzen ere, izango da berritasun horietako bat.

Hamahiru baserritako ardi, bildots eta ahariak ikusi ahal izango ditugu Unibertsitate pareko zelaian: 40 behi eta 20 behor, Oñatikoak guztiak. Gazta lehiaketan, berriz, 16 artzainek hartuko dute parte. Frutari eta barazkiei dagokienez, Oñatiko zazpi baserritarrek ekarriko dituzte euren produktuak.

GOIENKARIA

Unibertsitateko klaustroan artisauen postuak jarriko dituzte urriaren 2an, Herri egunean.

BUFALOAK ETA IDIAK ERE BAI

Beste berritasun bat izango da bufaloak, idiak eta idiskoak ere egongo direla ikusgai. Bi idi pare ekarriko dituzte kanpotik; baita pirenaika, betixu eta terrano arrazako hiru idisko ere. Bestalde, Iruatz baserriko bi bufalo ikusteko aukera izango dugu. Azkenik, euskal arrazako txerriak eta oiloak ere jarriko dituzte erakusketan.

Bestalde, Unibertsitateko klaustroan, Oñatiko zein kanpoko artisauen erakusketa jarriko dute. Institutuaren arkupeetan, berriz, taloak egiten ariko dira herriko ehun bat lagun. Aurten, ezker abertzaleko taldeek hartu dute taloak egiteko ardura. Euren esanetan, 120 kilo arto-irin erosi dituzte, goizean hasi eta eguerdia arte taloak egiteko.

Herri bazkarirako 1.000 txartel daude salgai ohiko tabernetan 14 euroren truke

Euskal Herriko 22 sagardotegi onenak egongo dira herriko plazan sagardo dastaketarako

ARRATSALDEAN, HERRI KIROLAK

Herri bazkariaren ostean, herri kirol jaialdia egingo dute. Goenatxo, Izeta eta Ostolaza harrijasotzaileek 137,5 kiloko harri kubikoarekin eta 125 kiloko harri borobilarekin jardungo dute. Harri bakoitzarekin bi minutuan jardun beharko du harri-jasotzaile bakoitzak. Horren ondoren, aizkolarien saioa izango dugu; Azurmendi eta Mugertza aizkolariek parte hartuko dute jaialdi horretan.

Bukatzeko, Tubi eta Lapazaren txanda izango da. Lehendabizi, ingudearekin egingo dute saioa biek; gero, lastoa altxatzen egingo dute erakustaldia.

Aurreko urteetan baino parte-hartzaile gehiago izango ditu azokak

SAN MIGELAK 2004 GOIENA TELEBISTAN

Oñatin bertan egotea bezala

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

SAN MIGELAK 2004
Saio berezia

Urriaren 5ean, martitzena,
20:30ean

OÑATIKO EDIZIO BEREZIA

San Migelak

GOIENKARIA • GEHIGARRI BEREZIA

2004ko irailaren 24a • SAN MIGELAK 2004

SANMIGELAK04

MAKALENA

Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

Kultura Sailak
jai zoriontsuak opa dizkizue

OÑATIKO UDALA

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer da jaietan gehien gustatzen zaizuna?

DEIANE ERRASTI
7 urte

Barraketan ibiltzea eta mozorrotzea gustatzen zait gehien; *Escarlattaz* mozorrotuko naiz, danborradan. Aurten, gainera, Antzuolako lagun bat etorriko da eta afaria egingo dugu.



UNAI ZABALETA
6 urte

Barraketan ibiltzea, batez ere, Txantxikuan; umeen danborrada ere gustatzen zait. Ni mozorrotuta irteten naiz egun horretan. Erromerian ere ibiltzen naiz, berandura arte, gainera.

ITSASO MARTINEZ
6 urte

Poney-etan ibiltzea gustatzen zait gehien; zezen txikiak ikustera ere joaten naiz. Jaietan jartzen duten umeen parkera ere urtero joaten gara; asko gustatzen zaizkit hango jolasak.

AMAIA IBARGUREN
7 urte

Barrakak; gehien gustatzen zaidan barraka da Matxinsaltoa. Umeen parkera joatea ere gustatzen zait; erromeriak ere bai. Umeen danborrada ikustea gustatzen zait, baina parte hartzea ez.

JON BEITIA
7 urte

Barraketan ibiltzea, Matxinsaltoan, gehienbat. Danborrada ez zait gustatzen; erromerietara joatea asko gustatzen zait, baina, ez dut dantza egiten, jolasean ibiltzen gara.

MARKEL UGARTE
7 urte

Barrakak; erromeriara joatea ere asko gustatzen zait, jolas asko egiten dugu plazan. Danborrada ikustera joatea ere gustatzen zait, baina, ez zait gustatzen parte hartzea.

ETABARRUAN...

SAN MIGELAK 2004

Ikuspegia /3
Egitaraua /4
Peñagarikano /6
Umeen jaiak /9
Musika, aukeran /10
Dantza: Alkora /12
Danborrada /14
Giza estatuak /16
Txosnak /19
Txakur txapelketa /20
Herri Eguna /22

Goienkaria

Zuzendaria: Eneko Azkarate
Erredakzioa: Jon Berezibar, Aintzane Irizar
Publizitatea: Amaia Mundiñano
Diseinua: Goio Arana, Maitena Arana
Testuen zuzenketa: Sergio Azkarate

JAIETAKOIRUDIA

BARRAKAK, PLAZAN Martitzenean iritsi ziren barrakak herrira; urtero bezala, plazako aparkalekuan jarri dituzte, eta hantxe egongo dira urriaren 5era arte. Igela, auto-txokeak, ume txikienendako bi karrusel eta *escalextric* bat eta hainbat postu jarriko dituzte plazako aparkalekuan. 1,20 euro kostako da barraketan ibiltzea; urriaren 1ean, baina, umeen eguna dela eta, 0,60 euro ordaindu beharko dugu.

ALKATEARENAGURRA/ Andoni Gartzia

Jai zoriontsuak igaro ditzazuela

Lerro hauen bitartez berriro ere zuenganaino iritsi eta 2004ko jaien egitaraua aurkeztu nahi dizuet, aurrez parte hartu duzuen guztioi eskerrak emanez, egitarau eder eta orekatua lortu baituzue. Gogoan ditut, bestalde, arrazoi bat edo besterengatik gurekin egon ezin diren guztiak.

Dagoeneko 365 egun igaro dira gobernu-taldeak Oñatiren etorkizuna bere gain hartu zuenetik.

Une honetan nolabaiteko zalantza giro batean murgilduta gaudela esan genezake, kontraesan itxuran: satisfazioa eta nolabaiteko pesimismoa: alde batetik, abiapuntua gure alde dugu, egia esanda, 25 urtean zehar egindako etengabeko lanaren emaitza bada ere. Beste alde batetik, globaltasunaren fenomeno gero eta indartsuagoak eta nazioarteko konpetentziak gure ekonomia lokalarentzat etengabeko kezka eragiten dihardute.

Testuinguru honetan, esaldi batean laburtuko nukeen jardun orekatuan lan egin nahi dugu: alarmarik gabe, baina erne! Autokonplazentzian bizitzea gaur egun sekula baino arriskutsuagoa izan daiteke.

Oñatiar guztien onerako lanean jarraituko dugu. Pazientziaz, esperientziaz eta batez ere inteligentzia handiz jardunda, ziur etorkizunak gure arrakasta ikusiko duela.

Jai zoriontsuak igaro guztiok.



SAN MIGELAK 2004
Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

EGITARAUA

JAIETAKO EGITARAUA

Txantxikuaren jeitsiera.

Egubakoitza, 24

22:30 BERTSO JAIALDIA, Zubikoa kiroldegian, Lizaso, Peñagarikano, Agirre, Mendiluze eta Iturriaga bertsolariekin.

Zapatua, 25

10:00 Amateur mailako TXIRRINDULARI LASTERKETA, XVII. Oñati Saria.
10:30 ARETO FUTBOLA.
Mikel Deunaren XII. Txapelketa (Gazte maila). Aralar-Zarautz.

16:00 XXI. Mikel Deunaren sariari dagozkion PILOTA partiduetako FINALERDIAK, Zubikoa frontoian.

16:15 ARETO FUTBOLA. Mikel Deunaren XII. Txapelketa (Senior maila). Plaza Berri-Euromar.

18:00 HAURREN DANBORRADA, Udal Musika Bandak lagunduta.

Ondoren ERRALDOIAK ETA TXORIMALOAK, Txistulari Bandarekin.

19:00 Lehenengo Maila Nazionaleko ESKUBALOI PARTIDUAK, Zubikoa kiroldegian. Arrikrutz Oñatiko Kobak-ACR Larcovi Barakaldo.

Domeka, 26

09:00 Txistulari Bandaren GOIZERESIA.

11:00 MUSIKA BANDAREN kalejira.

11:00 45. Nazioarteko ARTZAIN TXAKURREN Trebetasun Lehiaketa, Santa Lutziako zelaian.

13:00 Oñatiko MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA, Foruen Enparantzan.

Zacatecas.....Genaro Codina
Poeta y aldeano ..... F. Suppe
Adinak .....F. Kortabarria
La del manojo de rosas.... P. Sorozabal

16:00 BOLAJOKU txapelketa San Martinen.

19:00-21:00 Dantza doinuak, Oñatiko MUSIKA BANDAREKIN.

Martitzena, 28 Mikel Aozaratza Deunaren eguna

18:00 Erraldoi eta buruhandien KONPARTSEN KALEJIRA, jaiei hasiera emanez.

20:00 Txosna gunean, txupinazoa eta TXANTXIKUAREN JAITSIERA.

Ondoren ELEKTROTUNOS taldearekin, kalejira.

20:00 TRIKIDANTZ taldearekin dantzaldia, Foru Enparantzan.

23:00 DANBORRADA NAGUSIA herriko kaleetan zehar, Oñatiko Musika Bandak lagunduta. Amaiera Foru Enparantzan izango da, Danborradaren Martxarekin eta San Migelen ereserkiarekin.

Ondoren Oñatiko preso eta errefuxiatuen aldeko MANIFESTAZIOA.

Ondoren TRIKIDANTZ taldearekin, dantzaldia.

Eguaztena, 29 Mikel Deunaren eguna

09:00 Txistulari Bandaren GOIZERESIA.

10:00 Txopekua tiro zelaian, herri mailako PLATER TIROKETA.

11:00 Mikel Deunaren parrokian ELKARMEZA NAGUSIA, Parrokiako Koruak abestuta.

12:00 MUSIKA BANDAREN kalejira.

12:00-14:00 GIZA ESTATUEN erakustaldia, Foru Enparantzan.

12:00-14:00 HAUR PARKEA, Etxaluze osteko parkean.

13:00 Oñatiko Musika Bandaren KONTZERTUA, Foru Enparantzan.

A San Miguel.....Refice
Ibar Aldian.....A. Ibarrondo
Rivieren Cyclus.....Malando
El Caserio .....Guridi

16:00-20:00 HAUR PARKEA, Etxaluze osteko parkean.

19:00-21:00 GIZA ESTATUEN erakustaldia, Foru Enparantzan.

20:00 Venezuelako HURACAN taldearen KALEJIRA.

23:00 HURACAN taldearen kontzertua, Foru Enparantzan.

Eguena, 30

09:00 IRIARENA Onatiko Txistulari Bandarekin.

09:30 SOKAMUTURRA Foru Enparantzan, Arno abeltzaintzako zezenekin.

11:00-14:00 HAUR PARKEA, Etxaluze osteko parkean.

AVENIDA
bideokluba
Euskadi etorbidea 7

ONENA
bideokluba
Bidebarrieta kalea 15

Kutxazain automatikoa 24 orduz
Nobedadeak VHS eta DVD formatuetan

Makina automatikoak: sandwich hotz eta beroak, freskagarriak, zukuak, snack eta arto-krispeta beroak. (abenidako dendan bakarrik)

modu eroso eta errazean
...eta inoiz baino gertuago!

Tel.: 943 78 09 65 OÑATI



EGITARAUA

HERRI EGUNEAN, URRIAK 2, TALO POSTUA JARRIKO DUTE TXOSNEN ONDOAN.

13:00 RIVERA CANTA jota taldearen kontzertua, Foru Enparantzan.

16:30 IRIARENA Txistulari Bandarekin.

17:00 SOKAMUTURRA Foru Enparantzan.

18:00 Etxaluze osteko parkean,

GOLOKA taldearekin, UMEENDAKO IKUSKIZUNA.

20:00 ALKORA perkusio eta dantza taldearen KALEJIRA.

23:00 CHAMUYO taldearekin, TANGO musika eta dantza erakustaldia.

Egubakoitza, 1

0,60 euro kostako dira barrakak.
22:30 TRASPASOS taldearen *Mario por alusion* antzezlana, Santa Ana antzokian.

Gauean Txosna gunean, ROCK KONTZERTUA, Oñatiko taldeen eskutik.

Zapatua, 2
Herri eguna

09:00 Txistulari Bandaren GOIZERESIA.

10:30 Herri mailako ARDI, AHARI ETA BILDOTS lehiaketa.

FRUTA, BARAZKI ETA GAZTA lehiaketa.

LORE ETA LANDARE erakusketa.

Herri mailako GANADU erakusketa.

ARTISAU erakusketa.

11:00 TRIKITILARIAK herri kaleetan.

11:00 Tolosako GAITEROAK kaleetan.

12:00 SAGARDO dastaketa Foru Enparantzan.

13:15 Lehiaketen SARI BANAKETA.

14:30 HERRI BAZKARIA, Zubikoa kiroldegian.

18:00 HERRI KIROL JAIALDIA Foru Enparantzan.

19:30 Txosnetan, herriko preso eta errefuxiatuei OMENALDIA.
19:30 Parrokian F. ESNALEN SALBEA, Parrokiako Koruak eta Onatiko Abesbatzak abestuta.

22:30 XXI. Mikel Deunaren sariari dagozkion PILOTA partiduen FINALAK, Zubikoa frontoian.

23:00 ALAITZ ETA MAIDER taldearen kontzertua, Foru Enparantzan.

Gauean LUHARTZ taldearekin, erromeria txosna gunean.

Domeka, 3
Errosaixo Eguna

09:00 Txistulari Bandaren GOIZERESIA.
11:00 Parrokian ELKARMEZA NAGUSIA, Parrokiako Koruak abestuta.
12:00 MUSIKA BANDAREN kalejira.
13:00 Oñatiko Musika Bandaren KONTZERTUA Foru Enparantzan.
Lazos de amistad .....J. Teixidor
Jeanne Maillot .....J.Reynaud
Obertura Vascongada.....J.A. Santesteban
La boda de Luis Alonso .....Gimenez
18:00 Umeendako TOP DISKOTEKA ETA KARAOKEA, Foru Enparantzan.

18:00 ARKU TIROKETA erakustaldia, plazako frontoian.

20:00 OROPENDOLA orkestrarekin dantzaldia, Foru Enparantzan.

20:30 BALKOITIK balkoira BERTSOTAN, Kale Zaharrean, Igor Elortza eta Iñaki Gurrutxagarekin.
22:30 Bartzelonako BON SCOTT BAND taldearen kontzertua emango dute, Txosna Gunean.

23:00 Pirotecnia Caballerren SUZKO ERRUBERAK.

23:30 OROPENDOLA orkestrarekin dantzaldia, Foru Enparantzan.

Astelehena, 4

09:00 IRIARENA Txistulari Bandarekin.

09:30 SOKAMUTURRA ohiko kaleetan, Arno abeltzaintzako zezen taldearekin.

12:00 MUSIKA BANDAREN kalejira.

12:00etan hasita INCANSABLES txaranga, egun guztian zehar.

12:00 Erretiratuen elkartean, DANTZA DOINUAK.

16:30 IRIARENA, Txistulari Bandarekin.

17:00 SOKAMUTURRA, ohiko kaleetan.

17:00 Oñatiko musika taldeen BERTSIO KONTZERTUA, Txosna Gunean.

20:00-21:00 JOSELU ANAIAK taldearekin, dantzaldia.

23:00 JOSELU ANAIAK taldearekin, dantzaldia.

itziaroptika

elkargokide zbkia: 11472
Tel/faxa: 943 71 82 88
itziaroptika@wanadoo.es
kale barria 32 20560 oñati gipuzkoa

SAN MIGELAK 2004
Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

ELKARRIZKETA ANGEL MARI PEÑAGARIKANO

“Bertsolaritzaren egoerak baino gehiago euskarak kezkatzen nau”

JON BEREZIBAR

Zubikoa kiroldegiko bertso jaialdiko gonbidatuetako bat izango da Angel Mari Peñagarikano. Jaien bezperan egingo da saioa, eta berarekin batera Lizaso, Agirre, Mendiluze eta Iturriaga egongo dira taula gainean.

Saio hau, baina , ez da jaietan egingo den bertso jaialdi bakarra. Bertsozaleek bigarren hitzordu bat izango dute urriaren 3an. *Balkoitik balkoira* formatu ezagunean egingo da saio hau. Kale Zaharrean egingo da eta aurrez aurre egongo dira Igor Elortza eta Iñaki Gurrutxaga bertsolariak.

Peñagarikano, ostera, irailaren 24an izango dugu kiroldegiko jaialdian.

Oñatin sarri izaten dugu zure saioak ikusteko aukera. Sarri etortzen zara, ezta?

Egia esan, ia urtero etorri izan naiz. Izan ere,. Oñati herri oso bertsozalea da eta plaza moduan oso eroso sentitzen naiz. Gainera, euskara oneko herria da, eta hori asko nabaritzen da. Herrikoetan gain, auzoetan ere jai asko daude, eta horiek ere ezagutzen ditut. Iruditzen zait Oñatin bertsorik gabe ez dela festarik egiten.

Frontoiaz aparte, ezagutzen dituzu jaiak eta herria?

Euskaldun gehienek ezagutzen dugun herria da. Noiz edo noiz etortzen naiz Arantzazura edo Urbiara. Leku oso ederra da, eta bertsolaritzaren bitartez makina bat lagun egin dut hemen.

Zer nahiago, saio handiak ala bertso afariak?

Ni beti izan naiz formatu txikien zalea. Nire ustez, jaialdiek lau bertsolarikoak izan beharko lukete, gehienez ere, seikoak.

Zortzi lagunekoak, adibidez, larregikoak iruditzen zaizkit. Tamainarik aproposena lau edo seikoa da, zalantzarik gabe.

Ohitura badago zortzi bertsolarirekin egiteko, baina asko da. Bertso afariei dagokienez, bikoa da zenbaki egokia.

Badirudi orain bertsolarien hazkunde horinolabait apaldu egin dela. Nola ikusten duzu geroa?

Egoera orain ez da txarra, bertsolari gazteak eta onak baitaude. Kopuruz, agian, ez dira hainbeste izango, baina kalitatearen aldetik ez gaude kexatzeko moduan.

Bertsolaritzaren egoerak baino gehiago, euskararenak kezkatzen nau gehienbat. Etorkizunarekiko zalantzarik handienak esparru horretan ditut.

Bertsolaritza, hala eta guztiz ere, ondo ikusten dut.

“Jaialdiek lau bertsolarikoak beharko lukete, gehienez seikoak”

“Guztiaren gainetik bertsolariak aktorea izan behar du”

Beti lotu izan zaitugu umorezko bertsolaritzarekin. Bat zatoz asoziazio honekin?

Bertsolari guztiok terreno guztietan moldatu beharra daukagu, baina nik, benetan, nahiago ditut bakarkako gai serioak. Hala ere, Lizaso, Egaña eta abarrekin batera ni ere umorearekin lotu izan naute.

Guztiaren gainetik bertsolariak aktorea izan behar du taula gainean, eta umoretsu izatea eskatzen bazaigu, hala jokatu behar dugu.

Hor daukagu Manuel Lasarteren adibidea ere. Bere bizitzan oso gizon sufritua izandakoa da, baina taula gainean umoretsu beti.

***Balkoitik balkoira* ikuskizuna izango dugu jaietan ere. Zer deritzozu formatu honi?**

Ganoraz eginez gero oso formatu egokia da bertsolaritza sustatzeko.

Baina baldintza onetan egin behar da, leku aproposa behar da eta jendeak ere horretan egon behar du. Hala ere, horrelako ekitaldi bat oso interesgarria iruditzen zait.

GOIENKARIA

BATVAK,S.A

• MEKANIZAZIOAK ETA KONPONKETAK ORO HAR
• TORNUAK ETA FRESATZEKO MAKINAK - CNC
• ARTEZTEKO MAKINAK

Zubillaga industrialdea 12
Tel.: 943 78 11 15
Faxa: 943 71 82 50
e.maila: batuak@batuak.com
OÑATI

Hizkuntzak denontzat

haur, gazte eta helduentzat

matrikula epea
z a b a l i k

ingelesa
frantsesa
alemana
portugesa
italiera

Deskontu bereziak haur eta helduentzat.

Informa zaitez!
Tel.: 943 716000

CIM HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Olakua 14 - 20560 Oñati
Tel.: 943 71 60 00 Faxa: 943 71 80 51
e-posta: oinati@cim-idiomas.com
www.cim-idiomas.com

bai & by land



ENPRESA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA

FACULTAD DE
CIENCIAS
EMPRESARIALES

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA - ETEO

ENPRESA MUNDUARI ZUZENDUA
IKASKETAK ETA LANA UZTARTZEKO AUKERA
PROIEKTUAK ETA PRAKTIKAK ENPRESATAN

Unibertsitate - Ikasketak

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
- Enpresa Zientziatan Diplomatura (Irungo Campusa)
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa
- Zuzendari Idazkaritza

Graduaduondoko Tituluak

- MBA - Enpresen Zuzendaritzako Masterra
- MFIN - Finantza Zuzendaritzan Masterra
- MWEB - Web Aplikazioetako Eredugintza eta Garapen Masterra
- MSI - Enpresa Informaziorako Sistematan Masterra
- MBB - Bankan eta Burtsan Masterra
- MDM - Marketing Zuzendaritzan Masterra
- MSCM - Garraioa eta Hornikuntza Katearen Kudeaketan Masterra
- Doktoradutza

Informazioa:

Tel.: 943 71 80 09
Faxa: 943 71 81 62
E-maila: informacion@eteo.mondragon.edu
http://www.eteo.mondragon.edu

UMEAK

Txikienendako ere makina bat aukera jaietan

Ikuskizunak eta jolasa izango dira ardatzak aurten

JON BEREZIBAR

Jaietan herriko txikienek ere makina bat aukera izango dute jaiak disfrutatzeko. Danborradaz gainera, haurrak beste hainbat ekitalditan izango dira protagonista.

Haurrek ere merezitako tartea izango dute aurtengo San Migeletan, aspertzeko aitzakiarik ez dute izango behintzat gaztetxoenek; izan ere, aurreko urteetan baino aukera zabalagoa egongo da aurtengo jaietan.

Ikuskizunak eta jolasa izango dira aurtengo haurren egitarauko ardatzak. Ikuskizunetan aipagarrienak Goloka taldearen antzerkia eta *Top* karaokea izango dira.

Baina txikienek ere badituzte betebeharrak jaietan, eta aurten ere ez da faltako urteroko haurren danborrada. Horiez guztiez gain, haur parkea izango da Etxaluze osteko plazan eta jai guztietan zehar barrakak martxan egongo dira, aurten 1,20 eurotan.

IKUSI ETA ABESTU

Ahalegin berezia egin da aurten haur nahiz gaztetxoenek ere San Migelak bizi ditzaten. Helburu horrekin, ohiko ekitaldiez gain, hainbat saio antolatu dira txikienentzat bereziki. Hasteko, Goloka antzerki taldeak kale antzerki berezia eskainiko du Etxaluze osteko plazan urriaren 30ean. Bilboko talde honek *Bakarrik eta Buztangabe gasolindegian* lana aurkeztuko du, protagonista bitxi batzuk dituen antzezlan ezin bitxiagoa. Antzerkia ikusteaz gain, taula gainera igotzeko aukera ere izango dute herriko txikiek, abeslari moduan nola moldatzen diren erakutsi beharko baitute. *Top* diskoteka eta karaokekoak arduratuko dira haurrak abestarazteaz. Urriaren 3an izango dute jaialdi hori Foru plazan. Arratsaldeko seietan izango da hitzordua Oñatiko kantari ausartenentzat.

DANBORRADA, OHITURA

Orain arte kontatutakoak dira aurtengo jai egitarauko berrikuntzak, baina betiko ekitaldiak ere izango ditugu. Esaterako, garrantzitsua, haurren danborrada izango da. Zaldun, gastadore, sukaldari eta, nola ez, danbor jolez beteko dira Oñatiko kaleak, guztira 150 bat. Horiez gain, nahi duten haur guztiek ere desfilatu ahal izango dute, baldintza bakarrarekin: mozorrotuta joatea. Ondoren, guztiei gozokiak banatuko zaizkie. Antolatzaileek haur guztiak animatzen dituzte parte har dezaten.

PARKEA ETA BARRAKAK

Haur parkea irailaren 29an eta 30ean egongo da zabalik. Etxaluze osteko plaza izango da lekua, eta eguerdiko 12etatik ordu biak arte irekiko dute goizez eta arratsaldez, 16etatik 20ak arte. 30ean, ostera, arratsaldez itxita egongo da. Hori eguraldi ona eginez gero, bestela Zubikoa kiroldegian prestatuko dute jolasparkea. Bukatzeko, eta ohitura den moduan, barrakak egongo dira jaietan herriko plazako aparkalekuan, beti bezala.

Aipatzekoa da ere urriaren lehena egun berezia izango dela, ohiko 1,20 euroak beharrean erdia balioko baitute karrusel, auto-txoke eta gainerakoek, 60 zentimo. Guztira bost atrakzio jarriko dituzte aurten, tiro kaseta eta gainerakoez aparte.

‘Bakarrik’ eta bere lagunak

Gololа taldearen antzerkia izango da egitarauko izarretako bat. Bilboko haur antzerki talde honek *Bakarrik eta Buztangabe gasolindegian* lana aurkeztuko du Oñatin, hilaren 30ean, Etxaluze osteko plazan, arratsaldeko seietan. Txotxongilo erraldoiek antzeztutako saioa izango da, eta *Bakarrik* neskatilaren eta familiaren komeriak azaltzen dira bertan. Oporretan daudela, gurasoek gasolindegian ahazten dute *Bakarrik* gaixoa eta bertan *Patxi* ezagutuko dute, eta elkarrekin hamaika abentura biziko dituzte.

GOLOKA

Goloka taldeak antzerkia eskainiko du Etxaluze osteko plazan.

ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

Viki
oinetakoak
Kale barria 30 Tel.: 943 78 05 41

Gizon, emakume eta haurrentzako oinetakoak

Betunak, aterkiak, plantillak, poltsak, gerrikoak...

Ondo pasau jaiak!

SAN MIGELAK 2004
Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

MUSIKA

Hego Amerikako doinuak jaun eta jabe gaueko erromerietan

Ohiko euskal erromeriak faltako ez diren arren, Hego Amerikako doinuek protagonismo berezia hartuko dute; salsa eta tango erritmoak izango ditugu, besteak beste, musikari argentinar eta venezuelarren eskutik.

Edozein herritako jaietan ezin da erromeriarik falta eta Oñatin era guztietako erromeriak izango ditugu, euskaldunak zein hegoamerikar erritmodunak. Ohiko trikiti eta euskal erromerietako doinuez gain, tango eta salsa erritmoak jarriko dizkigute aurten plazan izango ditugun musika taldeek.

Venezuelatik Huracan musika zurrunbiloa etorriko zaigu, San Migel egunean, irailak 29. Taldeak eskaintzen duen ikuskizunaren oinarria da *cumaco* danbor venezuelarra; salsa erritmoak izango ditugu Huracan taldearen eskutik, beti ere, musika mota honen jatorri afrokubatarrak kontuan hartuz. Karibeko musikaren erakustaldia ere izango da Huracanen kontzertua.

Amerika aldetik etorriko zaigu Chamuyo hirukoa ere, baina, beste musika estilo batekin; tangoa eta milongak ekarriko dizkigute hauek, irailaren 30ean. Atlantikoaz bestaldeko musika dakarkiguten arren, aspalditik bizi dira Euskal Herrian musikari hauek. Jose Luis Lekunberri aretxabaletarrak, Fernando Coletti eta Pancho Cruz argentinarrek osatzen dute taldea. Eguenekoa ez da musika emanaldi soila izango; izan ere, musikariez gain, Donostiako dantza eskolako bi bikotek, dantza ikuskizuna ere eskainiko dute. Dantzak ikusi eta argentinar doinuak entzuteaz gain, animatzen direnek dantza egiteko aukera ere izango dute, taula gainekoen antzera edota norberak bere abilezia erakutsiz. Ondo pasatzea da eta jaietako helburua.

Chamuyo taldeak tangoak eta milongak ekarriko dizkigu, eguenean.

GERTUAGOKO ERRITMOAK

Musika egitaraua zabala da eta ez ditugu latindar doinuak bakarrik izango, ezta gutxiagorik ere; panderoaren bizitasuna danbor venezuelarra baino nahiago dutenek ere izango dute euren neurriko erromeriarik. Horrela, proposamen tradizionalagoen zaleek ohiko erromeriak izango dituzte jaietan, trikiti eta dantzarako doinuekin. Joselu Anaien dantzaldia izango da horietako bat. Bost anaia hauek zazpi diskoko dituzte dagoeneko kalean; aspalditik dabiltza Euskal Herri osoko jaietan eta ez dira betiko arin arin eta fandangoak faltako. Urriaren 4an, Errosarixo Bixamon egunean, izango da hau. Baina eskaintza ez da hauekin amaitzen eta aukera zabala da, inondik ere. Euskal doinuekin jarraituz, Trikidantz taldeak irailaren 28ko gaua girotuko du; hilaren 30ean, berriz, Nafarroako jotak entzuteko aukera izango da Foru enparantzan Rivera canta seikotearen eskutik.Urriaren 3an, domeka, Oropendola taldearen kontzertua izango dugu; azkenik, ezin dugu aipatu barik laga Incansables txaranga ezagunaren kalejira; Errosarixo Bixamon egunean izango da hori, egun guztian zehar.

Oñatiko Bandak ere ohiko emanaldiak egingo ditu. Domekan, hilak 26, hiru saio egingo ditu. Goizean, kalejira; eguerdian, pieza ezagunak joko dituzte plazan eta iluntzean dantza doinuen txanda izango da. San Migel egunean ere kalejira egingo du bandak eta ondoren, kontzertua eskainiko du. Azkenik, Errosarixo Egunean ere bandaren kalejira eta kontzertua izango dugu.

Venezuelako haize epela, Huracan taldearekin

Aukera interesgarria da Huracan talde venezuelarrak proposatzen duena. *Cumaco* danbor tradizionalean oinarritzen da ikuskizuna, musika latindarraren sustrai afrokubatarretara eramaten gaituena.
Salsa erritmoak izango dira emanaldiaren ardatza, baina, hortik, jota, bolero eta abesti melodikoetara ere abiatzen dira Huracanekoak.
Danbor eta gainontzeko musika tresnak, gainera, musikariek euren eskuz egindakoak dira eta helburu bezala, musika venezuelarraren nondik norakoak erakustea izango da. Ikusi eta ikasteko saioa, hortaz.



MUSIKA

Heavy, rock eta trikiti doinuak izango ditugu, gazteei zuzenduta

Gazteendako musikaren gunea txosna gunea izango da, batez ere; hantxe, rock kontzertuak izango dira nagusi. Aipatzekoak dira, besteak beste, 'Di-Bertsioak' kontzertua eta Bond Scott Band taldearen emanaldia.

Gazteentzako musikak ere izango du bere lekua San Migel jaietan. Kontzertu ugari izango dira eta txosna gunea izango da kontzertuen gune nagusia. Eskaintza zabala den arren, rock taldeak eta herriko bertako taldeak izango dira nagusi.

Alaitz eta Maider bikotearekin izango dute gazteek jaietako lehen hitzordua. Urriaren 2an, zapatua, ekarriko dituzte herriko plazara hain ezagun egin dituzten trikiti doinuak. Oiartzungo neska hauek talde osoa ekarriko eurekin eta abestirik ezagunenekin batera, azkeneko hiru diskoen errepasoa ere egingo dute. Trikiti doinuak beraz, Herri Egunari behar bezalako amaiera emateko.

GOIENKARIA

Oñatiko rock taldeek ohiko bertsio kontzertua egingo dute, urriaren 4an, astelehena.

'DI-BERTSIOAK' KONTZERTUA

Trikiti doinuak, baina, salbuespena izango dira kontzertuei dagokienez, rock bandak izango dira eta jaun eta jabe hurrengo egunetan. Oñatiko musika taldeetako kideek, esaterako, oso kontzertu berezia eskainiko dute Errosarixo Bixamon Egunean, urriak 4, txosna gunean: *Di-Bertsioak* izena jarri dio Txosna Batzordeak kontzertu horri. Izenak berak dioen moduan, abesti ezagunen bertsioak egingo dituzte herriko musikariek. Kontzertu bitxi hori antolatzen duten hirugarren urtea da aurtengoa, eta dagoeneko ohitura bihurtzen doa txosnetan. Guztira, herriko 20 bat musikarik parte hartu izan du emanaldi horretan. Denak dira herriko taldeetako musikariak, baina ohiko bandetan jo barik, elkarrekin nahastu eta talde gogokoenen bertsio gustukoenak jotzen dituzte. Ez digute esan zein abesti joko dituzten; horretarako, badakizue, urriaren 4an, gauean, txosna gunera jo beharko duzue.

Bertsioen kontzertu horretaz gain, herriko taldeek euren musika kontzertuak ere egin izan dituzte txosna gunean. Euren asmoa zen urriaren 1ean egitea kontzertu hori. Azkenean, baina, bertan behera laga dute; euren esanetan, horren arrazoia da Udalak ez diela diru laguntzarik eman.

Baina, aurtengo izarra Bon Scott Band taldea izango da, eta hauek ere asko dakite birmoldaketen gainean. Orain dela zazpi urte elkartu zen Bon Scott Band laukotea eta ordutik kontzertu ugari eman dituzte Estatu osoan. Taldearen izena bera oso ezaguna ez den arren, ziur gehienok entzun ditugula talde honen abestiak. Izan ere, AC/DC talde mitikoaren bertsioak egiten dituzte. Aipagarriak dira *T.N.T*, *Hard as a Rock* edota *If you want blood* abestien moldaketak; dena dela, moldaketak baino, kopia zehatzak lortzen dituztela diote musikaz dakitenek. Urriaren 3an, domeka, izango da australiarren jarraitzaile sutsu hauek ikusteko aukera. Zuzeneko kontzertuetan, gainera, dena ematen dute kataluniar hauek.

AC/DC talde mitikoaren omenez

AC/DC talde mitikoaren zaleek ez dute kexarik izango aurtengo jaietan; izan ere, Bon Scott Band laukotea arduratuko da talde horren musika Oñatira ekartzeaz. Jordi Vazquez (ahotsa), José Castelló *Tite* (gitarra) musikariek sortu zuten taldea 1997an eta gero elkartu zitzaizkien Dani Ortin (bateria), Manola Hita (baxua) eta Juan Orea (gitarra erritmikoa), guztiak kataluniarrak. 2002 urtean Motorhead taldearekin batera egin zuten Estatutik zehar bira eta Bergaran ere jo zuten. Zuzeneko kontzertuetan ikusgarriak direla diote.

LANA

MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

AENOR ER Empresa Registrada ER-0585/2000

CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM
UNE - EN ISO - 9001:2000

Jai Zoriontsuak!

LANA, S. Coop. • Bº Santxolopetegi, 24 • Apartado 25
20560 OÑATI (Gipuzkoa) • http://www.lana.coop • e-mail: info@lana.coop
Tels: 943 78 07 00 • Fax: 943 78 32 22

SAN MIGELAK 2004
Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

ALKORA

Afrikako eta Kubako dantza eta perkusioa herriko kaleetan zehar

Izatez nafarrak diren arren, Afrika eta Hegoamerikako oihartzuna duten doinuak ekarriko ditu Alkora taldeak

JON BEREZIBAR

Senegal eta Kongo aldetik datozen danborren hotsekin, irailaren 30ean egingo du kalejira berezia Alkora taldeak. Ikuskizun bizia eta koloretsua izango da nafar hauena.

Egitarauko proposamenik ezberdinenetakoa aurkezten du Alkora talde nafarrak, bai ikuskizunaren aldetik eta baita taldea osatzen duten partaideen aldetik ere.

Dantza eta musika afrikarrak uztartzen ditu taldeak bere oinarrian, baina ikuskizunean munduko beste hamaika lekutako influentziak batzen ditu, Euskal Herritik hasi eta Hegoamerikan amaitu arte, nola ez, Afrikako lautadetan derrigorrezko geldialditxoa egin eta gero. Irailaren 30ean aurkeztuko dute Oñatiko kaleetan, munduko musiketatik bidaia egingo duen ikuskizun hau.

PERKUSIOA ETA DANTZA

Gure artean horren ezagunak ditugun kalejirak berrasmatzen ditu Alkorak, sormen handiarekin gainera. Taldea 20 bat lagunek osatzen dute, 7 dantzarik eta 11 perkusio jotzailek, eta kalez kale egingo dute erakustaldia, noizbehinka geldialditxoak eginez. Bi ordu iraungo du ikuskizunak gutxi gorabehera. Taldea izatez nafarra bada ere, kideak jatorri askotakoak dira, eta horrek ematen dio bizitasuna eta aniztasuna eskaintzen duten ikuskizunari Senegal, Kuba, Ginea, Kongo, Ekuador eta Errioxako lagunekin. Horrelako nahasketak nahitaez dakar musika fusioa eta oinarrian erritmo afrokubatarrak egon arren edozein konbinazio egiteko gauza dira Alkorakoak.

ARTXIBOA

Nafarroatik etorrita, erritmo eta perkusio afrikarrak lagunduta zeharkatuko ditu herriko kaleak Alkora taldeak.

KULTUR TALDEA

Dantzaz haratago nafar hauek kolektibo kultur eragilea ere sortzen dute. Taldeko kideen jatorri aniztasunak dakarren aberastasunaz jabetuta ez dira ikuskizunak ematera bakarrik mugatzen. Taldea orain dela bost urte sortu zuten Carlos Urroz eta Ana Belen Garcia nafarrek eta ibilbide laburra egin duten arren, euren inguruan oso kontuan hartzekoa den kultur taldea sortu dute. Honela, Oñatin ikusi ahal izango dugun ikuskizunaz aparte, dantza eta perkusio ikastaroak antolatzen dituzte, eta benetan entzutetsuak dira urtero egiten dituzten jardunaldi solidarioak.

Hitzordua, beraz, irailaren 30ean izango da, arratsaldeko zortzietan.

Taldeak egoitza Iruñean duen arren hemengo zein Afrika eta Hegoameriketako kideek osatzen dute

Fusioa da Alkoraren ikurra, eta erritmo afrikarretatik abiatuta munduko musiken katalogoa eskaintzea du helburu



ondo ibili
san migeletan!

Aker
Antton
Ausejo
Bikoitz
Boga
Etxe-Aundi
Galicia
Goiena
Guria
Izarraitz
Olakua
Ongi
Soraluze
Txopekua
Txurruka
Umerez
Urtiagain
Zotz

SAN MIGELAK 2004
Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

DANBORRADA

Danborradaren historia ezagutu dugu Makalena elkarteari esker

Jaietako lehen ekitaldi nagusia izaten dugu danborrada. 1960an egin zen lehen aldiz; ordutik hona, aldaketa handiak izan ditu, eta Makalena elkarteko kideek urte hauetako historia ezagutarazi digute. / AINTZANE IRIZAR

AINTZANE IRIZAR

1960. urtean egin zuten lehen aldiz danborrada, San Migel jaietan; ordutik gaur egun arteko historia azaldu zuten Makalena elkartekoek berbaldi baten, aurreko astean.

Makalena elkarteak 25. urteurrena ospatu du aurten. Urteurren hori dela eta, hainbat ekitaldi egin dituzte urtean zehar. Azkena, aurreko astean; danborradaren historiaren gaineko ikusentzunezko saioa egin zuten. Jose Luis Madinagoitia, Pedro Mari Igartua eta Argiloain Perosterenak egin zuten berbaldia.

ARTXIBOA

Erregina eta ohorezko damak karroza gainean joaten ziren.

LEHENENGOA, 1960. URTEAN

Inguruko herriekin alderatuta, berandu hasi ziren Oñatin danborrada antolatzen. Herriko lagun koadrila batek antolatu zuen lehenengoa, 1960. urtean. Danborrada oso klasikoa zen, erregina, dama, kantinera, danbor jotzaile, zaldi, karroza eta guzti. Arrakasta handia izan zuen lehenengo danborrada hark, baina, ez zuen jarraipenik izan. 1966. urtera arte ez zen berriro danborradarik antolatu.

OÑATZ ANTOLATZAILE

Urte haietan sortu zen Oñatz taldea. Oso talde dinamikoa zen, eta berak hartu zuen danborrada berriro antolatzen hasteko ardura. Beste herrietako danborradak ikusten ibili ziren, eta antzerakoa egin zuten.

1967. urtean ere antolatu zuen danborrada Oñatz taldeak. Urte hartan berrikuntza bat egin zuten; erregina, damak eta kantinerak aukeratzeko, berbena bat antolatu zuten, frontoian; horrela, euren helburua zen ekitaldi horrekin dirua ateratzea, danborradaren gastuei aurre egiteko.

Hurrengo bi urteetan, 1968an eta 1969an, ez zen danborradarik egin; egoera politikoa nahasi samarra zen urte haietan, eta antolatzaileek boikot egin zieten jaiei. 1970. urtean, baina, danborrada egitea erabaki zuten. Aurreko urteetako antzerako ekitaldia izan zen.

ALDAKETA UGARI 1971. URTEAN

1971. urtean aldaketa ugari izan zituen danborradak. Batetik, erregina eta damak kentzea erabaki zuten, emakumeen mugimendua indarra hartzen zihoan eta. Bestetik, karrozak egin zituzten lehenengo aldiz. Hirugarren aldaketa izan zen danborra jotzen jende helduagoa atera zela. Oñatz taldeko kideak, berriz, gastadore eta sukaldari irteten ziren.

1973. urtean, berriz, kantinerak ere desagertu egin ziren; neska-mutilez osatutako dantzari taldeek hartu zuten kantineren tokia.

Ordutik, antzera jarraitu du danborradak, gaur egunera arte. Hala ere, orain dela urte batzuk karrozek hartu zuten indarra galdu egin dute azkeneko urteetan; antolatzaileek eurek prestatu izan dute karrozaren bat.

1996tik eta 1998ra bitartean indar berezia hartu zuen danborradak. Besteak beste, herriko hainbat talde irten ziren karrozekin, erretiratuen elkarteko talde bat ere danborradan parte hartzen hasi zen, baita Saltoka taldeko neska-mutilak ere. Urte oparoak izan ziren haiek danborradarendako, Argiloain Perosterena antolatzaileetako

TRAJEAK UDALAK EROSITA

Hasierako urtetan errentan hartzen zituzten trajeak eta materiala, Donostiako Casa Angelitan. 1973. urtean, baina, Udalak bere gain hartu zuen danbor eta barril jotzaile guztien trajeak erosteko ardura. Gaur egun erabiltzen dituzten arropak ordukoak dira. Hurrengo urtean, 1974an, danborrak ere erosi zituen Udalak. Traje bakarra dago, zerbitzariarena, hain zuzen ere, oraindik ere, urtero, erretan hartzen dutena.

batek berbaldian adierazi zuen bezala.

Jose Mari Agirrebengoa zenaren gaineko berba batzuk egiteko aprobetxatu nahi izan zuen Argiloainek aurreko asteko berbaldia. Udaleko kultura teknikaria zen Agirrebengoa; 1995. urtean hil zen. Argiloainek gogoratu nahi izan zuen Jose Marik urtetan egindako lana.

BERRINDARTU BEHARRA

Azkeneko urteotan, baina, geroago eta arazo gehiago dituzte antolatzaileek.

1960an, herriko koadrila batek antolatu zuen danborrada lehen aldiz

1982AN, UMEEN DANBORRADA.

Orain dela 22 urte sortu zuten umeen danborrada. Nagusienaren oso antzerakoa da. Hasieran hainbat karroza irteten ziren; baita ume taldeak mozorrotu eta dantzan ere. Ama asko egon ziren garai hartan oso inplikatuta, eta koreografiak eta guzti antolatzen zituzten. Gaur egun, umeen danborrada ere indarra galduz doa poliki-poliki. Ez da karrozarik egoten eta mozorrotuta joaten diren umeak ere geroago eta gutxiago dira.

Herritarren parte hartzeak behera egin duela azaldu zuen Argiloain Perosterenak. Gainera, antolatzaileek urte asko daramate lanean, eta azaldu digutenez, jende berriaren premia dago.

Deialdia egin zuten, hortaz, hurrengo urteari begira, herritarrek danborrada antolatzen parte hartu dezaten.

MUSIKA BANDAREN PAPERA

Hasiera-hasieratik parte hartu izan du Oñatiko Musika Bandak danborradan. Ezinbesteko elementua izan da, gainera. 1970 eta 1978 urteen artean, baina, banda desagertu egin zenez, Legazpiko eta Arrasateko banda etortzen ziren. 1979. urtean birsortu zuten musika banda Oñatin.

Oñatz taldeak hartu zuen danborradaren ardura, 1966. urtetik aurrera

Hasieran, Donostiako danborradako martxak jotzen zituzten, baina, poliki-poliki, herriko piezak sartu nahi izan zituzten.

EMAKUMEAK ERE SARTU ZIREN

Nagusien danborradan, 1983. urtean, emakumeen konpainia sortu zen. 24 emakumez osatutako talde bat zen, eta urte askotan jardun zuten. Hasierako konpainia hartan, Mari Paz Goenaga izan zen danbor jotzaileen burua; gero, neska gazteagoak sartu ziren taldean, eta Eva Elortza izan zen taldeko buru, 1995etik 1998ra. 2002. urtera arte, Jaione San Migelek jardun zuen lan horretan, eta iaz, berriz, Ane Beitiak.

Horrela, Antonino Ibarrondoren hainbat pieza sartzen joan ziren; hala nola, Desde *Udana a Zubillaga*, *Mirentxu* eta *San Migel*. 1995ean, berriz, *Despierta Juventud* pieza ere gehitu zioten danborradako martxa sortari.

Pedro Mari Igartuak azaldu zuenez, bandako kideek laster pieza berri bat gehitzeko asmoa dute.

koma,
www.komalingua.com

koma-k familia eta lagun artean
jai zoriontsuak igaro ditzazuela opa dizue!

Hizkuntz-Zerbitzuak
Irakaskuntza
Itzulpenak
Interpretariak

Gazteak eta helduak
Enpresa trebakuntza
Neurrira eginiko trebakuntza
Ikastaro trinkoak
Azterketa prestakuntza
Talde murriztuak (gehienez 6)
Jatorrizko irakasleak

Olakua, 7 behea
20560 Oñati
Tel. 943 71 82 08

Andia Mendiaren Kalea, 2 - 26D bulegoa
01010 Gasteiz
Tel. 945 17 00 57

SAN MIGELAK 2004
Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

GIZA ESTATUAK

Harrizkoak diruditen giza estatuen erakustaldia plazan

Pertsonaia ezagunak gogora ekarriz, orduak eta orduak egin ditzakete aktoreek atril baten gainean geldi

JON BEREZIBAR

Irailaren 29an museo berezia egongo da ikusgai Foruen plazan: giza estatuena. Orduak eta orduak geldirik, pertsonaia ezagunen estatua bizidunak sortzen dituzte aktore hauek.

Azkenaldian, kale antzerkigintzan eta arte urbanoa deritzon diziplinan, gero eta oihartzun handiagoa hartzen ari dira giza estatuak. Hiri handietan kaleetako paisaiaren zati bilakatu dira dagoeneko, baina Oñatin nobedade bat izango da. Denontzat ezagunak diren figurak haragitu egiten dituzte giza estatuek. Haragitze hitza ez da agian egokiena, giharrezkoak baino gehiago, harrizkoak dirudite eta. Pertsonaiei dagokienez, edonolakoak izan daitezke, errealak edota fikziozkoak, baina baldintza bakarrarekin, denok ezagutu ahal izatea. Horretaz, hein handi baten, karakterizazioa arduratzen da. Estatua hauen xarma batez ere imitazio horretan baitago, pertsonaia bat gogora ekartzean eta denok ezagutu ahal izatean. Baldintza honetan dago ilusio jokoaren gakoa, eta horretan datza azkeneko boladan hiri nagusietan izan duten arrakasta. Gaur egun mundu osoko antzerki topaketetan aurki daitezke giza estatuak, garrantzi handia hartzen hasi baitira arte eszenikoen eremu zabalean eta batez ere kale antzerkiari dagokionez.

ESTATISMOAREN ERREGEAK

Giltzarria den hitzik badago giza estatuen mundu *zurrunean,* estatismoa litzateke. Aktoreek orduak eta orduak eman ditzakete milimetro bat mugitu eta txintik esan gabe. Kontzentrazio hautsiezin hau eteteko modu bakarra dago: txanpon bat botatzea. Hori eginda estatuak bizia hartzen dute eta ikuslea berehala murgiltzen da harrizko aktore hauen jokoan. Teknika handia behar da kontzentrazioaz gain, eta gelditasun ilusioa sortu beharra dago nola edo hala. Estatuak izan arren ezinbestekoa dute ikusleekin elkarreragintasuna; horregatik zaizkie hain beharrekoak txanponak. Jokoak, beraz, arau oso errazak ditu eta batek baino gehiagok aurkakoa uste arren, ez dira harrizkoak. Honetara dedikatzen direnak aktore profesionalak dira, eta asko estatuez soilik bizi dira.

GOIENKARIA

Foru plazan izango da estatua bizidun hauen erakustaldia.

Aktoreek orduak egin ditzakete geldi-geldi eta txintik ere esan barik

Ezagunak diren pertsonaiak imitatzen dituzte aktoreek

Estatuak mugiarazteko modu bakarra dago: txanpon bat botata, besterik ez

BARTZELONA, JAIOLEKUA

Estatuan, Bartzelonako Ramblak aski ezagunak dira artista hauen topagune direlako eta bertatik hedatu zen beste toki batzuetara. Hain ezagunak izanik Katalunia aldean, instituzio bilakatu dira eta dagoeneko ezinbesteko bihurtu dira edozein antzerki topaketatan. Oñatin irailaren 29an atonduko dute estatua bizidun museo bitxi hau, herriko plazan. Hona ere Rambletan hain ezagunak egin diren artistak etorriko dira bisitan arratsaldeko 7etatik aurrera. *Quixote zalduna, Elvis Presley berpiztua* edota *Rapero izoztua* etorriko dira Foruen plazara, besteak beste.

Marcelo Walter Borlle
Odontologoa, Koleg. 390

ODONTOLOGIA OROKORRA
PROTESIA
ENDODONTZIA
INPLANTEAK
ASEGURUAK

Bidebarrieta 7 behea
20560 OÑATI
Gipuzkoa
Tel.: 943 71 88 63

R.P.S. tramitatzear

Oñati
GARAJEA
Goribar auzoa 9 OÑATI
Tel.: 943 78 13 50
e-posta:
garageonati@euskalnet.net

Shune
Apainketa
Etxe giroan
Garibai, 8 • Tel: 943 77 11 48 • 20500 ARRASATE

SAN MIGELAK 2004 GOITB-N

Oñatin bertan egotea bezala

Urriaren 5ean, martitzena
20:30ean, saio berezia

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!



ARREGI
Nekazalturismoa

2 egongela
eta jangela

6 logela,
denak bainuarekin

Paraje ederrean kokatua,
leku egoki eta lasaia,
atsedenerako
behar duzun guztiarekin

Garagaltza auzoa 21 • Tel. 943 78 36 57 / 943 78 08 24

Ondo pasatu
San Migelak!

TXOSNAK

Bi txosna bakarrik jarriko dituzte aurten

Presoen Lagunena eta rock taldeena izango dira

AINTZANE IRIZAR

Aurten herriko bi taldek bakarrik osatzen dute Txosna batzordea. Hala ere, egitarau zabala antolatu dute herriko jaietarako.

Txosna batzordea bi taldek bakarrik osatzen dute aurten: Errekaldeko musika lokaletan jarduten duten herriko rock taldeek eta Presoen Lagunek, hain zuzen ere. Hala ere, Laixan euskara elkarteak eta Oñatiko Gazte Taldeak ere parte hartu dute hainbat ekitaldi antolatzen.

EGITARAU POLITA

Egitarau zabala, era guztietako ekitaldiekin, antolatu dute txosna-gunerako.

Hilaren 28an, jaiei hasiera emateko, txantxikuaren jaitsiera izango dugu, 20:00etan. Hurrengo egunean, 19:00etan, magia ikuskizuna izango dute umeek. Eguenerako, berriz, hilak 30, zinema emanaldia antolatu dute; herriko egileen film laburrak ikusteko aukera izango dugu txosna-gunean, 23:00etan. Egubakoitz arratsaldean, berriz, 18:00etan herriko koadrilen arteko herri kirol txapelketa jokatuko dute.

ARTXIBOA

Umeendako, gazteendako nahiz nagusiendako ekitaldiak antolatu ditu Txosna batzordeak.

Herri Egunean, urriak 2, zapatua, preso eta errefuxiatuei omenaldia egingo diete. 20:00etan izango da hori, eta horren ondoren manifestazioa egingo dute. Gauean, berriz, 22:30ean, erromeria izango dugu. Iragarrita Luhartz taldea zegoen arren, azken orduan aldaketa izan da, eta beste talde bat etorriko da.

Domekan, hilak 3, Bon Scott Band taldearen eta gonbidatuko duten beste musika talde baten kontzertua izango dugu. Errosarixo Bixamonian, berriz, hilak 4, *Di-Bertsioak* kontzertua eskainiko dute herriko musika taldeek; abesti ezagunen bertsioak joko dituzte kontzertu berezi horretan.

UDALAREKIN GORABEHERAK

Txosna batzordeko kideek azaldu dutenez, ez daude ados Udalak eman dien laguntzarekin. Zazpi eguneko egitaraua antolatzeko dirulaguntza txikia eman diela adierazi dute. Aurten ez dute Gaztedia batzordeko laguntzarik jaso. Hain zuzen ere, 4.000 euro eman dizkie Udalak.

Paella erraldoia jateko aukera Laixan elkartearen eskutik

Aurten ez du txosnarik jarriko Laixan euskara elkarteak, baina, Txosna batzordearekin elkarlanean, herri bazkaria antolatuko dute. Horrela, txosna-guneari beste bultzada bat eman nahi izan diote. Paella erraldoia egingo du Zaragozako enpresa batek, eta horixe izango da menua. Txartelak salgai daude bost euroren truke honako tokietan: Laixanen, txosnetan eta Luis, Guria, Pako eta Arrano tabernetan.

MEKANIZATUETARAKO
ZERBITZU OSOA

MEKALKI
S. Coop.

Ondo ibili
San Migeletan !!

Zubillaga industrialdea 13
Tel.: 943 78 19 11
Faxa: 943 78 29 90
e.maila: mekalki@mekalki.es
http://www.mekalki.es
OÑATI

SAN MIGELAK 2004
Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

ARTZAIN TXAKURREN TXAPELKETA

Txakurrik onenak lehiatuko dira domekan, Santa Lutziako zelaian

Besteak beste, iazko txapelduna, 'Bizkor', eta aurreko bi urteetakoa, 'Riki', izango ditugu domekan lehian

AINTZANE IRIZAR

Domekan, hilak 26, jokatuko dute Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa, Santa Lutzian, 11:00etan. Hamaika artzainek eta txakurrek parte hartuko dute hantxe.

Aurten Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketaren 45. aldia jokatuko dute. Hantxe izango dira Euskal Herriko, Kataluniako eta Bearneko artzain txakurrik onenak, nazioarteko txapelaren bila.

Hamaika txakurrek parte hartuko dute txapelketan, beste hainbeste artzainen esanetara.

TXAPELDUNAK GEUREAN

Aurten txapelketak irabazi dituzten txakurrak izango dira gehienak. Tartean, iazko txapeldun *Bizkor* izango dugu, Jose Mari Jauregi artzain arabarraren esanetara. Aurten Arabako txapelketa irabazi du. Aipatzekoa da, bestalde, hiru aldiz Oñatin txapela irabazi duen Enrike Mendigurenen parte hartzea ere; 1998an *Argi*-rekin, *Noizarte*-rekin 2001ean eta *Riki*-rekin 2002an. Aurten Bizkaiko eta Euskal Herriko txapelketak irabazi dituzte Mendigurenek eta *Riki*-k.

Gainerako parte hartzaileak honakoak dira: Arabako txapelketan bigarren geratu den Jon Zuazo, *Sorgin* txakurrarekin; Andres Atxa eibartarra eta *Txato*, Gipuzkoako txapeldunak; Nafarroako txapeldun Antonio Alustiza eta *Argi*; Kepa Ardantza eta *Txiki* Euskal Herriko txapeldunordea; Hilario Novillo eta *Tif*, Kataluniako txapeldunak; Armand Flaujat eta *Una*, Kataluniako txapeldunordeak; Iparraldeko txapeldun Mihura eta *Argi*; txapeldunordeak Irikin eta *Izar* eta Bearnen hirugarren sailkatu ziren Gerard Lalande eta *Oursonne* txakurra.

HIRU ARIKETA

Urtero bezala, hiru ariketa egin beharko dituzte artzain txakurrek. Lehenengo ariketa egiteko hiru minutu izango dituzte. Banderatxoz jarrita dagoen bide batetik joan beharko du txakurrak, ardiak dauden kontrara; kontuan hartu behar da honek baduela bere zailtasuna, txakurrak zuzenean ardiengana joateko joera du eta. Gainera, epaimahaiak agindutako bi lekutan txakurra gelditu egin beharko da. Bide guztia egindakoan, ardiengana poliki-poliki sartu beharko du txakurrak.

JOSE MARI BENGOA

Hiru ariketa egin beharko ditu txakur bakoitzak.

Bigarren ariketa egiteko sei minutu izango dituzte txakurrak eta artzainak. Artaldea dagoen lekutik hartu eta zelai barrenean dagoen makila baten inguruan batu beharko du. Ondoren, hesi tarte batetik pasatu beharko du txakurrak artaldea.

Hirugarren ariketa, azkenik, zazpi minuturen barruan egin beharko dute. Artaldea hartu eta erdian dagoen eskortan sartu behar ditu ardiak. Horren ondoren, ardi guztiak eskortatik atera beharko ditu.

Herriko elkarteetako kideak ibiltzen dira txapelketa antolatzen

ANTOLATZAILEAK EPAILE

Euskal Herriko Artzain Txakurren Txapelketa Antolatzaileen Elkartearen barruan dago Oñatiko Nazioarteko txapelketa antolatzen duen taldea ere.

Jai zoriontsuak izan

PASSIONATA

Jose Mari Bengoa / ANTOLATZAILEA

“Euskal artzain txakurra bultzatu nahi dugu”

AINTZANE IRIZAR

Urte asko darama Jose Mari Bengoak Artzain Txakurren Txapelketa antolatzen. Kasualitatez hasi zen lan horretan, herriko elkarteetako hainbat kide bezala, baina, bera urtetik urtera lanean jarraitu du.



Noiz hasi zinen antolatzaile lanetan?

Orain dela hemezortzi urte hasi nintzen. Gure elkarteko zuzendaritzan nengoen garaian, eta txapelketan antolatzaile lanetan jardutea egokitu zitzaidan.

Orduan sortu zitzaizun zaletasuna?

Ez, beti gustatu izan zait mundu hau; baserritarra naiz eta beti izan ditugu ardiak.

Dena dela, antolatzaile nabilenetik, geroago eta gehiago zaletzen joan naiz. Gainera, oso zaila da antolatzaile lana lagatzea; askotan izan dut gogoa, baina, atzetik ez dator inor. Dena dela, oso gustura ibiltzen naiz antolatzen; izan ere, asko ikasteko aukera izan dut urte hauetan guztietan, harreman handiak egin ditut...

Zeuk badaukazu artzain txakurrik?

Ez, kaleko etxe baten bizi naiz, eta ez zait tokirik egokiena iruditzen txakur batendako. Baserrian, baina, badago eta harekin ibiltzen naiz.

Sekula irakatsi diozu txakurren bati artzain lanetan?

Bai, baina, ordu asko sartu behar da txakurrari ondo irakasteko, eta nik ez neukan nahikoa denbora.

Euskal artzain txakurraren alde lan handia egin duzue, ezta?

Bai; euskal arrazako bi artzain txakur daude, Gorbeia eta Iletsu arrazak, hain zuzen ere, eta horien alde egiteko erabakia hartu genuen. Arazoak izan genituen artzain batzuekin, baina, guk horren alde lanean jarraitzen dugu.

Elkarteko kideek osatuko dute domekako epaimahaia. Arabako ordezkaria Iñaki Iriondo izango da; Bizkaikoak, Jose Mari Pradera eta Jaime Castaños; Gipuzkoakoa, Jose Mari Mendizabal eta Iparraldekoa, Fermin Mihura; bestalde, Kataluniako ordezkari bat eta Euskal Herriko Txapelketaren antolatzaile Lazaro Milikua ere epaimahaian izango dira. Txapelketan jardungo duten ardiak Bergarako Elorregi auzoko Aierdi baserrikoak izango dira. 120 ardiko artaldea ekarriko dute Aierdikoek, eta lau talde egingo dituzte; ariketa bakoitzean aldatu egingo dute artaldea, bidea ikas ez dezaten.

Oñatiko txapelketa antolatzen lau lagun ibiltzen dira, Jose Mari Bengoa tartean. Berak azaldu digunez, jende berriaren premian daude. Dena dela, txapelketaren egunean bertan eta bezperan, herriko elkarte guztietako kideek lan handia egiten dute; elkarte bakoitzeko lau lagun joaten dira antolatzaileei laguntzera. Guztira, 80 bat lagunek jardungo dute lanean bi egun horietan.

DEBAGOIENDARRIK EZ

Oñatin txapelketa hau antolatzen den 45. aldia den arren, behin bakarrik izan da irabazle debagoiendar bat. 1955. urtean, Nazioarteko Txapelketa antolatu zuten lehenengo aldian eraman zuen txapela ibarreko artzain batek; Jose Iturbe artzain arrasatearrak eta Txino bere txakurrak, hain zuzen ere, irabazi zuten.

Harrezkero, Jesus Mari Plazaola arrasatearra izan da txapelketetan ondoen ibili den debagoiendarra. Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelduna izandakoa da, baina ezin izan du nazioartekoa irabazi; hala ere, behin baino gehiagotan geratu da bigarren postuan.

Aurtengo parte hartzaileak

TXAKURRA	ARTZAIA	NONGOA
• BIZKOR	Jose Mari Jauregi	Ilarduia (Araba)
• SORGIN	Jon Zuazo	Legutio (Araba)
• RIKI	Enrike Mendiguren	Orozko (Bizkaia)
• TXIKI	Kepa Ardantza	Abadiño (Bizkaia)
• TXATO	Andres Atxa	Eibar (Gipuzkoa)
• ARGI	Antonio Alustiza	Areso (Nafarroa)
• TIF	Hilario Novillo	Saint Pedor (Katalunia)
• UNA	Armand Flaujat	Belber de la Cerdaña
• ARGI	Juan Mihura	Eleta (Behe Nafarroa)
• IZAR	Jean Paul Irikin	Itsasu (Behe Nafarroa)
• OURSONNE	Gerard Lalande	Salles (Biarno)

Aurreko urtetako txapeldunak

URTEA	TXAKURRA	ARTZAIA	NONGOA
• 1982	XOLI	Jabier Urien	Abadiño (Bizkaia)
• 1983	PINTXE	Patxi Etxeberria	Nafarroa
• 1984	ARGI	Joxe Urien	Abadiño (Bizkaia)
• 1985	EDER	Jean Michel Bidarte	Banka (Behe Nafarroa)
• 1986	BAT	Joxe Urien	Abadiño (Bizkaia)
• 1987	LAGUN	Migel Angel Elordi	Markina (Bizkaia)
• 1988	LAGUN	Migel Angel Elordi	Markina (Bizkaia)
• 1989	PERLA	Bernard Lacoste	Biarno
• 1990	TXATI	Joxe Antonio Arrillaga	Eibar (Gipuzkoa)
• 1991	TXATI	Joxe Antonio Arrillaga	Eibar (Gipuzkoa)
• 1992	LABRI	Jean Michel Bidarte	Banka (Behe Nafarroa)
• 1993	PERLA	Bernard Lacoste	Biarno
• 1994	COLOMA	Jordi Muxach	L’Estartit (Katalunia)
• 1995	BAT	Joxe Urien	Abadiño (Bizkaia)
• 1996	COLOMA	Jordi Muxach	L’Estartit (Katalunia)
• 1997	TXIKI	Joxe Antonio Arrillaga	Eibar (Gipuzkoa)
• 1998	ARGI	Enrike Mendiguren	Orozko (Bizkaia)
• 1999	XARPA	Joxe Urien	Abadiño (Bizkaia)
• 2000	ISAAC	Jean Marc Chicorp	Aramits (Biarno)
• 2001	NOIZARTE	Enrike Mendiguren	Orozko (Bizkaia)
• 2002	RIKI	Enrike Mendiguren	Orozko (Bizkaia)
• 2003	BIZKOR	Jose Mari Jauregi	Ilarduia (Araba)

GRUPO BESAIDE Club de Viajes
VIAJES ARABA

Lazarraga 3 • OÑATI
Tel.: 943 71 62 16 • Faxa: 943 71 63 58

Masajeak
Solariuma
Ultramorerik gabeko brontzeztadura
Depilazioa
Ultrasoinuak
Lurrunezko bainua
Elektroestimulazioa
Endomasaje ultrasonikoa
SPA zirkuituak
Aurpegi eta gorputzerako tratamenduak
Manikura eta pedikura

Thalasso EDER
Kale Zaharra 42, behea. • Tel: 943 78 01 71

SAN MIGELAK 2004
Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

HERRI EGUNA

Berrikuntza ugarirekin datorkigu aurtengo Herri Eguneko azoka

Baserritarren Elkarteak 25 urte bete dituela eta, hainbat berrikuntza izango ditugu Herri Eguneko azokan, eta Debagoien osoko baserritarrek parte hartuko dute azokan euren produktu eta ganaduarekin.

Gazta, ardi eta bildots lehiaketan eta ganadu erakusketan, Oñatiko baserritarrez gain, kanpokoek ere parte hartuko dute aurten. Orain arte herriko baserritarrendako azoka izan da Herri Egunekoa. Aurten, baina, Herri Eguneko azoka antolatzen duen Baserritarren Elkarteak 25 urte bete dituela eta, hainbat berrikuntza izango ditu azokak. Kanpoko baserritarren parte-hartzea, hain zuzen ere, izango da berrikuntza horietako bat.

Hamahiru baserritako ardi, bildots eta ahariak ikusi ahal izango ditugu Unibertsitate pareko zelaian; 40 behi eta 20 behor, Oñatikoak guztiak. Gazta lehiaketan, berriz, hamasei artzainek parte hartuko dute. Frutari eta barazkiari dagokionez, berriz, Oñatiko zazpi baserritarrek ekarriko dituzte euren produktuak.

BUFALOAK ETA IDIAK ERE BAI

Beste berrikuntza bat izango da bufaloak, idiak eta idiskoak ere egongo direla ikusgai. Bi idi pare ekarriko dituzte kanpotik; baita pirenaika, betixu eta terrano arrazako hiru idisko ere. Bestalde, Oñatiko Iruatz baserriko bi bufalo ikusteko aukera izango dugu; bitxia, benetan. Azkenik, euskal arrazako txerriak eta oiloak ere jarriko dituzte erakusketan.

Bestalde, Unibertsitateko klaustroan, Oñatiko zein kanpoko artisauen erakusketa jarriko dute.

HERRI BAZKARIA

Azoka ikusi eta plazan sagardoa dastatu ondoren, herri bazkarira joatea plan polita da, benetan. 14:30ean izango da bazkaria, Zubikoa kiroldegian. Menua, ezin hobea: patatak errioxar erara, erredondoa, tarta, kafea, kopa eta purua. Bazkalostean, berriz, trikitilariek, gaita-jotzaileek, dantzariek eta txistulariek jardungo dute.

Izarraitz, Umerez, Olakua, Arrano, Guria eta Antton tabernetan daude txartelak salgai, 14 euroren truke. Kultura Saileko arduradunek 1.000 txartel jarri dituzte salgai.

TALOA, HERRI EGUNEKO JAKIA

Zer izango litzateke Herri Eguna talorik gabe? Aurten ere ezker abertzaleko taldeek hartu dute talo postuaren ardura. Ehun bat lagunek jardungo dute lanean. Ezker Abertzaleko kideek azaldu digutenez, 120 kilo arto-irin erosi dituzte.



ARTXIBOA

Unibertsitateko klaustroan artisauen hainbat postu jarriko dituzte.

Sagardotegi onenak herriko plazan

- ZALBIDE. . . . . Abaltzisketa
- ABURUZA. . . . . Aduna
- ZABALA . . . . . Aduna
- SARASOLA . . . . . Asteasu
- ASTARBE . . . . . Astigarraga
- BEREZIARTUA . . . . . Astigarraga
- ETXEBERRIA . . . . . Astigarraga
- LARRARTE . . . . . Astigarraga
- LIZEAGA. . . . . Astigarraga
- PETRITEGI. . . . . Astigarraga
- SARASOLA . . . . . Astigarraga
- AÑOTA . . . . . Azpeitia
- BARKAIZTEGI. . . . . Donostia
- OTSUA-ENEA . . . . . Hernani
- EIZMENDI . . . . . Hernani
- LARRE-GAIN. . . . . Hernani
- AULIA. . . . . Legorreta
- ISASTEGI . . . . . Tolosa
- ALTUNA . . . . . Urnieta
- EULA . . . . . Urnieta
- SAIZAR. . . . . Usurbil
- OTATZA . . . . . Zerain

ARRATSALDEAN, HERRI KIROLAK

Aurten ere herri kirol jaialdia izango dugu Herri Egunean. 18:00etan izango da jaialdi hori, herriko plazan. Punta-puntako kirolariak izango ditugu, gainera. Alde batetik, Goenatxo, Izeta eta Ostolaza harri-jasotzaile ezagunek 137,5 kiloko harri kubikoarekin eta 125 kiloko

Herri bazkarirako 1.000 txartel daude salgai

harri borobilarekin jardun beharko dute. Harri bakoitzarekin bi minutuan jardun beharko du harri-jasotzaile bakoitzak.

Horren ondoren, aizkolarien saioa izango dugu; Azurmendi eta Mugertza aizkolariek, hain zuzen ere, parte hartuko dute jaialdi horretan.

Bukatzeko, Tubi eta Lapazaran kirolarien txanda izango da. Lehendabizi, ingudearekin egingo dute saioa biek; horren ondoren, berriz, lastoa altxatzen egingo dute erakustaldia.

Etxerako altzariak

Altzari klasikoa modernoa eta errustikoa

Egongelak
Logelak
Sarrerak

Alfonbrak
Margolanak
Ispiluak

Apainketa artikuluak eta osagarriak

Berritze integralak gure enpresako langileek eginak obrak ahalik eta azkarren bukatzeko

ZELAIA
OÑATI

Euskadi etorbidea 3 - **943 78 36 99**

1970ean sortua

Garbiketa gunea: automatikoki zein eskuz

Baita 3 xurgagailu, airea eta ura ere

AUTO-GARBIKETEN
ZERBITZU INTEGRALA
ESKAINTZEN DUGU

Santxolopetegi auzoa • OÑATI • Tel.: 943 78 21 05 • Faxa: 943 71 63 09

Goienka 2a

Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

Kultura eta aisialdia

Irailaren 24tik urriaren 1era

Errugbia, hau bai hau kirol jatorra!

Urte zirraragarria hastera doa Arrasateko errugbi taldearendako; izan ere, Estatuko Lehen Mailan jokatuko du aurten. Taldearen historia osoan bigarren aldiz gertatuko da hori, baina aurrekoa orain dela urte asko izan zenez, aukera historikoa dute orain. Aurkari latzak izango dituzte mondragoetarrek, baina kementsu azaltzen dira erronka berriaren aurrean.

Kirol arloko helburu bat izango da, euren esanetan, mailari eustea; baina beste xede batzuk ere badituzte. Lehentasunetariko bat da kirol hori benetan zelakoa den jakinaraztea, Debagoienean zaletasuna sustatzea eta jokalari berriak erakartzea. Izan ere, ibarrean kirol ezezagun samarra da, baina, begiratu bat emanez gero, askok ezustea jasoko dute errugbiaren inguruko giro jatorra ikusterakoan.

SENIDETASUNA, IDATZI GABEKO ARAUA

Errugbia gutxi batzuek bakarrik egiten duten kirola da Euskal Herri osoan. Hori dela eta, senidetasuna da idatzi gabeko araua. Partiduak bukatzerakoan, bi taldeetako jokalariek lehia alde batera utzi eta lagun arteko giroan biltzen dira. Arrasatearrek izaera hori aditzera eman nahi dute. **/15**

LEIRE KORTABARRIA

JATORRIZKO IRUDIA: ARRASATE RUGBY TALDEA

SONATA SEGUNDU BATEAN... ETA PIKU

Aktoreak:
Patxo Telleria
Ignacio Tolosa
Jose Cruz Gurrutxaga

ANTZERKIA

Arrakasta itxurako frakasu baten Komedia edo Desioaren eta errealitatearen arteko Lehia. Hau da: gutako edonoren istorioa.

Musikari trebe bat bizitzaren kapritxo batengatik show-bussines-ean arrakasta izatera iritsi eta gero matxinatu egin nahiko luke, baina ez daki nola.

TESTU SORTU BERRIA, musika zuzenean, kabaret eta klown umorea, **ISTORIO BAT KONTATZEKO**.

Non:
Arrasateko Amaia antzokian

Noiz:
Irailaren 26an, domeka, 19:30ean.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

iKER

SUKALDEAK: Udala Plaza z/g, Arrasate / 943 79 00 43 **BAINUAK:** Zarugalde 52, Arrasate / 943 79 99 42
ETA ORAIN OÑATIN ERE BAI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

KIROL TALDEAK/ ARRASATE ERRUGBI TALDEA

Lehia ahaztuta, adiskidantza nagusi

DENBORALDI BERRIAN, ARRASATEKO TALDEAK BERE BURUA INDARTU ETA ERRUGBIAREN ALDE HUNKIGARRIA HEDATU NAHI DU

LEIRE KORTABARRIA

Arrasate Errugbi Taldea Estatuko Lehen Mailara igo da. Kirol erronkaz gain, beste bat ere badute: hain zuzen, Debagoienean kirol hori zabaltzea, eta jokalari eta baita jarraitzaile berriak erakartzea. Horretarako badago argumentu on bat: errugbiak sortzen duen giro berezi eta aparta.

Errugbia kontaktu fisiko handiko kirola da, eta alderdi lehiakor horregatik da ezagunen gurean. Baina zelaitik kanpo, kirol horrek badu beste berotasun mota bat: alegia, lehiakortasuna zelai gainean utzi eta giza berotasuna nagusitzen da. "Errugbia kirol hunkigarria da", diosku Arrasate Errugbi Taldeko zuzendaritza batzordeko kide eta jokalari ohi Joseba Maidaganek. Izan ere, berak gaineratzen duenez, "giro apartan izaten dira partiduak, eta emaitza bigarren planoan geratzen da". Diziplina gutxitan gertatzen da gauza bera.

'HIRUGARREN ZATIA'

Askok entzundakoa da *hirugarren zatia* esamoldea, errugbiaren bitxikeria moduan. Partiduko bi zatiak bukatuta hasten da. Lagun-arteko giroa nagusitzen da jokalarien artean, eta elkarrekin afaltzera, taberna giroaz gozatzera eta baita turismoa egitera ere joaten dira. Hala, Arrasateko taldeak Euskal Herriko hainbat leku ondo ezagutu ditu, etxekoak aparteko gida zituztela: Zarautz, Irun, Ordizia, Hernani, Donostia, Mungia, Plentzia… eta beste asko. "Asteburua lagun-taldean pasatzeko modu polita izaten da", diosku Maidaganek.



ARRASATE PRESS

Zelaiko ika-mikak garagardo batekin alboratzen dituzte partiduen ostean.

Mondragoetarrek egiten dute euren ekarpena adiskidetasun giro horretara; izan ere, ekainean, Zazpinako Errugbi Txapelketa antolatzen dute. Euskal Herriko eta Europako taldeak etortzen dira jokatzera; eta kirolarekin orpoz orpo, jakina, festa, horrekin batera doan garagardo jaiaren eskutik. "Errugbian kolpe asko eman eta jasotzen direla? Bada, zelaian arazo gehien izan dituzun arerioarekin hartzen duzu lehenbiziko garagardoa", azaltzen du Joseba Maidaganek.

INPLIKAZIO HANDIAGOA

Zergatik sortzen ote du errugbiak halako giza lotura eta lagunarte beroa? Joseba Maidagan urte askoan izan da jokalari, eta orain ere arlo horretan lanean diharduu. Bere iritziz, gakoa da kirol hori gutxi batzuendako izatea Euskal Herrian: "Hain kirol txikia denez eta hainbeste zailtasun ditugunez, inplikazio eta ahalegin pertsonal handiagoa eskatzen du, eta horrek gauzak beste modu batera biziarazten dizkizu".

Euskal Herrian errugbi jokalari izateak ez du zerikusirik AEBetan hala izatearekin. Hemen, oztopoak dira nagusi. Arrasate Errugbi Taldeak asko ditu: "Garagartzan jokatzen dugu. Ez da batere egokia. Esan ziguten aldi baterako zela… eta 12 urte daramatzagu han. Bestalde, arropak-eta geuk garbitzen dugu; gure poltsikotik diru piloa ipintzen dugu; entrenatzeko ere gaizki gabiltza…", dio Maidaganek.

Hala ere, izango du zer edo zer errugbiak, Arrasatekoak ez direlako kikiltzen eta aurrera jarraitzen dutelako, umore onez. Senior taldean 35 bat urtekoak ere badaude; hortik aurrera, beteranoen taldean parte hartzeko aukera dago, eta horiek zazpi bat partidu jokatzen dituzte urtearen buruan. Horiek bai, guztiz lagunartekoak.

Denboraldi historikoa

Oso denboraldi garrantzitsua hastera doa Arrasate Errugbi Taldearendako urriaren 3an, izan ere, senior taldea Estatuko Lehen Mailan lehiatuko da. B multzoa egokitu zaio. Horko aurkariak Gernika RT, UPV Bilbao, Zarautz RT, Atletico San Sebastian, Bera-Bera B RT, Getxo Artea B RT eta Santanderko Independiente izango ditu.

Zailtasunak zailtasun, "ilusioa eta gogoak" dira nagusi taldean. Izan ere, klub bakoitzak bigarren talde bat izan behar du maila horretan, lurraldean jokatzeko; arrasatearrek diote "primeran" datorkiela hori, izan ere, "liga aproposa da ibar osoan kirol honekin harremanetan hasi nahi dutenendako". Kirol arloan, hortaz, helburu bat da jokalari berriak bigarren talderako erakartzea. Debagoieneko gazte guztiei deia egiten diete, hortaz, martitzen edo eguenetako entrenamenduetara joateko, Musakolako kiroldegian, 19:00etan. "Taldeko kirolek bizi duten krisi egoera kontutan hartuta, laguntza guztiak ondo hartuko ditugu", dio taldeak.

UNED-BERGARA

Ezin baduzu egunero joan klaseetara,

eta garai batean utzitako ikasketei heldu nahi badiezu,



karrera berri bat hasteko gogoa baduzu,

hizkuntzak ikasi... edo zure prestakuntza osatu

HAU DA BEHAR DUZUN UNIBERTSITATEA!

Matrikula zaitez !

- 20 Karrera Unibertsitario baino gehiago
- Ikasketa-Plan berrietara sartzeko aukera
- Doktoretza ikastaroak, graduondokoak, masterrak...
- Tutoretza Telematikoak eta jarraipen presentziala

Urrutira baina etengabeko harremanean !

UNED-BERGARA IKASTETXE ELKARTUA
CENTRO ASOCIADO UNED-BERGARA

• UNED-BERGARA •
San Martín Enparantza 4
Plaza San Martín 4
20570 Bergara
Tlf: 943 769 033
info@bergara.uned.es
www.uned.es/ca-bergara

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a

Ira. 24 - Urr. 1

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

MATRIKULAK

ANTZUOLA

► **Haur-eskolan** izena emateko epea zabalik egongo da irailaren 27tik urriaren 8ra arte. 2 urtera arteko umeendako da. Izena emateko, jo udaletxera, goizez, eta galdetu Jonerengatik.

DEBAGOIENA

► **Ibarreko udal euskaltegietan** izena emateko azken eguna duzue gaur, egubakoitza: Leintz euskaltegian, (943 79 21 68); Arrasatekoan (943 79 70 77), eta Bergarakoan (943 76 44 53).
► **AEK euskaltegiek** matrikulazio epea gaur, egubakoitza, ixten dute. Argibideetarako telefonoak: 943 77 03 69 (Arrasate) edo 943 76 05 18 (Bergara).

MUSIKA

ARRASATE

► **Rock jaialdia** bihar, zapatua, Garagartzan, 20:00-23:00. Bestalde, Compadres Muertos talde mexikarrak joko du Gaztetxean, 22:30ean.

BERGARA

► **Bost talderen** rock kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Angiozarren, 23:00etan. Segidan, DJ festa.
► **That Fucking Tank** talde britainiarrak kontzertua eskainiko du eguenean, hilak 30, gaztetxean, 21:30ean.

IKASTAROAK

ANTZUOLA

► **Yoga eta eskulan ikastaroak** deitu ditu Udalak. Biotarako izenemate epea urriaren 1ean, egubakoitza, bukatzen da. Yoga ikastaroa astelehen eta eguaztenetan izango da; eskulan ikastaroa, eguenetan; biak, arratsaldez. Izena emateko, udaletxera jo beharko duzue.

ARETXABALETA

► **Yoga, meditazio eta bioenergetika ikastaroak** antolatu ditu Sadhana yoga eta psikoterapia zentroak. Abendura bitartean izango dira eskolak. Izenemate epea zabalik dago urriaren 18ra arte. Argibideetarako, deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.

BERGARA

► **Hastapen mailako zeramika ikastaroa** hasiko da urriaren 14an, maiatza arte. Izena emateko, deitu 669 09 16 47 edo 626 92 04 13 telefono zenbakietara.
► **Egur taila eta eskulan ikastaroa** deitu dute. Taila eskolak eguaztenetan izango dira, eta denetariko eskulanak, berriz, eguenetan. Izena emateko, jo Ardatza brikolaje dendara edo Igartza mertzeriara.
► **Ume eta gaztetxoendako margo ikastaroa** deitu du Beart elkarteak. Zapaturo izango dira eskolak, 10:00etatik 13:00etara. Izena emateko, deitu honako telefonoetara: 653 71 53 82 (Mayra), 665 70 31 75 (Oihana) edo 635 71 32 69 (Maite).

DEBAGOIENA

► **Mendiko orientazio bi ikastaro** deitu ditu Gipuzkoako Mendizale Federazioak azarorako. Hondarribian eta Andoainen izango dira, eta hastapen eta GPS mailak landuko dira. Argibideetarako, deitu 943 46 14 40 telefono zenbakira.

ELGETA

► **Yoga eta eskulan ikastaroak** deitu ditu Udalak. Yoga ikastaroa eguaztenetan izango da, eta ordutegia, honakoa: 19:15-20:45. Izena emateko, jo udaletxera. Eskulan tailerra astelehenetan izango da, eta horretarako kultura etxean eman beharko duzue izena.

ESKORIATZA

► **NagusiWeb Internet ikastaroa** hasiko da irailaren 27an, urriaren 13ra arte, 11:00etatik 13:00etarako ordutegian. KZGunean izango da, kultura etxean. Doan da. Argibideetarako, deitu 943 71 30 43 telefono zenbakira.

ARKITEKTO TEKNIKOA

ARKITEKTO TEKNIKO bat nahi da aldi baterako.

Baldintzak:
- Arkitekto teknikoaren titulua.
- Euskaraz jakitea, 3. HE.

Interesdunak irailaren 30ean aurkeztu behar dira, goizeko 09:00etan Udaletxean.

Oinarriak: udaletxean eta web orraian jaso daitezke: arrasate-mondragon.org

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal Saila

DEIAK

ARAMAIO

► ***Iturrian zer dago?*** bertso saioa izango da bihar, zapatua, kiroldegian, 22:00etan. Berezia da, bertsolaritza eta dantza uztartuko direlako.
► **Aitor Aranaren omeneko** mendi ibilaldia antolatu du Orixol taldeak biharko, zapatua. Parte hartzeko, egunean bertan eman behar da izena, kiroldegian, 07:30ean, eta sei euro ordaindu. Ibilaldia bera 08:00etan hasiko da.

ARETXABALETA

► **Nekazaritza biologiko eta artisautza azoka** izango da bihar, zapatua, Durana kalean, 09:00-14:00.
► **Odol-ateratzeak** egingo dituzte astelehenean, hilak 27, osasun zentroan, 16:15-20:00.

ARRASATE

► **52an jaiotakoek** batzarra eta ospakizuna egingo dituzte urriaren 16an, zapatua. Izenematea zabalik dago irailaren 30era arte, eguena. Horretarako, Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontuan diru-sarrera bat egin behar duzue.
► **Gripearen aurkako txertoa** erretiratuen egoitzatan hartzeko aukera izango da. Hain zuzen, astelehenean, hilak 27, Uribarrin izango dira erizainak; 28an, Santa Marinan; eta 29an, Musakolan, 12:00-13:00.

BERGARA

► **Begiraleak behar ditu** Jardun elkarteak, zapatu arratsaldeetarako. Izena emateko, jo euren bulegora irailaren 30a baino lehen.
► **Jolasleku Ibiltaria** frontoian izango da gaur, egubakoitza, 17:00etatik 19:00etara bitartean, Jardun elkartearen eskutik. 6-12 urte bitarteko umeei dago zuzenduta.
► **Alderdi Egunean** parte hartzeko Forondara autobusa antolatu du herriko EAJ taldeak. Autobus geltokitik irtengo da etzi, domeka, 09:00etan. Izena emateko, jo batzokira. 5 euro da.

DEBAGOIENA

► **Kilometroak'04 jaira joateko** autobusak antolatu ditu Arizmendi Ikastolak. Interesa dutenek ikastolako idazkaritzan izena eman beharko dute irailaren 30a baino lehen, 15:00-18:00. Kilometroak Zarautzen eta Orion izango da aurten, urriaren 3an.
► **Nafarroa Oinezera** laguntzera joateko deialdia zabaldu dute Debaguneak eta ikastolek. Argibide gehiago euskara elkarte edo ikastoletan izango duzue.

ELGETA

► **Hipertentsioaren** gaineko hitzaldia egingo du Kutxak eguenean, hilak 30, udaletxean, 19:00etan.
► **Ozkarbi taldeak** batzar orokorra egingo du irailaren 30ean, eguena, euren egoitzan. Lehenengo deialdia 21:00etarako da, eta bigarrena, 21:30erako. Bestalde, jakinarazten dute loteria hartu nahi duenak urriaren 31era arte duela horretarako epea, dirua gutunazal baten utzita.

OÑATI

► **Atletismoan izena ematera** animatzen dituzte antolatzaileek herriko gazteak. Horretarako, Zubikoan izen-abizenak eta telefonoa utzi beharko dituzue. Deialdia 9tik 20ra urte arteko ume eta gazteei zuzenduta dago.

► KONTZERTUAK

JAM ARETOAK BI KONTZERTU ANTOLATU DITU EGUNOTARAKO

Bergarako Jam aretoak kontzertuak antolatu ditu berriro oporren ostean. Datozen egunotan, bi emanaldi izango dira: eguenean, irailak 30, Lars Frederiksen etorriko da The Bastards bere talde berriarekin (irudian). 90eko hamarkadako Rancid punk taldeko liderrak eta Bastards taldeak *Viking* euren bigarren lana aurkeztuko dute, 20:30ean; sarrera 15 euro da. Eurekin batera, The Heartaches belgikarrak eta Afonia euskaldunak izango dira. Bestalde, datorren egubakoitzean, urriak 1, Jam aretoak bere zortzigarren urteurrena ospatuko du, eta horretarako, Ojos de Brujo taldeak aurten Euskal Herrian egingo duten emanaldi bakarraz gozatzeko aukera izango dugu. Ordua, 22:00ak; prezioa, 13 euro, aldez aurretik erosita.

Non: Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** Lars Frederiksen & The Bastards, irailaren 30ean; Ojos de Brujo, urriaren 1ean.

ANTZERKIA

ARAMAIO

► ***Irlandar umorea*** bakarrizketa antzeztuko du Macrea aktore irlandarrak gaur, egubakoitza, Anboto tabernan, 22:30ean. Estreinaldia da. Sarrera, doan.

ARRASATE

► ***Sonata segundu batean… eta piku*** antzezlana, domekan, Amaia antzokian, 19:30ean.

LEHIAKETAK

ARAMAIO

► **Aramaio bere edertasunean** argazki lehiaketa deitu du Udalak. 150, 100 eta 75 euroko sari bana emango dituzte, eta parte hartzeko mugaeguna da urriaren 15a. Argibide gehiagorako, jo udaletxera edo kultura etxera.

ANTZUOLA

► **X. Argazki Lehiaketa** deitu du Udalak. Aurtengo berritasuna da argazki digitalak ere sarituko dituztela, 100 eurorekin, hain zuzen. Bestelako argazkiendako 150 eta 90 euroko sariak izango dira. Mugaeguna da urriak 29. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

► **Eskulan ikastaroan** ikasleek egin dituzten lanen erakusketa izango da asteburuan Olaran etxean, 12:00-14:00 eta 18:30-20:00.

OSPAKIZUNAK

ARETXABALETA

► **San Migel jaiak** ospatuko dituzte herritarrek asteburuan.

ARRASATE

► **Garagartza auzoan** San Migelen ohorezko jaiak izango dira asteburuan.

BERGARA

► **Angiozar auzoko jaiak** ospatuko dituzte asteburu osoan.

Zinema

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Fahrenheit 9/11
Zapatua: 19:00, 22:00.
Astelehena: 20:30.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

La mala educación
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

Shin Chan, erreskate operazioa
Zapatua eta domeka: 17:00.
Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

La pelota vasca
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

El rey Arturo
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

El bosque
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

El mito de Bourne
Egunero: 19:30, 22:15.

Zafarrancho en el rancho
Zapatua eta domeka: 17:00.
Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Mar adentro
17:30, 20:00, 22:30.

El bosque
18:00, 20:15, 22:30.

El juego de la verdad
18:00, 20:15, 22:30.

Cuestión de pelotas
17:30, 22:30.

El mito de Bourne
18:00, 20:15, 22:30.

Si yo fuera rico
18:00, 20:15, 22:30.

La terminal
17:30, 20:00, 22:30.

Spider-man 2
20:00.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Mar adentro
17:30, 20:15, 22:45.

Shrek 2
17:15.

Kill Bill 2
17:15, 20:00, 22:30.

El rey Arturo
20:00, 22:30.

El bosque
17:20, 20:15, 22:45.

El mito de Bourne
17:15, 20:00, 22:30.

La terminal
17:30, 20:15, 22:45.

La memoria de los peces
17:30, 20:15, 22:45.

Fahrenheit 9/11
17:15, 20:00, 22:30.

Young Adam
17:20, 19:50, 22:35.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

No te muevas
17:30, 20:00, 22:30.

Primavera, verano, otoño, invierno… y primavera
17:30, 20:00, 22:30.

La memoria de los peces
18:00, 20:15, 22:30.

Horas de luz
17:30, 20:00, 22:30.

El tren de Zhou Yu
17:30, 20:00, 22:30.

Nuestros adorables niños
18:00, 20:15, 22:30.

Perseguidos
18:00, 20:15, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Garfield
16:15, 18:15, 20:15, 22:20, 00:45.

Cuestión de pelotas
16:15, 18:15, 20:15, 22:20, 00:45.

El bosque
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Isi / Disi
22:30, 00:45.

El mito de Bourne
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Yo, robot
16:30, 19:00.

Madhouse
22:30, 00:45.

El rey Arturo
19:45, 22:15, 00:45.

El juego de la verdad
16:15, 18:15, 20:15, 22:20, 00:45.

Spy kids 3D
16:00, 18:00.

Doraemon gladiadorea
16:00, 18:00, 20:00.

Escuela de seducción
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

El mito de Bourne
12:15, 16:00, 18:10, 20:25, 22:40, 01:00.

Mar adentro
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

Garfield
12:15, 16:25, 18:25, 20:20, 22:25, 00:25.

Isi / Disi
22:50, 00:40.

Las crónicas de Riddick
12:15, 16:05, 18:20, 20:35.

Cazadores de mentes
18:05, 20:15, 22:30, 00:35.

El rey Arturo
19:45, 22:15, 00:45.

Escuela de seducción
18:00, 20:15, 22:20, 00:30.

Spy kids 3D
12:15, 16:00, 18:00.

El bosque
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Horas de luz
12:15, 16:30, 18:35, 20:40, 22:45, 00:50.

El juego de la verdad
12:15, 16:45, 18:40, 20:45, 22:35, 00:45.

Zafarrancho en el rancho
12:15, 16:15.

Shrek 2
12:15, 16:10.

Olvídate de mí
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 00:55.

Cuestión de pelotas
12:15, 16:15, 18:10, 20:05, 22:00, 00:00.

Madhouse
12:15, 16:35, 18:30, 20:40, 22:35, 00:40.

La terminal
12:15, 17:15, 19:45, 22:15, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelehena, ikuslearen eguna.

■ **ÁBACO BOULEVARD**

Garfield
12:20, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

Mar adentro
12:20, 17:05, 19:40, 22:15, 01:00.

La maldición 2
22:20, 00:30.

Chicas malas
12:10, 16:10, 18:10, 20:10.

La terminal
12:00, 17:05, 19:45, 22:30, 01:10.

Las crónicas de Riddick
20:00, 22:30, 01:00.

El mito de Bourne
12:00, 16:00, 18:15, 20:30, 22:50, 01:00.

Cuestión de pelotas
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:40, 00:45.

Spy kids 3D
Zapatua: 17:20.
Domeka: 12:10, 17:20.

Escuela de seducción
12:10, 16:00, 18:10, 20:25, 22:45, 01:10.

El bosque
12:00, 16:00, 17:00, 18:15, 19:30, 20:30, 22:00, 22:45, 00:30, 01:00.

Olvídate de mí
12:10, 16:05, 18:15, 20:25, 22:40, 01:05.

Cazadores de mentes
Egubakoitza: 17:20, 19:40, 22:10, 00:30.
Zapatua: 19:40, 22:10, 00:30.
Domeka: 19:40, 22:10.

El rey Arturo
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Domeka: 12:15, 17:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, bakarrik domekan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

La mala educación: ●●●● / ***Kill Bill 2:*** ●●● / ***Shrek 2:*** ●●● / ***Mar adentro:*** ●● / ***Spider-man 2:*** ●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

EL BOSQUE

PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIA: M. Night Shyamalan.
AKTOREAK: Bryce Dallas Howard, Joaquin Phoenix, William Hurt, Sigourney Weaver.

M. Night Shyamalan-ek gaur egungo zuzendari interesgarrienen artean dagoela frogatu du *El bosque*-rekin; ukitu berezi bat du istorioetara hurbiltzeko momentuan. Misterioa, intriga eta beldurrezko osagaiak erabiltzen ditu fabula edo parabola bat azaltzeko. *El bosque*-k beldurrezko filmen egitura erabiltzen badu, eta bukaera harrigarriaren errekurtsoa izan arren, batez ere, gaur egungo Ameriketako Estatu Batuak jasaten ari diren egoerari buruz hitz egiten digu: babesari buruzko psikosia erakusten du, isolatutako herri bat, kanpotik datorren arrisku eta gaitzetatik ihes egin nahian. Eta, azken finean, eraikitako bizimodu horrek gizarte kutsatu baten sorrera bultzatzeko besterik ez du balio.

Shyamalan-ek istorioak kontatzeko oso modu pertsonala du, eta filmei oso giro berezia ematen die: elipsiak, iruditik kanpo gertatzen dena, soinua, musika… bikain erabiltzen ditu. Oso ondo neurtzen du denetaraiko datuen agerpena, apurka-apurka aditzera ematen dizkigu datu berriak eta, horrela, ikusleak istorioari eta pertsonaiei buruz duen jakin-nahiak gora egiten du. Eta



informazioaren pixkanakako desestaltze horren bitartez, zuzendariak ikusleen arreta bereganatzea lortzen du. Shyamalan pertsonaiengana apaltasunez hurbiltzen da, zaratarik egin gabe eta, kasu askotan, pertsonaien sorbaldak filmatzen ditu (holaxe, pertsonaiek duten alde sekretua eta giroan sumatzen den zapalkuntza kutsua azaltzen dizkigu), pertsonaia horien aurpegiak eta soslaiak erakutsi arte. Adibide gisa, gazteek etxeko ataripean duten amodio eszena daukagu: kamerak, urrunetik, pertsonaien sorbaldak filmatzen ditu, eta bikotearengana poliki hurbiltzen da horien intimitatea ez apurtzeko. Aktoreak, askotan, atzetik filmatzen ditu, baina zuzendariak badaki baita aktoreen aurpegien lehenengo planoei etekin handia ateratzen. Esaterako, kamerak oso ondo tratatzen ditu Bryce Dallas Howarden edertasuna eta honen aurpegiaren xarma eta magnetismoa.

El bosque ez da beldurrezko film tipiko bat, ezta oso komertziala ere, baina bai oso giro eta irudi misteriotsuak lortzen dituen lan gomendagarria.

ANTONIO ZABALA

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Zubiaurre 50 m². Berrituta.
• Masterreka 75 m². Berrizteko.
• Arruriaga 45m². Berrizteko.
• Zubiaurre 45m². Berrituta.
• San Pedro 150m². Ondo.
Antzuola:
• Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Ondo kokatuta. Garajea aukeran.
PABILIOIA SALGAI
• Osintxu 660 m²
BASERRIAK SALGAI
• Elosun, Osintxun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.
LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI ETA ERRENTAN

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
•Erdialdea 86 m². Etxe berria.
•Martoko 60 m². Berrituta.
•Erdialdea 90m². Oso ondo dago.
•Erdialdea 78 m². Berrituta.
•San Anton 67 m². Berrituta.
ANTZUOLA:
•11 etxebizitza berri.
•Beheko auzoa 60 m². Berrituta.
SORALUZE:
•80 m².Berritua. Garajea eta txokoa.
BASERRIAK
•Angiozar 600 m² eta lursaila.
•Elosua 405 m² eta lursaila.
Bergaran salgai eta errentan:
Lokalak, pabilioiak eta garajeak

Iragarki sailkatuak

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 15 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARRASATE
ESPERIENTZIADUN SUKALDARIA BEHAR DA OSPITALEKO KAFETEGIRAKO. 943 77 17 27

BERGARA
ZERBITZARIA BEHAR DA. 943 76 73 18

ARRASATE
NESKA BEHAR DA TABERNAN LAN EGITEKO. 943 79 00 34

BERGARA
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BURUETAN LAN EGITEKO. 659 45 24 62

ARAMAIO
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BURUETAN LAN EGITEKO. 945 44 50 86

ARETXABALETA
BASTER-ALDE JATETXEAK ESPERIENTZIADUN SUKALDARIA BEHAR DU. 679 45 57 75

BERGARA
ZERBITZARIA BEHAR DA TABERNA BATEAN. DOMEKETAN, JAI. 943 76 15 59

ARETXABALETA
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BURUETAN LAN EGITEKO. 647 05 42 75

ARETXABALETA
JATETXERAKO ZERBITZARIA BEHAR DA. 943 79 18 03

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Erdialdean. 80m². Hiru logela eta egongela. Dena kanpora begira. Bizitzen hasteko moduan. Deitu 17:00etatik 21:00etara. 627 34 92 27.

Aretxabaletako erdigunean. 70 metro koadro ditu, bi gela, sukaldea, egongela, bainua eta trastelekua. Baita igogailua eta berogailua ere. 618 00 15 00.

Arrasate. Eguzki dorrean, 80 m², hiru logela, sukaldea, komuna, egongela. Telefonoa: 943 79 43 39.

Arrasate. Erdigunetik lau minutura. Berritua. Jantzia. 162.273 euro (27 milioi pezeta). 686 89 98 84.

Atikoa salgai Aretxabaletan, Beroan, estreinatu gabea. 75 m² erabilgarri. Garajea ere badauka. 616 87 34 35.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Apartamentua errentan ematen da. 605 71 37 77.

Arrasate. Erdialdean. 3 gela, bi bainu, egongela eta sukaldea. Eraikina nahiko berria da. 646 65 08 07.

Arrasate. Musakola auzoan ikasleentzat etxebizitza errentan. 943 77 03 25.

Chiclana (Cadiz). Etxebizitza errentan leku ezin hobean. Hondartzatik oso gertu. Irailean, Urrian... 627 29 46 39 edo 945 06 00 24.

Costa Sancti Petri (Chiclana, Cadiz). Apartamentua errentan. La Barrosa hondartzatik gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Oñati. Ikasle edo irakasleei etxebizitza errentan emango nieke, Olakua auzoan, unibertsitatetik oso-oso gertu. Bi logela. 943 78 16 33.

Vera (Almeria). Apartamentua errentan naturista-gune baten. Jantzia. Igerilekua. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaletan etxe bat alokatuko nuke. 943 79 53 24 edo 647 60 69 00.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Maria Elena. 618 43 38 15.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxea osatzeko pertsona bat behar da. Unibertsitatetik 10 minutura. 605 75 72 37.

Arrasate. Lanean diharduen neska batek logela errentan hartuko luke. Telefonoa: 650 59 93 91.

Eskoriatza. Etxebizitza osatzeko lagun baten bila gabiltzan bi langile gara. Ainara eta Eunate. 675 71 16 93 edo 659 83 63 86.

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Axun. 656 71 04 11.

Salamanca. Unibertsitatetik gertu dagoen ikasle etxebizitza osatzeko ikasle euskalduna behar da. 665 71 01 64 edo 685 70 85 52.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Donostia. Garajea salgai Amaran. Arko parean. Terranovako Arrantzaleak 5 kalean. 12 m². Prezio ona. Nekane. 605 74 26 60.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasaten, Kontzezino kalean garaje itxia errentan ematen dut. 943 79 55 20.

Arrasaten. Uribarri etorbidean garaje itxia ematen da errentan, unibertsitatearen ondoan. 943 79 33 48.

Oñatin, Santa Marina plazan. Garaje handia da, bi autorendako tokia du. Telefonoa: 615 71 53 29.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Lokal komertziala salgai. Telefonoa: 943 79 76 95.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Aretxabaleta. Sukaldaria behar da prestatutako janariak dituen saltoki batean lana egiteko. 943 77 06 12.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko, egunean bi ordu. 635 73 73 38.

Oñati. Emakume bat behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Goizez: 07:30-09:00; arratsaldez: 16:00-18:00. Deitu gauez, 21:00etatik aurrera. 943 78 36 15.

Oñati. Pertsona behar da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 653 72 54 40.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. 637 88 24 74.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

Arrasate. Neska gaztea lanerako gertu. Telefonoa: 646 15 21 20.

Arrasateko Uribe auzoan, emakume bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 19:00etatik aurrera deitu, mesedez. 943 77 16 19 edo 676 05 53 40.

Bergara. Emakume euskaldunak umeak zaindu, etxeko lanak egin edo denda baten lan egingo luke. 659 44 76 75.

Bergara. Emakumea gertu etxeko lanetarako edo garbiketa lanetarako. Telefonoa: 696 84 19 51.

Bergara. Neska lanerako prest. 686 17 52 59.

Bergara. Umeak zaintzen eta dendari lanetan eskarmentua duen neska, lan egiteko prest. Telefonoa: 650 31 53 02.

Bergaran, neska gertu etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 696 84 19 51.

Bergaran, pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 657 79 79 35.

Debagoiena. Emakume batek bere burua eskaintzen du etxean bizi eta bertan lan egiteko. 690 12 41 78.

Debagoiena. Neska eskaintzen da umeak edo adinduak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. Orduka edo egun osoz jarduteko. Telefonoa: 676 19 87 65.

Debagoiena. Sistema Informatikoen Administraritza ikasi duen pertsona lanerako eskaintzen da. 680 23 76 31.

Eskoriatza. Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Irati. 665 73 36 90.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arrasate. Behar bereziak dituzten umeei laguntza eskolak ematen dizkiet. 645 73 04 69.

Arrasate. Behar bereziak dituzten umeei laguntza eskolak ematen dizkiet. 645 73 04 69.

Arrasate. Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Esperientzia handia. Maila guztiak. 630 71 35 83.

Arrasate. Zuzenbidean lizentziadunak 1. eta 2. hezkuntzako eskolak ematen ditu, euskaraz zein gaztelaraz. Esperientziaduna. Telefonoa: 943 79 83 46.

Bergara. Irakasle ikasketak dituen neska batek eskolak ematen ditu. Mari Jose. 652 76 12 81.

Oñati. Kimikan lizentziadunak matematika, fisika eta kimikako eskola partikularrak ematen ditu. Iratxe. 943 78 19 59.

6/ MOTORRA

601. SALDU

BMW RT 1.150 R. motorra salgai. Bi urte eta erdi ditu, eta 23.000 kilometro. Eskutoki berogailuak ditu. Oso zainduta dago. Igor. Telefonoa: 629 37 60 06.

Citroën 2CV autoa salgai. SS-P matrikula. 900 euro. 943 08 22 41.

Opel Vectra 2.0i autoa salgai. SS-AN. Estrak. Bizikletendako gainaldea. 2.100 euro. 639 21 60 95.

KTM EXC 250 enduroko motorra salgai. Matrikulatua. 636 84 96 97.

Opel Vectra 1.8 autoa salgai. Gasolina. 1997koa. 91.000 km. 4.200 euro. 627 43 92 94.

Seat Arosa 1.0, gris metalizatua. BI-CS, 5 urte, 45.000 km., 4.000 euro. Telefonoa: 946 23 17 56.

Seat Ibiza 1.4 gasolina autoa salgai. Oso ondo zaindua. Lau urte, 33.000 km. IAT 2006ko uztailera arte. Telefonoa: 627 21 87 49.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Hispanier txakurra salgai.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

15 hilabete ditu. Gauez deitu honako telefonora: 943 78 03 08.

703. EMAN

Siames arrazako katua ematen da opari. Arra da. Lau aste ditu. Telefonoa: 669 63 17 84.

704. BESTELAKOAK

Bergara. Txakurra edukitzeko txabola egokia salgai. Ez du orturako balio. Telefonoa: 943 76 99 76.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Eskusoinua edo akordeoi handia salgai. Tekladuna. 943 76 16 79.

Etxerako apaingarriak margotzen dira enkarguz. Prezio merkean. Telefonoa: 600 71 59 55.

Sagardo-sagarrak ditut saltzeko Oñatin. Deitu telefono honetara: 639 22 24 02 edo 943 71 82 43.

802. EROSI

Bizikleta, paseokoa, erosiko nuke. Telefonoa: 699 49 14 18.

803. EMAN

Debagoiena. Ohe bat ematen da (90 cm). Eta koltxoia. 943 77 01 82.

806. GALDU

Belarritakoak galdu nituen irailaren 21ean Aretxabaleta Txakoli tabernaren aurrean. Aurkitu dituenak, mesedez, deitu telefono honetara. 636 69 18 82.

Eskumuturrekoa galdu nuen irailaren 4an Arrasateko erdialdean. Ainara jartzen du eta baita ere 30/06/77ko data. Zilarrezkoa da. Aurkitu baduzu, dei iezadazu, arren. Telefonoa: 943 77 08 28 edo 943 79 52 35.

LAN POLTSA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak

LAN POLTSA OSATZEKO TELEBISTARAKO KAMERALARIAK BEHAR DITU

Eskatzen da:

- Titulazioa izatea.
- Euskaraz jakitea.
- Gidabaimena edukitzea.

Interesatuok bidali curriculuma:

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
132 pk, 20500 ARRASATE
Edo: admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:

2004ko urriaren 1a

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Txinatar jatetxea
DRAGON ORIENTAL
東方龍

Maritxu Kajoi
egunerako menu bereziak

Deitu eta har ezazu tokia lehenbailehen!!!
943 79 85 33

Araba etorbidea 3 ARRASATE

ABUZTUAN ZABALIK!

bitart

Abokatutza eta bitartekaritza

Lege arazoen konponbide labur eta baketsuak

Larraitz Ugarte
Maider Morras

Nafarroa etorbidea 23
ARRASATE
943 71 25 22/23

M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

AIPAGARRI

Martin Calvo

ARRASATE

Arrasateko Udalak kooperatiben eta immigrazioaren gaineko liburu bat argitaratu nahi du. Horren gaineko tesia egin du Martin Calvok Euskal Herriko Unibertsitatean. Udalari gustatu egin zitzaion, eta orain, tesiari moldaketak egin dizkio Martinek, 250 bat orriko liburu bihurtu eta kaleratzeko.

Mireia Gabilondo

BERGARA

Mireia Gabilondok *Kutsidazu bidea, Ixabel* lan ezaguna zuzenduko du zinemarako, Fernando Bernuesekin batera. Datorren udan hasiko dira filmaketa lanekin, eta zinemarako ez ezik, telebistarako sei kapitulu ere grabatuko dituzte. Euskara hutsean egingo dute filma.

Larraitz Kortabarria

ARRASATE



Bartzelona Futbol Taldean jokatuko du Larraitz Kortabarria arrasatearrak. Izan ere, hiru urterako sinatu du Bartzelona taldearekin. Mondra eta Eibar taldeetan ibili da aurretik Larraitz. 18 urte ditu, eta Telekomunikazio ikasketak egingo ditu Bartzelonan.

Inmaculada Garcia arrasatearra eta Lumbralesko **Jose Ignacio Pascua** abuztuaren 7an ezkondu ziren Lumbralesen, Salamancan. Zorionak, bioi, euskaltegiko lagunen partetik!

Jacinto Orueta eta **Juanita Garro**k, urrezko ezteiak ospatuko dituzte, bihar, zapatua. Aramaion bizi dira biak, baina Elorrion ezkondu ziren. Zorionak, familiaren partetik!

Joaquin Bedia eta **Tere Landa** arrasatearrak 1954ko irailaren 28an ezkondu ziren Arrasaten. Bihar, zapatua, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan ospatuko dituzte urrezko ezteiak. Ondoren, bazkaria egingo dute etxekoekin batera. Zorionak, familiaren partetik!

HILDAKOAK

Jose Olalde Goitia. Oñatin, irailaren 16an. 66 urte.

Fernando Belategi Arriola. Eskoriatza, irailaren 17an. 83 urte.

Aurora Perez Herrero. Arrasaten, irailaren 19an. 90 urte.

Francisco Jose Agiriano Apaolaza. Arrasaten, irailaren 20an. 80.

Tomas Unamuno Leibar. Bergara, irailaren 22an. 88 urte.

Garbiñe Zubia oñatiarra eta Zumarragako **Joseba Zaldua** bihar ezkonduko dira, irailak 25, Oñatiko San Migel parrokian. Ezkondu ondoren, itsas bidaia egingo dute Mediterraneo itsasoan eta ondoren Parisera joango dira. Zorionak, bikote, zuen lagunen partetik!



Iker Manso antzuolarra eta **Arantzazu Zulueta** oñatiarra bihar, zapatua, ezkonduko dira Oñatin. Ezkon bidaia egiteko Costa Rica eta Dominikar Errepublika aukeratu dituzte. Zorionak, bioi, etxekoen partetik!

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkaritzetako batera.

GOIENKARIA
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 80 €.

ESKER ONA

Maria
Eguren Makazaga

Arrasaten hil zen 2004ko irailaren 14an, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2004ko irailaren 24an.

ESKER ONA

Josu
Ibabe Guridi

Gasteizen hil zen 2004ko irailaren 16an, 42 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2004ko irailaren 24an.

URTEURRENA

Carlos
Inza Guridi



Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 25ean, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko emaztearen eta seme-alaben izenean.

URTEURRENA

Julio
Isazelaia Erostarbe



Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 26an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bautista parrokian.

Zure familiak ez zaitu inoiz ahaztuko.

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Txosten Serorak		Zarata *Izena		Koral	
	Dantzako pauso Herri baten grafiko					
Kemena Edaten duena		..del Rio, Kubako hiria *Deitura				
			Plutonioaren ikurra Zakur			
Ugaria Irendu dena					Elementu kimiko	
			R hirutan Laua, xumea			
Zoroa Gar			Listu Lawrentzioa			
		Plater Zerbaiten maila				
Tripa	Hezea ez dena Biharamuna			Elektroia Kromosomen osagaia		
			Leku atzizkia Lutezioa			
Festa, ekitaldi Haur, ume						
		Nafarroako mendia				

BILABILA7



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

KUKARATXAREN AURKA

Morenitok kukaratxak akabatzeko autsak saltzen zebazen. Bai andra askok erosi be. Kukaratxak, baiñan, ez ziran iltzen. Juan ziran protestatzera saltzailliangana, eta onek esan zetsen:

- A, baiña zuek ezteztazue ondo aitxu. Eiñ bihar dozuena da, lenengo autsa bota kukaratxen gaiñera, eta gero kukaratxak zapaldu.

ERRORE BI EZ!

Plaentxiar bati, kintzenia kobratzerakuan, 2.000 pezeta geixago emon zetsen. Konturatu zan bera, baiña, ixilik! Ugezaba be konturatu zanian pentsau zeban urrengo kinzenan 2.000 pezeta geixago emotia. Ta olan egin zeban. Gure plaentxiarrari, baiña, denporia faltau jakon erreklamatzera juateko. Ugezabak esan zetsan:

- I, baiña, aurreko kinzenan errore bat euki genduan...

Orduan plaentxiarrak:

- Bueno, errore bat pasau leike, baiñan bi eztitxut kontsentitzen!

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola

Zer esan nahi du ‘inkernu’ berbak?

Juan Martin Elexpururen *Bergara aldeko hiztegia* liburua argitaratuko ei du Bergarako Udalak laster. Hiztegi horretatik hartutako berba da *inkernu*. Asmatuko ote zenuke zer esan nahi duen?

- Infernua.
- Gogo bizia.
- Haserrea.
- Amorrua.

Erantzun zuzena: : Gogo bizia.
Adibidea: *Inkernue bai baiña alizetia falta.*

SOLUZIOAK



O	N	U	●	N	I	E	S
I	D	L	A	I	A	J	●
N	A	●	L	E	B	A	S
E	●	R	A	H	I	●	●
T	A	L	P	●	R	A	K
U	T	●	A	O	R	E	●
R	R	●	N	E	R	R	I
●	A	O	R	A	P	O	●
U	P	●	E	L	A	D	E
R	A	N	I	P	●	A	●
O	L	O	S	●			
K	A	J	O	M			
●	Z	●	D	●			

ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Finantza-arazoak izango dituzu, dirua xahutu besterik ez duzu egiten-eta. Hori dela eta, hainbat aldaketa egin gura izango dituzu daramazun bizimoduan, eta horren gainean hausnartu egin beharko duzu. Bakarrik egon gura izango duzu.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Egiten duzuna egiten duzula, kasu egiozu senak esaten dizunari, bestela erraz engainatuko zaituzte-eta. Bestalde, kontrola ezazu jenio txar hori, bihotzez maite dituzunekin haserretu gura ez baduzu.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Gura duzun guztia lortuko duzu. Gainera, oso aste ona izango duzu amodio eta laguntasun kontuetan; konplizitate harremana sortuko da bikotekidearekin.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Zure egoera hobetu egin gura baduzu, has zaitez zure buruarengan konfiantza handiagoa izatetik, oso ideia argiak dituzu-eta. Daukazun segurtasunik eza gainditu egin beharko duzu.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Proiektu berri batek fruituak emango ditu berehala. Gehien igarriko duzu zure ekonomian eta enpresan daukazun egoeran; izan ere, mailaz igoko zaituzte, eta ardura handiagoko postua izango duzu.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Umore eta iritzi aldaketa etengabeak izango dituzu, eta ingurukoak harrituta geratuko dira, oso arraro jokatzen zabiltzala-eta. Aldaketa horiek hainbat arrazoirengatik gertatuko dira. Ahalegin zaitez horiek esplikatzen.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Hainbat batzar izango dituzu: lan-batzarrak badira, emaitza oso ona izango da, zure helburuak betetzeko aurrerapauso handia egingo duzu-eta; lagunen artekoak badira, dibertsioa ziurtatuta dago!

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Familiarteko arazoak behin betiko konpondu beharko dituzue, elkarrizketaren bidez. Bestalde, ez zaitez oldarkor izan eta ez egin inolako inbertsiorik.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Bizitzan zenituen helburu guztiak lortu dituzu dagoeneko; hortaz, oso lasai eta guztiz erlaxatuta egongo zara, egoeraz gozatzen.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Arazoak seme-alabekin, gehienetan konklusio okerrak ateratzeko joera daukazu-eta. Hanka sartu baino lehen, egin berba haiekin, horrela bakarrik lortuko duzu-eta eurekin duzun harremana hobetzea.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Aldaketa onuragarriak lanean, azkenean ere erabaki garrantzitsu bat hartuko duzu-eta. Bestalde, bikotekidearekin harremana legeztatzeko beharra izango duzu; eta bikotekiderik ez baduzu, neska/mutil bat ezagutuko duzu eta harreman polita hasi.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Pertsonak eta egoerak ez dira epaitu behar kalean entzuten dituzun komentarioengatik, gehienetan gezur hutsa dira-eta. Bestalde, oso urduri egongo zara; hori dela eta, mendira eta hondartzara irteerak egingo dituzu.



GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

Irailaren 27a: 014 zozketa

Harpidedunen txokoa

Sariak, astero!

Astelehenean, irailak 27, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Irailaren 20ko sariak

- **REFLECTA** diapositiba proiektagailua.
- **ELHUYAR** hiztegia. Euskara-gaztelania hiztegia.
- Erein argitaletxearen eskutik **'MAITEMINDUAK'** umeendako liburua.
- **'AITONA-AMONEN OROIGARRIA'**, Mikel Valverde eta Bernardo Atxagaren liburua.
- **MANOLITO GAFOTAS** filma DVDan.

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

Urte amaierara arteko harpidetza: **10** €

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

astelehenean, aste bukaera osoa

013 zozketa saridunak

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!

Ana Fernandez
Arrasate
SARIA: Bergarako ZUMELAGA jatetxean bi lagunentzako afaria

YELMO CINEPLEXerako sarrerak
- Dorleta Lara (Arrasate)
- Josu Toledo (Antzuola)
- Dina Muxika (Antzuola)
- Julen Iparragirre (Antzuola)
- Santiago Altuna (Arrasate)
- Gurutze Murua (Oñati)
- Eba Berezibar (Aretxabaleta)
- Jose Mari Baltzategi (Arrasate)
- Iñaki Iturbe (Arrasate)
- M. Isabel Isasmendi (Eskoriatza)
- Joxe Mari Badiola (Eskoriatza)
- Julio Ugarte (Bergara)

AQUARIUMerako sarrerak
- Santi Aristi (Antzuola)
- Alazne Intza (Oñati)
- Gorka Azpiria (Arrasate)
- Jose Ramon Aiastui (Oñati)
- Usoa Agirre (Antzuola)
- Jose Luis Zabalo (Antzuola)
- Jose Muxika (Antzuola)
- Garbiñe Markuleta (Oñati)
- Maria Fernandez (Bergara)
- Jesus Angel Gardoki (Antzuola)
- Ino Galparsoro (Arrasate)
- Javier Altube (Oñati)

'Maiteminduak' liburua
- Jasone Barandiaran (Eskoriatza)

TELEBERRIAK

‘Basetxea’-k urteko audientziarik handiena lortu du

Astelehenean emititu zuten *Basetxea* lehiaketaren aurreneko saioa, eta audientziari dagokionez, urteko emaitzarik onenak eskuratu zituen: %21’9, 261.000 ikusle. Oraingo asteko programan, lehiakideak bi taldetan banatu ziren *(Montxinoak* eta *Billanoak*) eta berehala, jo eta su hasi behar izan zuten lanean.

EiTBk 24 orduko informazio-kate berria aurkeztu du

EiTBren informazio-kate berria Interneten ikus daiteke, euskaraz, espainolez edo ingelesez. Besteak beste, BBC kateko New Mediako zuzendariak parte hartu du EiTBren egitasmo berrian. Astelehenean aurkeztu zuten webgune berria: *eitb.com*. Informazio orokorraz gain, besteak beste, euskal errealitatearen gaineko iritziak izango dira, audio eta bideoz landutako edukiak, telebistaren gaineko albisteak eta kirol arlo oso landua.

Frantziako bi *reality-show*-ren arteko espioitza ikertzen dabiltza

Martxoan zabaldu zuten ikerketa. M6 kateak *Gran Hermano*-ren antzeko saioa aurkeztu zuenean, *Les Colocataires*. M6k jakin zuen TF1 telebista kateak pertsona bat kontratatu zuela M6ren programan lan egiteko eta hango sekretuak esateko.

AMAGOIA LASAGABASTER/ GOIENA TELEBISTAKO ‘DANBAKA’ SAIOKO AURKEZLEA

“Kalean ikusten da interesa piztu dela ‘Danbaka’ musika lehiaketarekiko”

UBANE MADERA

Amagoia Lasagabaster aurkezlea izango dugu oraingoan berba-lagun. Laster estreinatuko den *Danbaka* musika lehiaketa aurkeztuko du GOITBn. Orain arte, *Sarrera doan* aurkezten ibili da.

U.M.

GOITBko platoa laga eta Elgetako Espaloira zoaz kontzertuak aurkeztera…

Uste dut baietz (*barrez*). Gainera, ez naiz bakarrik egongo, Arkaitz Billar oñatiarra izango dut nirekin aurkezle lanak egiten. Azken batean musika kontuekin jarraituko dut; izan ere, *Sarrera doan* saioan ere musika kontuak lantzen genituen. Orain, aukera izango dut inguruko taldeak ezagutzeko. Lan desberdina izango da, ikusleak izango ditut aurrean… Bai, errespetu apur bat ematen du.

Musika, kontzertuak… Joseina Etxeberriaren pausoak jarraituko dituzu, ala?

Ez, ez dut uste (*barrez*)

***Danbaka*-ri buruz zerbait gehiago jakitearren, lehiaketara aurkeztuko diren taldeen lagunek-eta non, zelan eta noiz jarrai dezakete *Danbaka*-ren nondik norakoak?**

Eguazten eta eguenetan izango dira saioak,urriaren 27tik aurrera. Urriaren 21ean, berriz, lehiaketaren nondik norakoak aurkeztuko ditugu: epaimahaiko kideak zeintzuk diren, non grabatuko diren kontzertuak, zein talde aurkeztu diren, SMS bidez ikusleen saria zelan bideratu… Gainera, eguazten eta egueneko saioez gain, lehiaketaren jarraipena egite aldera, gainerako hiru egunetan bost minutuko saioak egingo ditugu, SMS bidezko botoen jarraipena, elkarrizketak, ikusleekin izango gara… eta asteburuetan errepikapenak egingo ditugu.

> *“Urriaren 21ean aurkeztuko ditugu ‘Danbaka’ musika lehiaketaren nondik norakoak”*

Halako zerbait antolatzen den aurreneko aldia da; taldeak hasi dira erantzuten?

Oraindik goizegi da hori jakiteko. Nik dakidana da kalean ikusten dela interes hori; gainera, edozein motatako musikarekin lotuta. Hemen gehien entzuten den musika rock, punk, hardcore estilokoa da, baina kalean entzun dudanez, beste edozein motatako musika lantzen dutenek ere erakutsi dute interesa: trikitilariek… Lehiaketa irekia da, eta espero dut denetik izatea.

> *“Gure ibarrean beti dago zerbait egiteko; zulo batean bizi gara, baina ingurua ere gertu dugu”*

Gero zelan antolatuko dituzue taldeak; sari bakarra izango da?

Bi sari izango dira, lehenengoa diskoaren grabaketa; hor musika mota guztietako taldeak lehiatuko dira. Bigarren saria, berriz, instrumentuak dira; ikusleek ematen dute sari hori; hortaz, gustuen arabera. Hori bai, nik uste dut lehiaketan parte hartu behar duten 20 taldeak aukeratu eta kontzertuak egiterako orduan kontuan hartuko dutela musika mota bereko taldeak batera ipintzea kontzertuak emateko.

***Danbaka*-k *Sarrera doan* baztertu du, baina otsailean berriro etorriko da, ezta?**

Seguru baietz. Izan ere *Danbaka*-k iraungitze data du eta hori bukatzen denean beste zerbait ipini beharko dugu.

Orain arte *Sarrera doan*-ek erantzun ona izan du, ezta?

Uste dugu baietz. Denetarik duen saioa da, erraz kontsumitzekoa. Zinema, musika… denoi interesatzen zaizkigun gauzak dira. Gainera beti egiten dugu saioa asteburura begira, jendearendako proposamenak egin guran; sariak ere izan ditugu eta jendeak dezente deitu izan du.

Asteburuetan ‘aditua’ izanda, egingo diguzu planen bat astebururako…

San Migelak dira, eta aretxabaletarra naizenez… Zapatua, adibidez, oso egun polita izaten da, azoka ekologikoa dago; azken urteotan geroago eta arrakasta handiagoa izan du; bertsolariak daude, taloa, sagardoa… eta gero bazkariak. Giro polita egoten da.

4x4
aukera zabalena

Saltzeko eta erosteko
•
Nahi duzun modeloa ez badaukagu, bilatu egingo dizugu
•
Ia berriak eta bigarren eskukoak (bost urte baino gutxiagokoak)

4QUATTRO

ZABALDU BERRIA!

4QUATTRO4
Aukerako 4x4 ibilgailuak
Musakola auzoa 21 (Roneo parean)
ARRASATE

Tel.: 605711576
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net

Añai erretegia

Nardeaga 32 / ARAMAIO
945 44 51 01

Eskaintza
- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak
- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik

Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

Eskaintza
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita

Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita

Pildain jatetxea

Udala auzoa 14 / ARRASATE
943 79 11 65 / 943 77 18 40

Eskaintza
- Eguneko menua
- Lagun arteko afariak
- Bataio eta jaunartzeak
- Ogitartekoak eta kazuelatxoak

Berezitasunak
- Bildotsa labean erreta
- Babarrunak
- Arraina
- Etxean egindako ogia

Torrekua jatetxea

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

Berezitasunak
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak

Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik

Uxarte ostatua

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.228 ale • **Difusioa:** 18.185 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria
EGUBAKOITZA, 2004ko irailaren 24a

Atzeskua

OIHANA ELORZA

Jon Suinaga/ Komikilaria

Nor da Jony eta nortzuk dira bere lagunak? Jonyk 25 urte inguru ditu eta ez du kokaleku zehatzik, Euskal Herriko edozein gazte izan daiteke, hortaz. Bere lagunak ere hemengoak dira, Euskal Herrikoak.

***Zakilixut*-en antzik badu Jonyk?**

Biak dira Euskal Herrian egindakoak, baina hortik aurrera ez dute antz handirik. *Zakilixut* eguneko albisteekin batera bizi da eta beste umore bat du. Jonyk kaleko gauza arruntek sortzen duten umorea du.

Eta *Shin Chan*-ena?

Ez da hain lotsagabea, baina bai oso bihurria.

Derrigorrez izan behar dute umorezkoak komikiek?

Nire kasuan, bai. Kritikak eta hausnarketak ere agertzen dira nire komikian, baina umorezkoa da. Orokorrean, tira guztiak direla umorezkoak uste dut. Egunkarietakoak ere horrelakoak dira.

Marrazki bizidunak dira telebistako komikiak, komiki bizidunak?

Bai. Askotan gertatzen da, ordea, komiki asko marrazki bizidun edo film bihurtzean, euren xarma galdu egiten dutela.

Benetako komikiak paperean daudenak dira, beti galtzen dute indarra telebista edo zinemara eramaten dituztenean.

Ikusi duzu *Mortadelo y Filemón* filma?

Bai, ikusi dut. Asko gustatu zitzaidan nola eginda dagoen. Zuzendari horren aurreko lanak ere gustatzen zaizkit, eta *Mortadelo y Filemón* ere bai. Gidoia, ordea, ez zitzaidan hainbeste gustatu.

Irakurtzen zenituen komiki horiek, txikitan?

Mortadelo y Filemón eta *Zipi y Zape* irakurtzen nituen hasieran. Gero, *Asterix eta Obelix*, *Tintín*, *Lucky Luke* eta antzerako komikiak irakurtzen hasi nintzen. Baita *Mafalda* eta bestelakoak ere.

Behin, *Olafo* bikingoaren tirak irakurri nituen; ikaragarri gustatzen zait, eta orduan hasi nintzen nire komikiak egiten. *Jony eta lagunak* komikiko pertsonaia batzuek 12 urte inguru dituzte. Marrazkiak egiten hasi nintzen, eta duela bizpahiru urte hasi nintzen komikiak serio egiten.

Pertsonaiak eta istorioak, pasadizoak, sortzen dituzu lehenbizi, eta gero, forma eman. Testuek ez dute ezer esaten marrazkirik gabe, eta alderantziz.

Euskaraz eta gaztelaniaz kontatzen dituzu Jony eta bere lagunen istorioak.

Gazteleraz idatzi nituen lehendabizi, baina euskaraz ere atera nahi nituen. Istorioak euskaratzeko laguntza eskatzen hasi nintzen, eta Bergarako Udaletik etorri zitzaidan laguntza.

Orain, bi liburutxo kaleratzen ditut, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz, baina bietan istorio berak kontatzen ditut.

Zenbat istorio guztira?

Liburu honetan 128 tira daude, eta tira bakoitza istorio bat da.

“Komikiak paperekoak dira, indarra galtzen dute telebista eta zineman”

“Euskal Herriko edozein gazte dira ‘Jony eta lagunak’, eta kaleko gauza arruntek sortzen duten umorea dute guztiek”

“Komikian, testuak ez du ezer esaten marrazkirik gabe, eta alderantziz”

► *Bergara /37 urte / Ingeniaria da*

PIPERRAUTSA

Atxaga

Oñatin izan nintzen aurreko larunbatean, Laixan euskara elkarteak antolatutako jaian. Ni neu gaueko saiora bakarrik joan nintzen, Atxagak erakarrita, baina esan didate egun osoa izan zela polita. Ea, emaitza onak animatuta, oñatiarrek egun hau finkatzen duten. Komeni zaigu, gutxienez urtean behin, elkar hartzea katalan eta galegoekin, hizkuntzen inguruan.

Frontoi betean aritu zen Atxaga, lagun hartuta Ruper, Juan Carlos Itoiz eta Joan Piris. Irakurketan testuak harilkatuz, eta kantuak tartekatuz, eraman gintuen ibilbidean arrastotik arrastora, iraganetik etorkizunera, beltzetik zurira. Oso gogoko dut Atxagaren irakurtzeko modu berezia, eta uste dut harrapatuko nindukeela baita telefono gida irakurrita ere.

Baina larunbatean gauza bat zen nagusi Atxagaren mezu poliedrikoan: itxaropena. Hasieratik iragarri zuen bidaia izango zela ‘beltzetik zurira’. Eta kateatu egin zituen zantzu baikorrak: Barandiaranen esnezko ibaiak eta Ernion aurkitutakoa, poeta katalanaren itzulpena eta haren leloa, ‘Joan nintekeen eta zoriontsu izan, baina gelditu egingo naiz’. Eta, badaezpada, amaieran espresuki azaldu zuen baduela esperantza gure etorkizun kolektiboan, gai izango garela aurrera egiteko.

Nigan eragina du Atxagaren iritziak, eta animoso itzuli nintzen Oñatitik, tximeletak sentitzen nituela urdailean. Aspaldiko partez.

MIKEL IRIZAR

Urte bukaera arteko harpidetza.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa